

Goienkaria

2007ko uztailaren 6a > Egubakoitza > VII. urtea > 295. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

G2a

Aby-Kem taldea
diskoa grabatzen
hasi da > 43-44


OÑATI
Oñatz dantza taldea Idahora doa
(AEB), San Inazio jaietara > 15

ARRASATE
Uribarriko auzotarrak kezkatuta
kanposantu eta errotarekin > 18

BERGARA
Auzoetako liburutegiak, ludoteka
eta udalekuak lehiaketara > 25

"Gure erronka
haxe da:
ikustea
euskarak
baduela isla
egunerokoan"

Andres Urrutia
Euskatzaindiko
lehendakaria > 09



YEMENEKO ATENTATUA

Jon Lazcano Yemenetik bueltan

"Oraindik ez dugu
erabaki Yemenerako
bidaiekin jarraituko
dugun ala ez"

Lazcano berigararra Banoa agentziako zuzendarietako bat da. Yemenetik iritsi berri zela izan gara harekin. Ger-taerak "hunkituta eta harrituta" dauka. > 04



Jon Lazcano.

GOIENKARIA

ARKEOLOGIA > LEZE-TXIKI

Aurkikuntza garrantzitsua Leze-Txikin

150.000 bat urteko
harrizko pieza
aurkitu dute > 05

AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-08
- Elkarrizketa > 09
- Iritzia > 10-11
- Gutunak > 12
- Herriak > 15-39
- Kirola > 40-41
- Kultura > 45
- Sailkatuak > 46
- Eskelak > 47
- Denbora-pasa > 48
- Gazteak > 50
- Komunikazioa > 51
- Telebista-Irratia > 52
- Non-zer > 54-55



INGALATERRATIK Julian Brod ingelesa *Enjoy English* programaren bitartez etorri da Bergarara. Irudian, Bergaran dituen ikasleekin.

XABIER URTZELAI

UDALEKUAK > INGELESEZKO UDALEKUAK

Ibarrean ere badira ingelesezko udalekuak

HARRERA ONA Bergara eta Oñatiako 200 umetik gora dabilta uztaileko udalekuetan ingelesa ikasten

IRAKASLEA ETXERA 'Enjoy English' programaren berezitasuna da irakaslea etxean hartzen dutela

Uztailean ingelesezko udalekuak ere badira Debagoienean, Bergaran eta Oñatin. Eta ez dira gutxi hautaketa hori egiten dutenak: 200etik gora neska-mutikok dihardute.

Ikastetxeak dira udalekuok aurrera eroaten dituztenak eta programa bat baino gehiago dago. Horietako bat da *Enjoy English*: kanpotik etorri diren irakaslek ikasleetako batzuen etxean iga-roko dute uztaila. > 02-03

SUPER AMARA

DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Armillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkaleku

Ford Focus 12.900€
Airea girotua, ABS,
CD irratia eta Barruko
ordenagailua.
eta gainera **0% ko UTB**
24 hilabeteko finantzaketa.

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Feel the difference

UDALEKUAK > IBARREKO 200 IKASLE BAINO GEHIAGO DABILTZA INGELESEZKO UDALEKUETAN MURGILDUTA

Ingelesezko irakaslea, bai udalekuetan, eta baita etxeen ere

IRAKASLEAK, ETXERA 'Enjoy English'

English' izeneko udalekuetan irakasle kanpotarrek ikasleetako batzuen etxeen igaroko dute hilabetea

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bergaran eta Oñatiin guztira 200 neska-mutiko baino gehiago dabilta ingelesezko udalekuetan. Ikastetxe bakotzak bere programa du, baina Aranzadi eta Txantxiku ikastolak burutzen dabilta *Enjoy English* programak badu berezitasun bat: ibarrera eskolak ematera etorri diren sei irakasle kanpotarrek ikasleetako batzuen etxeen igaroko dute hilabetea.

Bergaran, Julian Brod inglesa eta Freija Paterson eskoziarra izan dira eskolak emateko aukeratuak. Brodek 8 eta 11 urte bitarteko 18 neska-mutikoko taldea dauka, eta Patersonek gaztetxoa gozti ardurra du, 6 eta 8 urte arteko 11 laguneko taldea. Hala, udalekuetako koordinatzaile Naiara Bernalek esan digu udalekuetan zer egingo duten: "Aste barruan, 08:00etan elkartzen gara irakaslekin eta egun horretako programa adosten dugu, eta baita materiala prestatu ere. Umeak, berriz, 09:30ean etortzen dira hona, eta 13:30ak arte egoten dira gurekin".

Uda izanda, irakasleek gela barrurako zein kanporako ekinatzak prestatu behar dituzte. Hala,

eguzten goiza kantuan hasi zuten Broden ikasleek, baina gero, *Altxorraren bila* jolasean jarduteko asmoa zeukan: "Aurreko gauean ibili ginen ibilbidea eta arrastoak prestatzan. Bihar, berriz, San Martzialera joango gara, ur jokoak egitera".

Brodek onartu digu Inglaterrako gaztetxoek moduan hemen goek ere futbola baino ez dutela buruan, eta futboolean jokatzeko asmoa ere badutela: "Baina ingelesezko berbak erabili behar dituzte jokatzen dabiltsan bitartean; *pass my the ball* (pasatu balioa) eta horrelakoak", esan digu Bernalek.

ETXEAN, OSO ONDO

Udalekuetako irakasleek astebeete baino ez daramate hemen, eta Broden esanetan –gaztelera ondo moldatzen da, eta harekin egin dugu berba–, egin duten astean oso gustura egon dira: "Normala den moduan, etxekoezin konfiantza handiagoa hartze-rakoan askoz hobeto ibiliko gara, oraindik elkar ezagutzen gabil-tza-eta. Maddi eta Olatz –etxeko alabak– nahiko lotsatiak dira, baina gaztetxoak izanda ere ondo moldatzen naiz eurekin. Azken

80 NESKA MUTIKO

Txantxiku eta Aranzadi ikastoletako 80 neska-mutiko dabilta udaleku horietan murgilduta; ulermena lantzea dute helburu

ESKAINTZA ZABALA

Programa horrez gain, Mariaren Lagundiko eta Elkar Hezi ikastetxeko beste 127 ikasle ere ingelesezko udalekuetan dabilta

batean, kanpotik etorri garenok ohitu egin behar dugu hemengo ohitura, janari eta bestelakoetara. Dena dela, Inglaterrarekin alderatuta, ez pentsa alde handirik dagoenik".

Nerea Garmendiaren eta Kolodo Alberdiren etxeen dago Brod, Maddi eta Olatz alabekin batera. Eta, Garmendiak azaldu digu ez dela lehenengo aldia kanpotar bat etxeen hartzen dutena: "Aurrekoan ere esperientzia ona izan genuenez, errepikatu egin dugu". Hala, Garmendiaren oso positiboa da Brod etxeen izatea: "Horrela, Maddi behartuta dago etxeen ere ingelesez berba egite-ria, eta hori ona da. Gainera, kanpoko pertsona batekin gure etxe-ko eguneroko bizitza eta espazioa konpartitzean, guztiok ikasten dugu zerbaite", esan digu Bergarakoak.

SANFERMINETARA

Astebeete baino ez dute hemen egin, eta dagoeneko Donostian egon dira, eta baita San Martzialgo jaietan ere: "Dantza, adibidez, oso interesgarria iruditu zitzaidan, eta giro aparta egon zen. Gainera, ikustekoa da inguruau zelako paraje ederrak dauden".



KANTUAN Gitarraren laguntzarekin, Broden ikasleek

Brod eta Paterson, baina, aste- burua noiz iritsiko irrikan dau- de, Sanferminetara doaz-eta: "Zezenak gertutik ikustera", esan digu Brodek.

HIZKUNTA, GARRANTZITSUA

Londresko gaztearendako beste hizkuntza bat ikastea oso garran-tzitsua da, eta konturatu da atze-rriko hizkuntzak ikasteko beste leku batzuetan Inglaterran baino ahalegin handiagoa egiten dutela: "Inglaterran jendeak badaki atzerrian ere ingelesa era-biltzen dela, eta, alde horretatik, ez dute beste hizkuntza bat ikas-teko beharrik ikusten, ez dute ahaleginik egiten. Ni, baina, konturatu naiz hizkuntza bat jakiteak lurralde horretara gehiago gerturatzenten zaituela, errazagoa da-eta berau ezagutzea".

Egurraren tratamendua (pipiak, termitak...)

Orain hezetasunaren tratamenduak egiten ditugu



Ibarluze poligonoa, B -12. pab.
20120 Hernani
Tel.: 943 33 18 37
www.garbicontroldeplagas.es





kantuan hasi dute eguzten goiza. Altxorraren bila jokoan jardun behar zuten gero.

XABIER URTZELAI



X.U.

Julian Brod eta Freija Paterson > Irakasleak

"Hemengo familia batean egotea plazerra da, asko ikasten da-eta"

GOIENKARIA > HERRIA

Enjoy English programa barruan, Julian Brodek (22 urte) eta Freija Patersonek (24 urte) hilabete egingo dute Bergaran. Irakasle lanetan dabilta, nahiz eta eurak irakasleak ez izan. Hala, umeekin lan egitea nagusiekin lan egitea baino gogorragoa dela esan digute, baina gustura dabilta, bai eskoletan eta baita etxearen ere. Brodekin egin dugu berba.

Zelan animatu zinen Enjoy English programan parte hartzera?

Nire kasuan, Mexikon sei hilabete irakasle lanetan igaro eta gero, Euro-para itzultzeko gogoa nuen, beste denbora batez irakasle lanetan jarduteko. Neurri berean, baina, bidaiatzan eta jendea ezagutzen jarraitzeko asmoa nuen, eta, nire unibertsitateko webgunean aukera honen berri izan nuenean, ez nuen birritan pentsatu.

Eta, zelako da beste hizkuntza batean berba egiten duten gaztetxoekin lan egitea?

Egia esan, lehenengo aldia da gaztetxoekin lan egiten dudana, lehenago nagusiendako ibili naiz-eta ingelesezko eskolak ematen. Eta bai, hellekin lan egitea baino nekarriagoa da, nahiz eta gustura ibiltzen naizen. Mexikon, adibidez, ikasleak lan ordutatik kanpora etortzen ziren eskolatarra, 19:00ak inguruan, eta ordurako jendea oso nekatuta egoten zen.

Orain, baina, gazte hauek sekulako energia dute. Egia esateko, lan hau erronka da niretako.

Zelako klaseak ematen dituzue? Jolasen bitartez ingelesa apur bat irakastea da gure asmoa, batez ere ulermea lantza. Azken batean, hizkuntza bat ez da bi egunean ikasten, eta, uda denez, gurago dugu joko eta jolasekin jardun, bai eskola barruan eta baita kalean ere. Ez daukagu gramatika lantzeko asmorik, ahozko hizkera eta ulermea landuko ditugu.

Udaleku hauen beste berezitasun bat da ikasle baten etxearen igaroko duzuela uztaila.

Bai, ekimen berezia da, eta plazerra da beste familia batekin bizi izatea, familia bakoitzak ohitura propioak eta bestelako ezaugarriak izaten dituelako. Bada, horrelako esperientziatik asko ikasten dela uste dut.

Lan egitearekin batera, baina, Euskal Herria apur bat ezagutzeko aukera ere izango duzue.

Bai, eta hori dauka ona Bergarak, hiriburua guztietatik nahiko gertu dagoela, alegia. Aurreko asteburuan Donostian izan ginuen, eta asteburuan Irunera joango gara, sanferminetara. Gainera, esan didatenez hemengo kostaldean oso marisko ona ematen dute, eta probatzen joateko deseatzentago. Gainontzeko hiriburua kere bisitatuko ditugu.



Olatz, Maddi, Julian eta Koldo, etxearen afaltzen.

NEREA GARMENDIA



Omega Elevator, s.a.

- Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
- Gremioen koordinazioa
- Arkitektura-oztopoen kentze lanak

Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com

SSANGYONG ACTYON 4x4 BERRIA
Mercedes-Benz Motorrekin: 200 Xdi 141 ZP

22.960 €-tik aurrera

SSANGYONG
VERTIZ MOTOR
Olastra pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10
Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66
Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99

YEMENGO ATENTATUA > BERGARARRA YEMENEN IZAN DA EGUNOTAN

Jon Lazcano: "Momentu nahasiak dira, ez dakigu zer egin bidaia horrekin"

Banoako zuzendarietako bat da, eta Espainiako gobernuak Sanara bidalitako hegazkinean joan da

MIRIAN BITERI > BERGARA

Oso lanpetuta dabil egunotan Jon Lazcano bergararra, Yemenen atentatu suizida gertatu zenean. Bidaia antolatu zuen Banoa agentziako zuzendarietako bat da, eta Espainiako gobernuak Yemenera bidalitako hegazkinean bidaiatu zuen, bidaia-agentziako ordezkari gisa. Hala ere, GOIENKARIAren deiarri adeitazunez erantzun dio Lazkanok.

Oraindik gertatutakoarekin "harrituta eta hunkituta" dagoela azpimarratu du. "Ez genuen horrelakorik espero, bestela ez genuen bidaia hori antolatuko. Kolpe gogorra izan da guztienako", azaldu du.

Kontuan hartu behar da 15 urte baino gehiago daramatzala Banoak Yemenera bidaiaik presatzen eta sekula ez dela ezer gertatu. Turista guztiek hango



Irudian, Jon Lazcano.

ARTXIBOA

gobernuaren kontrolpean daudela eta ezarritako "segurtasun neurri guztiek betetzen" zirela jakinarazi dute agentziakoek egunotan.

Momentuz, abuzturako esandako herrialdera aurreikusita zeuden bidaia guztiek bertan behera utzi dituzte. Uda ondoren zer egingo duten zehazteke dute

oraindik. "Oso momentu nahasiak dira, eta, beraz, oraindik, ez dugu inongo erabakirik hartu", azaldu du Lazkanok. Egoera lasaitzen den heinean, aztertu beharko dutela gaineratu du.

Gertatutako gaitzesteko protesta egin zuten Oñatin

Joan zen astelehenean Yemenen gertaturiko atentatuaren ostean, elkarretaratzea egiteko dei egin zien Eusko Jaurlaritzak udal erakundeei. Debagoienean, Oñatioko Udalak bat egin zuen deialdi horrekin eta eguztenean elkarretaratzea egin zuten.

Hamabost bat lagun bildu ziren eguerdian udaletxeko sarreran. Ez zen botaziorik egin deialdia atxikitzeo; langile bakotzak protestan izatea edo ez erabakitzeko aukera izan zuen.

Jakina denez, joan zen astelehenean, Sabako Erreginaren tenplutik gertu, turisten taldeko autoen kontra jo zuen suizida batek, autoa leherkariz beteta zuela. Hamar lagun hil ziren: bi euskal herritar, sei katalan, Burgosko emakume bat, bi yemeniar eta suizida bera. Euskal Herritarrak Mikel Essery eta Magie Alvarez zarauztarrak ziren.

Zaurituek, hobera

Leherketak sei zauritu eragin zituen. Lazcano horiekin izateko aukera izan du, esan bezala Espainiako gobernuak martitzean Yemengo hiriburu Sanara bidalitako hegazkinean bidaiaitu

zuen-eta, Banoa bidaia-agentziako ordezkari moduan. Zauritu guztiek hobera egin dutela jakinarazi du, baita Yemenen geratu den arabarra ere. Haren osasun egoerak, edozelan ere, oso kezkagarria izaten jarraitzen duela gogorazi du.

Bera zelan aurkitzen den ere azaldu du: "Oso kolpe gogorra" izan dela azpimarratu du eta "ordu eta momentuaren arabera, gogo-aldartea aldatzten zaiola" jakinarazi du.

Azken egunotan, joan eta etorrion ibili da, atseden hartzeko astirik gabe. Hala, "normaltasunera" bueltatzeko gogoa duela ere aipatu du Jon Lazcano ber-garrarrak.



Hamabost bat lagun bildu ziren Oñatioko udaletxeko sarreran.

ARRITXU BARRUSO



**EGUZKITAKO
BETAURREKO
GRADUATUA K**

69
€*

**Eguzkiaren
distirak modan
jartzen zaitu**

* Eskaintza hau ondokoentzat da baliagarria: Beslayt 1.5 Sol lente organikoak; Cat: 3 (kolore berde, marroi edo gris degradatu gabea); zilindroa +2; esfera +2tik -4ra bitartean); "Bonardi Sol Graduado" bildumentzat.

R.P.S. N° 190/04 I.I.G.

J. Carlos Guerra, 1
Tel.: 943 79 29 95

ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75

BERGARA

C/ Nueva, 15 - GROS
Tel.: 943 32 66 49

DONOSTIA

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22

EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel.: 943 51 78 11

ERRENTERIA

Mendibil M.G.
Tel.: 943 63 99 01

IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88

ORDIZIA

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70

TOLOSA

ENPRESAK > GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA

Edertek, Garaia Berrikuntza Gunean lanean hasi den lehenengo enpresa

Oraingo astelehenean hasi dira lanean Edertek enpresako 31 langile; hamar milioi euroko inbertsioa egin dute instalazio eta ekipamenduetan

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE Oraingo astean bertan jarri dute martxan Garaia Berrikuntza Guneko lehen enpresa: Edertek. Momentuz, 31 ikerlarik dihar-dute, baina aurrerago 40 bat izango dira. Hamar milioi euroko inbertsioa egin dute guztira.

Urtea amaitu baino lehen inauguratuko dute eraikina, Fagor Ederlanek Markuleten egin duen galdegi berriaren (fundizioa) inaugurazioarekin batera.

IKERKETA ZENTROA

Edertek Ikerketa Zentroa irabazi asmorik gabe enpresa zerbitzuak eskaintzeko eratutako koooperatiba da. Fagor Ederlanen gida-ritzapean eta MCCko Automozio Dibisioko Mapsa eta Ecenario kooperatiben lankidetzarekin era-tu zuten. Enpresaren helburua da



ESTREINATU BERRI Edertekiko ikertzale taldea bulego berrian lanean.

eta frogak egiteko instalazioak. Angel Akixu Edertekiko gerenteak azaldu digunet, bigarren eraikina, IMA kokatzen dena, ezin izango dute guztiz martxan jarri irailera arte, makinarik garrantzitsuena ez zaielako oraindik iritsi.

IBILBIDE LUZEA

Edertek 2005. urtean eratu zuten. Hori baino ibilbide eta eskarmentu handiagoa dauka, baina, enpresak; izan ere, Fagor Ederlanen Ikerketa eta Garapen Sailean du jatorria.

Edertek-ek lan gehientsuena egiten du Fagor Ederlanen galdegiari eta mekanizatuenei lan-tegiei begira. Markuleten fundizio berria egin du Ederlanek eta han ere lanean hasi berri dira.

Edertek-ek eta galdegiak harreman zuzena dutenez, bien inaugurazioa batera egingo dute-la aurreratu digu Akixuk; urtea amaitu baino lehen izango da ekitaldi hori.

HURRENGO URRATSA, ISEA

Garaia Berrikuntza Gunean egin- go duten hurrengo eraikina izan-go da ISEA Teknologia Zentroarena. Garaiako arduradunek adierazi digitenez, uda ondoren hasiko dituzte lanak.

POLITIKA > BERGARAKO ALKATE OHIAK EAE-ANV-RI ERANTZUN DIO

Victoriano Gallastegik esan du berak ez duela soldata bikoiztu alkate izan denean

Bergarako alkate ohiak dio EAE-ANV alderdiak gezurra esan duela eta bera ez dela aberastu

EAE-ANV-ek ekitaldia Bergaran egin zuelako, aipatutzat jo du bere burua Gallastegik eta adierazpenak egin ditu



Victoriano Gallastegi. GOIENKARIA

eta hitz egin zuenetako bat Bergarako alkatea izan zelako", eta argitu nahi izan du bere solda-ta ez dela bikoiztu: "Udaletxeen sartu nintzenean, 1991n, udalbat-zak onartu zuen nire soldata eta ordutik 2007ra, udaletxeko gai-

nerako langileek izan duten igo-era bera izan nuen nik ere". Sol-data hori ez zen iristen bizitza profesionalen nuen diru sarre-rara, eta differentzia alderdiak jarri zuen. Eta kargu liberatu bakarra egon da: alkatea", argitu du. "Beraz, adieraztea, eta errespetuari falta eginez esatea, alkate presidentzialista bezala herriarengatik lan egiteak kar-gudunen aberastasuna dakarre-la, gezurra da eta salaketa jar-tzea merezi du. Horregatik, arre-ta berezia ipiniko diegu agintaldi berriko soldatei", jarraitu du Bergarako alkate ohi Victoriano Gallastegik prentsari eginda-ko adierazpenetan.

AUDITORIARI BURUZ

Victoriano Gallastegik esan du "herritarrei egia esateko" egin dituela adierazpen horiek. "Komunikabideetan gezurrak esaten irten aurretik, alkateak informatu eta egia esan behar die herritarrei, horretarako bitarte-ko guztiak ditu-eta", esan du.

Soldaten jaitsierarakin bate-ra, azpiegiturei buruz herriari hitza eskatzeko bitartekoak jarriko dituela eta auditoria indepen-dentea egingo duela ere esan zuen EAEK ekitaldian. Horri buruz, "nik 1991n egin nuen lehen kan-po auditoria eta 2007ra arte egin dugu", esan du Bergaran 16 urtez alkate egon den Gallastegik.

EGURREZKO ETXEA



Sukaldea eta bainugela jantzita Urtebeteko etxeko aseguru poliza doan



24.500€



Serge Pletinckx
IGELTSERITZA

Tel.: 607 957 911
610 735 223

www.polandcasa.com



OIHANA ELORTZA > BERGARA Victoriano Gallastegi Bergarako alkate ohiak esan du gezurra dela alkate izandako urteetan bere soldata bikoiztu egin dela. EAE-ANV alderdiak datorren agintaldi- dirako lan ildoak aurkeztu zituen Bergaran egindako agerraldian

eta alkateen soldatak jaitsi egin- go dituztela esan zuen, eta azken urteetan liberatutako karguen kopurua eta haien soldatak bikoiztu egin direla salatu.

Victoriano Gallastegik aipatutzat jo zuen bere burua, "eki-taldia Bergaran egin zutelako



AURKEZPENA Kulturaten aurkezu zuten webgunea, martitzenean, Dani Larreak eta Ainhoa Elicesek.

JOSEBA ANTIA

EUSKARA > LAN ESPARRUAN EUSKARAREN PRESENTZIA BULTZATZEA

'LanTaLan' webgunea jarri du martxan Emunek

Lanean euskara erabiltzen lagunduko duten tresnak eskaintzeaz gain, informazioa trukatzea sustatzeko ere balio du horrek

MIRIAN BITERI > ARRASATE
Emun kooperatibak www.lanta-lan.com webgunea jarri du abian. Lan esparruan euskara sustatzeko tresna berri hori martitzenean aurkezu zuten Arrasateko Kulturaten.

Bi helburu nagusiri erantzuteko sortu dutela jakinarazi zuten, aurkezpenean, Emuneko zuzendari nagusi Dani Larreak eta marketin zuzendari Ainhoa Elicesek: alde batetik, langileei lanean euskara erabiltzen lagunduko dieten tresnak eskaintza

bilatzen du; eta, bestetik, euskalduntzean lan egiten duten eragileen arteko komunikazioa eta esperientzia trukatzeko ere erabili gura dute.

HAINBAT BALIABIDE
Enpresa eta erakundeetan euskararen erabilera bultzatzeko zenbait baliabide daude webgune berrian, hala nola hiztegiak, euskara zuzenerako arau eta aholkuak, zuzentzaile ortografiakoak, agiri ereduak eta euskarazko softwarea.

Horrez gain, informazioa elkartrukatzea helburu duen foroa ere aurki daiteke webgunean. Horrek blog formatua du eta albiste, iritzi-artikulu eta beste lakoak ditu. Foro horretan edonork parte har dezakeela jakinari zuten sortzaileek.

Albiste horien berri zuzena izatea ere eskaintzen du blogak, harpidetza sistema baten bidez. Modu horretan, albiste bat argitaratzen den bakoitzean harpidetza dunari mezu bat iritsiko zaio posta elektronikora, albistearren izenburu eta laburpen batekin.

Harpidetza egiteko, webgunea sartu eta *Baliabide eta tresnak* izeneko atalean *Harpidetu eposta* azpiatala dago. Eman beharreko pausoak azaltzen dira han.

Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Titietako gaixotasunak
- Minbizienaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria
- Jaioaurreko diagonestikoa-ekogarfia (4D)
- Endoskopioa ginekologikoa
- Laguntza bidezko ugalketa
- Obstetricia
- Nerabezaro ginekologica

Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- Mikel Gorostidi

OSASUNA > ARRASATEKO KIROLDEGIAN

Esklerosi anizkoitza dela eta, bainatzeko dei egin dute

'Busti zaitez' kanpaina egingo dute domekan, goizez eta arratsaldez, Arrasateko kiroldegian

M.B. > ARRASATE

Domekan, hilak 8, *Busti zaitez* kanpainen hamargarren edizioa egingo dute igerileku eta hondartzetan. Esklerosi anizkoitza dutenei laguntzeko antolatzen dute, urtero. Ibarrean, Arrasateko kiroldegian parte hartzea aukera egongo da.

Kanpaina horren helburua gaixotasun pneurologiko horrek eragiten duen problematikaren inguruan herritarra sensibilizatzea da. Gaixoen errehabilitazio zerbitzuak ordaintzen laguntzeko dirua biltzea ere badu helburu.

Hala, esklerosi anizkoitza dutenei lagundi gura dienak

Musakolako kiroldegiko igerilekura joan eta igerian egir behar du. Goizez eta arratsaldez egongo dira zabalik. Eguna amaitzean, egindako metro guztia zenbatuko dituzte.

DIPLOMA ETA GUZTI

Boluntarioak egongo dira igerileku mahai batekin. "Busitzen" direnek diploma bat jaso dute.

Horrez gain, esklerosi anizkoitza buruzko informazioa eta Kukuxumusukoek kanpaina horretarako diseinatutako materiala egongo da salgai mahaian: kamisetak, gonak eta txanoak, besteak beste.

ARKEOLOGIA > INDUSKETAK ARRASATEN

Aurkikuntza garrantzitsua egin dute Leze-Txikin

Atzo, eguna, 150.000 urte baino zaharragoa den harrizko una bat aurkitu zuten

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

Arrasateko Garagartzia auzoko Leze-Txiki kobazuloan oraingo astean hasi dituzte aurten udako indusketa lanak eta dagoeneko emaitza garrantzitsua lortu dute. Orain dela 150.000 bat urteko edo lehenago pieza aurkitu zuten atzo, eguna. Harrizko tresnak egiteko, harria lantzeko, harri printzak erabiltzen zituen gizakiak; printza horiek lortzeko, harri zati bat kolpatzen zuten eta handik printzak ateratzen.

Aurkitu dutena da harri zati bat,

nondik printzak aterata dauden. Alvaro Arrizabalaga EHUKO irakaslea eta Aranzadiko kidea da indusketen arduraduna; horrelaxe azaldu digu hark aurkikuntzaren garrantzia: "Orain arte aurkitu dugun piezarik zaharrena da eta horregatik da hain garrantzitsua gaurko aurkikuntza".

Uztailaren 2an hasi ziren indusketeen eta hilaren 22ra arte jarraituko dute. Astelehenetik zapatura dihardute lanean 18 ikaslek, Arrizabalagaren gidaritzapean.

CG
CONSULTORIO
GINECOLOGICO



Polyclinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18

Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88





*Promoción VALLEHERMOSO DIVISIÓN S.A. Inscripción en el R.M. de Madrid, tomo 372, folio 25, hoja M-7306 del libro de Sociedades, CIF-A-9494233. Toda la información relativa al R.D. 5/5/89 del 21 de abril, se encuentra a disposición de los compradores en nuestra oficina de ventas. *Las cantidades se ingresan en la cuenta especial 0019100569 27102997, y están avaladas por Afesa. *Obra en construcción.

Zabalganako onena



**ETOR ZAITEZ GURE BULEGORA ETA INFORMA
ZAITEZ PREZIOEZ ETA ORDAINTZEKO ERAZ.**

MERKATARITZA INFORMAZIOA:

Vallehermoso bulegoa

Florida 29-31 (Ortiz de Zarate kalea iskina)

01005 - Vitoria-Gasteiz



**Edo dei egiguzu
eta hitzodua egingo dugu,
ereduzko etxebizitza
ikusteko.**

Vallehermoso



945 13 47 47 | www.vallehermoso.es

Número Uno en Calidad de Vida

gure artekoak

OPEL ASTRA TWINTOP > Automobil berezia dakarkizuegu oraingo astean, Aretxabaletako Garaje Norteren eskutik; automobilien atal honetan lehen aldiz deskapotable bat aurkezten dizuegu, udan sartu gara-eta dagoeneko.

Rakel Rodriguez > Garaje Norteko saltzailea

"Sabaia zurruna da eta oso erraz ixten eta zabaltzen da"

AINTZANE IRIZAR > ARETXABAleta
Udarako automobil aproposa da Opel Astra TwinTop; baina negurako ere, eguneroko jardunera-ko, egokia dugu. "Kontuan har-tu behar dugu sabaia zurruna dela eta oso erraz, automatikoki, zabaldu eta ixten dela", azaldu digu Rakel Rodriguezek, Garaje Norteko saltzaileak. Gainera, urrutiko aginte bidez jartzen da martxan sabaia itxi edo zabaltze-ko sistema.

CABRIO ETA COUPE

"Bi automobil baten daukagu Astra honekin: cabrio dotoe bat eta coupe deportibo bat. Gainera, espazio handia eskaintzen digu; lau pertsonarendako tokia dauka, benetako tokia, deskapo-table askok ez daukatena", diosku Rodriguezek.

SERIETIK EKIPAMENDU OSOA

Ekipamendu osoa dakar Astra TwinTop automobilak, seri- etik. Hona hemen dakartzan zerbitzu aipagarrienen zerrenda: iraulita-koan babesteko sistema; direkzio lagundu elektrohidraulikoa; ABS balaztak; bihurgunetan frenake- ta kontrolatzeko sistema; IDS xasisa (xasisa oso baxu dauka eta horrek egonkortasuna ematen dio); ESP (egonkortasun progra-ma elektronikoa); diesel partiku-



Rakel Rodriguez, Astra TwinTop automobilean, gidari.

A.I.

Sport Hatch 1.9 Tid 150 ZP

Prezioa	26.890 euro
Luzera	4,476 metro
Zabalera	1,759 metro
Maletategia	440 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	6,1 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	213 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	10,2 seg.
CO2 isurketa	165 g/km

(1) Gehienezko edukiera

(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepideko kontuan hartuta

(3) Gehienezko abiadura

len iragazkia (DPF). Horretaz guztiaz gain, aire girogailua dauka, baita gainerako segurtasun sistema guztiak ere.

MOTORRETAN AUKERA

Motorrei dagokienez, gasolinazko automobiletan, lau modelo daude aukeran: 1.6 Twinport 105 ZP; 1.8 140 ZP; 2.0 Turbo 170 ZP eta 2.0 Turbo 200 ZP. Diesellean, bestalde, modelo bakarra dago: 1.9 CDTI 150 ZP.

Aipatzeko da, gainera, 2.0 eta 1.9 motordun automobil modeloelek sei abiadurako martxa-kutxak dituztela.

begi-bistan



Leze-Txikin lan eta lan (Arrasate)
2007/07/05

Argazkia: Arritxu Barruso.
Testua: Aintzane Irizar.

Horrelaxe dihardute astelehenetan ezkerro Leze-Txikiko kobazuloan: lan eta lan. 18 ikaslek dihardute indusketa lanak egiten, orain dela 150.000 urteko aztarna bila buru-belarri.

Har ezazu parte:
Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

etxeko leihotik



Aitziber Aranburuzabala > Arrasate Irratiko arduraduna

Erlaxatu gaitezen, baina errepitean ez!

Erosi dut datozen oporretarako bidaia gida-liburua. Lehenengo kilometroa egiten hasi aurretik, dagoene-ko bidaiatzen hasita nago, beraz. Aurretik nolabait-ko ibilbidea zehaztea gustatzen zait. Hori bai, inprobisa-zioari lekua utzita beti!

Abenturazalea naiz, baina ez dut nire burua ausartzat; horregatik, bada, segurutzat dudan tokietara joango naiz. Bainba al dago toki segururik? Zeren arabera da toki bat segurua? Zerbait gertatzen den arte guztiak, ezta? Urte- tan ezagutzen dugun hondartza bat segurua al da? Zoritzarrez ezagutzen ditut ur ezagunetan hildakoak; baita gertuko erre-pideetan galdu-takoak ere. Leku ezagunetan larregi erlaxatzen omen gara eta ezezagunetan, berriz, argiago ibiltzen. Toki arraroa eta toki arriskutsua ez dira gauza bera. Ezaguna ez da beti segurua, eta, era berean, ezezaguna ez da beti arriskutsua!

Turista eta bidaia-ria ere ez omen dira sinonimoak; nik bien arteko nahasketatzat daukat nire burua. Gida-liburu baten oinarritutako nire gustuko bidea markatuko dut aurten ere! Bidaia on!

> Gipuzkoako hon-dartza batzuetan,

Deba, Zarautz, Donostia eta Hondarribikoetan esaterako, galdu-tako haurrek identifikatzeko eskumuturrekoak banatuko ditu Gurutze Gorriak.

> Hutsik geratzen den etxea ere arris- kuan dago. Uda garaian izaten dira lapurreta asko. Oporretatik bueltan dena bere lekuaren izateko, bizilagu-nari eskatu behar zaindari lanak egiteko!

izen propioak



Mikel Plazaola
ESKUBALOI JOKALARIA

Eskubaloiko Gipuzkoako golegile nagusiaren saria eman diote bergararrari, lehenengo mailan. Ander Ugarte eta Ainhoa Apellaniz oñatiarrek ere sari bera jasoko dute, gazte eta kadete mailetan. Josetxo Muniategi bergararrak entrenatziale onenaren saria jasoko du.



Aitor Lopez Rekarte
FUTBOL JOKALARIA

Almeria futbol taldeak fixtatu du Aitor Lopez Rekarte. Hamar urte Real Sociedad taldearekin lehen mailan jokatu du Rekarte eta kapitaina izan da azkeneko denboraldietan. Orain, lehen mailara lehen aldiz igo den Almerian jokatuko du Bonba-k.



Jone Muxika
TXIRRINDULARIA

Aurreko asteburu-ruan bederatzigarrren postuan sailkatu zen Jone Muxika txirrindulari elgetarra, Cuencan jokatzen zuten Espaniako Txapelketan. Bestalde, gaur, egubakoitza, hasteko den emakume-en Italiako Giroan ere parte hartuko du Muxikak.

Urte gatazkatsuak Bidasoaren bialdeetan (1930-1945) gaia izan dute aztergai astean zehar Ara-

maioko VI. Uda Ikastaroetan. Besteak beste, Ludger Mees, Felix Maraña, Henrike Knörr eta Andres Urrutia izan dira hizlarietako batzuk. Bigarren urtez, Euskaltzaindiko pres- denteak hartu du parte. Hizkun- tza akademiaren zereginaren berri ere eman zigun Urrutiak.

Andres Urrutia > Euskaltzaindiko presidentea

"Gure erronka hauxe da: ikustea euskarak badaukala isla eguneroko bizitzan"

EDU MENDIBIL > BERGARA
Notarioa, ekonomialaria eta idazlea, Andres Urrutia (Bilbo, 1954) Euskaltzaindiko buru hautatu zuten 2005eko urtarrilean, eta Jean Haritxelharren lekuoa jaso zuen. *Administrazio euskararen aldeko ahalleginak: Eusko Jaurlaritzaren aldizkaria (1936-1937)* izenburuko hitzaldia egin zuen eguztenean Aramaion, Ibarra kultura etxearen. Tartetxo bat eskaini zigun hitzaldiaren aurretik. Berandu baina umoretsu azaldu zen hitzordura.

Espainiako gerra denborako Jaurlaritzaren aldizkari ofiziala gogoratuko duzu gaur.

Horixe da helburua, gogoraztea eta jendearen aurrean plazaratzea euskarari halako erre-gistro administratibo, erregistro juridikoa emateko lehen ahalegina izan zela. Uste dut Jaurlaritzaren aldizkariak bere pisua izan zuela bere garaian, erakusten duelako garai bateko ofizialtasunak norainoko bidea egin zuen euskararen garapenerako. Azken baten, hizkuntza baten barruan behar-beharrezkoak dira erregistro berezituak: administrazioan, irakaskuntzan edo komunikabideetan. Eredu haren 70. urteurrena betetzen dugu gaur eta interesgarria izan daiteke hura gogoratzea.

Bi urte luze eman dituzu Euskaltzaindiko buru. Zein da balorazioa?

Balorazioa norberak egin behar badu, beti dauka oso ona izan dela esateko joera, are gehiago presidentearen izanda. Nik esango nuke bidean goazela, pauso batzuk eman direla. *Pausogintza* horretan jarraitu behar dugu eta urte eta erdi barru zuzendaritzaz aldia bukatu bitartean pausu esanguratsuak ikusiko ditugu. Norantz? Zertarako? Euskaltzaindia XXI. mendean jartzeko, teknifikazioaren ikuspegitik teknifikazio osoa lortzeko; Euskaltzaindiaren baliabideak (personal baliabideak tartean) eraberritzeko eta zabaltzeko, esperientzia eta sentsibilitate ezberdinak barneratuz, euskaren onerako lanean jarri. Horretan ari gara eta oraindik ere zeregina daukagu aurretik.

Administrazio, irakaskuntza eta komunikabideei arreta berezia eskaintzen diezue.

Gure erronka ez da horrenbeste euskararen bizi iraupena. Aurreko belaunaldiaren erronka



Andres Urrutiak hitzaldia egin zuen eguztenean Aramaion.

E.M.

izan da hori eta neurri batean ere lortu izan da. Gure erronka da ikustea bizi iraupen horrek baduela isla, baduela lekukotasuna eguneroko bizitzan. Hau da, eguneroko bizitza horretan euskara behar dugula eta eguneroko bizitza horretan euskara txertatzeko, edozein erregistroan erabiltzeko gauza garela. Horretarako, bi osagai behar ditugu: alde batetik, euskarrari estatus bat bermatzea (euskarra bera tresna izatea edonon); eta bestetik, euskara gaitzea, doitzea oso gutxitan sarrera izan dituen erregistro horietan. Naturaltasun eta egunerokotasun hori lortzeko bidean euskaldun zaharrak ala berriak izan erlatiboa da, baldin eta tresna egoki eta indartsu bat baldin badaukagu. Guretzat komunikabide tresna eta indartsu hori euskara da.

Euskararen kalitatea aipatzen da askotan...

Euskararen kalitatea entzuten dudan bakoitzean larritu ez, baina harritu egiten naiz. Ger-

EUSKARA
"Aurreko belaunaldiaren erronka izan da euskararen bizi iraupena eta neurri batean lortu da"

KALITATEA
"Gauzak ekinez egiten dira; egunerokotasunean baliagarria izatean datza kalitatea"

ERRONKA
"Baliabideak, antolakuntza eta egitasmoak behar dira hainbat esparrutara iristeko"

tu-gertutik bizi baldin bazara eremu euskaldun batean, niretzat kalitatea da komunikazio-rako balio duen hori. Gertatzen da badirela komunikazio esparru *formalagoak* eta horiek bereizten jakin behar da. Euskarra baldin badut nire hizkuntza eta erregistro ezberdinan era-biltzeko gauza banaiz, ez naiz kalitate batzen barruan? Gauzak ekinez egiten dira eta eguneroko horretarako baliagarria izatean, komunikazioan dago kalitatea.

Oraindik ere hainbat esparrutan erabilera mugatua da, justizian esaterako. Benetako borondatea falta da?

Nik beste galdera bat egingo dizut: badago hori egiteko egitasmorik? Borondaterik onena egonda ere, baliabideak, antolakuntza, egitasmoa behar dira. Badakigu legediaren aldetik muga batzuk daudela, baina jakin beharko genuke muga horien gainetik eta muga horien zirrikituak erabiliz

aurrera egiten. Nik uste dut bide horretan asko aurreratu dugula: esaterako, legelari euskaldunak ditugu gaur fakultatean eta orain lanean ere euskaraz aritza falta da. Ikuspegii historikoa ere behar dugu, emaitzak ez datozerako egun batetik bestera. Mendetan izan dugun inertziari buelta emateko borondatea eta agente ezberdinaren arteko koordinazioa beharrezkoak dira.

Euskaltzaindia herritarrendik gertu egoteko, teknologia berriak funtsezkoak dira.

Lehentasuneko gaia da guretzat eta horren fruituak luze baino lehen ikusiko dituzue. Dagoeneko Euskara aldizkaria jarri dugu sarean eta horren atzetik etorriko dira beste gauza batzuk. Horretan Euskaltzaindiak egundoko ahaleginak egin behar ditu, urtetako inertziak gainditu eta hizkuntzaren ikuspegitik euskaldun guztieiekin zerbitzua emateko. Zerbitzu publikoaren filosofia egin behar da oinarrian.



zabalik

Juan Martin Elexpuru

Auzuak esistitzen dira

Teruel existe". Bi berba horren barruan etsipen eta hasarre haundixa ezkutatzen zan. Zeresana emon zeban lema horrek orain dala urte batzuk. Guk be antzerakua esan geinke: "auzuak esistitzen dira".

Paraje gutxi izango da Euskal Herriko Debagoienak beste auzo eta auzoune dabentz. Eskoriatzan, azkenaldiko haueskundeetan, Elizateak izeneko kandidatura bat aurkezten da eta konzejalak lortzen ditu; auzuei bestela atentziñorik emoten ez jakuen señaile.

Gipuzkoa gehixenian oso differentia da egoeria: Abaltzisketa, Albizturi, Altza, Altzaga, Altzo, Arama... edo Zerain. Goiherri eta Tolosaldeko herrixak dira. Osintxu, Angiozar edo Uberaren tamaiñukuak, batzuk txikixaguak.

Herrixak, bere udal eta guzti. Eta igarri egiten da. Inbirixia sentitzen da ezagutzen ditzunian. Ikusten da ondo gobernauta darela, etxe barrixak egin dira kaskoan bertako jentia bertan geratu dedin, frontoia, herriko ostatua, eskolia, plazia..., dana txukun. Gustua emoten da.

Hemen berriz, onenera jota, kontzejala ez dan auzo-alkate bat, bi hillabetian behin-edo "auzueta" zinegotzia"kin biltzen dana, borondate onena jarri arren, ezer gutxi egin leikena. Eta auzuak oso abandonauta. Gaiñera, dirudinez, lege berrixekin gero eta traba gehixago jartzen da auzueta kasko inguruan etxiak, ostatuak eta holakuak egiteko. A, eta beste gauza bat: arriskuko kirola gustatzen bajatzu, ahalegindu Bergarako Angiozarrera edo Uberara oinez joaten. Noizko bidegorriak eta oinbidiak?

Haize berrixa ailegau da udaletxeetara. Pentsatzekua da auzuei beste tratu bat emongo jakuela hemendik aurrera.

Bestela, igual, independentzia hotsak entzungo dira berriz be denporiakin.

"Paraje gutxi izango da Euskal Herriko Debagoienak beste auzo eta auzune dabentz"

"Pentsatzekua da auzuei beste tratu bat emongo jakuela hemendik aurrera"

Goienkaria

Argiratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Esteban Plazaola **Zuzendaria** nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailketak arduradunak** Ubane Madera (Herrrik), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Oiseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altupe, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aitzane Irizar, Miren Biteri **Oinarriko disneina** Goi Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Bereizbar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarin, Ane Bereizbar, Marielu Unamuno.

EGOTZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93

Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZALEAK



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oficiako
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

herritarak galdezka

SANFERMINETARA JOATEKO AUTOBUSAK

Eskoriatzar batek jakin nahi du ea Iruñera sanferminetara joateko autobus zerbitzu berezirik jarri duen Pesak. Erantzunaren bila Pesara jo dugu eta ondorengoa erantzun digute.

Bada, bai. Zerbitzu bereziak jarri ditu sanferminetara joateko Pesa autobus konpaina. Uztailaren 6an, 7an, 13an eta 14an egongo dira zerbitzu berezi horiek eta Debagoieneko lau herritatis abiatuko dira.

Eskoriatzatik, 18:00etan abiatuko da autobusa –estanko ondotik– eta prezioa 7,60 euro da. Aretxabaletatik, 18:05ean abiatuko da –Azbe ondotik– eta prezioa da 7,40 euro. Arrasatetik 18:30ean abiatuko da –Garibaitik– eta prezioa 7,40 euro da, eta, Bergarakitik, 18:30ean abiatuko da –Ibargarai-ko geltokitik– eta prezioa 7,40 euro da.

Era berean, esandako egunean Eibartik Iruñera egingo duen zerbitzu berezia ere egongo da. Autobus horrek Bergaran –18:30ean– eta Antzuolan –18:40ean– egingo du geldialdia.

Bestalde, uztailaren 8an ere

Iruñetik bueltatzeko zerbitzu berezia egongo da. 08:30ean hasi eta 11:00etara, eserleku guztiak bete ahala, etengabe irtengo dira autobusak. Eibarrerainoko linea ibilbidea egingo dute. Linea horrek Bergaran du geldialdia; hortaz, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzara joan nahi duten erabiltzaileek Bergarako gelotik hartu beharko dute konbinazioa.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu

zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxe: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

BERGARAKO BAINUETXE BERRIRAKO SARRERA

Bergarar batek galdetu du ea Agorrosin ekintzagunean estreinatu berri duten bainuetxerako sarre-bonurik badagoen.

Agorrosinen galdetu dugu eta han esan digute ez dagoela bonurik. Bi aukera daude bainuetxea erabiltzeko: batetik, ekintzaguneko baziakide eginda. Hala, hileko 18 euro ordainduta, bainuetxea erabiltzeko aukera izateaz gain, igerilekua, gimnasioa eta berdegunea erabili ahalko ditu onuradunak.

Beste modua da eguneko txartela erostea. Bainuetxerako sarre-rak 3,70 euro balio du 18 urtetik gorako pertsonendako.

Bainuetxeak ditu: hiru sauna –lehorra, hezea eta hotza–, ur putzu beroa –jacuzzi erremua, ur txorrotak eta burbuilazko hiru atseden ohe– eta ur putzu hotza. Bestalde, sauna-tik putzuetarako bidean presio askotariko ur dutxak daude.

Bainuetxearen ibilbideak ordubete inguru irauten du eta aparailu edo gune bakoitzaren era-bilpen eta onurak azalduta daude.

marrazkiz

Unai Busturia



Mezua: frai Kaxiano lizartzako

Pello Zabala
www.berria.info/blogak/pellobzabala

Lizartzako genuen frai Kaxiano. Goierri eta beterrialdeak ezaguna izan zuen Arantzazuko fraile gizenak umorez potolotu hura. Makinabat algarra eragindakoa baserri eta etxe askotan eskean irrifartsu sartzeanen: kafe berriaren zale

amorratua ere bai, baze gure lizartzarra..

Kaxianorekin akordatu baikara fraileok eta irudikatu haren murmur eta marmar murmuriantek, herria halako paraderoen utzi dietenean.

- Demokraziaz ariko zaizkigun gero!...
- Demokraziaz ez, -gure ermano baserritarak- demokrazia espainolaz horiek eta ertzaintza lotsatua bidali dienak, denak... (ertzaintza lotsatua eta ertzaintza lotsagarrria deitzen baitie kaputxaz tapatuta doazenei). Euskaldunen artean eta aurpegia tapatuta? Holako ddemokraxiak...!

- Zakurraren putza! – baserriko eskolako besteak...

- Horixe! Ez hadi neka gainera zakurrarena dena esaten. Esan zak laburrago: Z...P... Horixe hauen ekarrria: ZP ddemokraxiia!!!

Dena ostu dizuegu

Onintza Enbeita
www.matraka.info/blogak/onintza

Kasualitatez ezagutu ditut. Baina izugarri gustura nengoen haietan. Txileta-

plazara

Geroago eta gehiago dira ume txikiak -0 eta 3 urte bitartekoak - igezilekura eroaten dituztenak. Adituen esanetan, oso onuragarria da

ura adin horretako umeendako, eta, hain justu, onura horien gainean jardun du Nagore Iñurrategik lerrootan. Umeengan ez ezik,

umeen eta gurasoentzako garapen afektiboan ere eragiten du: uretan harreman estua sortzen da gurasoentzako garapen eta haurraren artean.


Nagore Iñurrategi *

Txikienak ere uretarak

Uretan ibiltzea berezia da, sentimendu desberdinak sortzen duen ingurunea ere badela esan daiteke. Orokorrrean batzuei poza eta lasaitasuna datorkie burura, beste batzuei aldiz, beldurra eta urduritasuna. Egia da, kontrolatu beharreko ingurunea dela ura bera, eta kontrolatu ezean larritasun bat edo beste pasatzeko arriskua ere badagoela, baina, egia da ere, kontrola geureganatzea ez dela asko kostatzen eta behin lortu dugunean uretan ibiltzea oso erraza dela.

Beldurra izan daiteke uretan aritzeko egon daitekeen etsaikrik gogorrena. Lasaitasuna eta uretan arrakasta izatea nahiko lotuta daude.

Hori izan daiteke haurrak txiki-txikitik uretarra oihitzeko arrazoi garrantzitsua bat. Ura ingurunea seguru eta ezagun bat izatea lortu behar da, honek emango baitio aukera haurrari urak dituen alderdi positiboak aprobetxatzeko. Eta zeintzuk dira alderdi positibo horiek? Mugitzeko modu desberdinak aurkikuntza, mugimendu askeak izateko aukera, desplazamenduak lantzeko aukera, distanziak neurtzeko aukera, bihotz eta birikien indartzea, immunologi sistema sendotzea, uretarra doan heldu eta haurraren arteko harreman afektiboa sendotzea, eta lasaitzen laguntzea. Zerrenda luzatu daiteke, baina hauek izan daitezke ur ekintzetan parte hartzeak dakartzan onura espezifikoak. Kontutan izaten badugu haurraren garapenean ezin ditugula gorputza, kognizioa eta harremanak



MIKEL ARROIABE

bereiztu urak mugimenaren garapenean dituen onurek eragina izango dute haurraren garapen osoan, ondorioz bere adimenean ere eragina izango du eta baita bere nortasunena ere. Beste alde batetik egia da ere, arazo batzuk sortzen dituela haur txikiak ur ekintzetara eramateak, besteak beste, hozteko arriskua eta azal arazoak. Hala ere, kontu pixka bat izanik arazo honek ez dira larriak izaten.

Aipatutako ondorio positibo guztiak baina baldintza batzuek betetzen badira emango dira. Uraren eragin positiboak benetan positiboak izateko behar-beharrezko dela haurra uretan erosu sentitza. Jakin badakigu

"Ura ingurune seguru eta ezagun bat izatea lortu behar da, horrek emango baitio haurrari urak dituen onurak aprobetxatzeko aukera"

"Uretan, helduaren eta haurraren artean oso harreman estua sortzen da"

edozein pertsonak egoera bati aprobetxamendua aterako diola baldin eta egoera hori erosoa eta segurua baldin bada: erosotasuna oinarritzko beharrak aseta ditugunean lortuko dugu eta segurtasuna inguruan segurtasun hori sumatzen dugunean. Azken puntu honetan berebiziko garrantzia hartuko dute gurasoek (heldu erreferenteak). Haurra ez da inozoa eta inguruan beldurra sentitzen dutela konturatzeko bida, berak ere beldurra sentitzeko joera izango du nahiz eta ez jakin zer den gertuko dena. Berdin gertatuko da beste edozein sentimendurekin, baina beldurra agertzea oso ohiakoa izaten da eta ez da batere posiboa izaten.

Helduaren jarrera urarekiko oso garrantzitsua da honek haurra seguru sentiarazteaz gain lotura afektiboan pisu handia bereganatzen baitu eta garapen afektiboan positiboki eragingo baitio. Ur ekintzak harreman honetan onura handiak ekartzen ditu. Izan ere, oso harreman estua sortzen da heldu eta haurraren artean eta honek haurrari onurak besterik ez dizkio ekartzen.

Gogoratu: haurra gustura sentitu behar da eta hori da helduak bermatu behar duena. Uretan egin nahi dugula eta lortzen dugula? Ba primeran! Izan ere, haurra gustura egoteaz gain bere garapen osoan oso eragin positiboa duen ekintza egiten arituko baikara.

*Nagore Iñurrategi, igerilekuko hezitzailea

zer deritzozu?

www.goiena.net

Nahiko zenuke herriko jaiak bi asteburutan?

BAI	%66,6
EZ	%33,3

> ONDO

Bergarakoa naiz eta Aretxabaletan egiten dut lan. Eta lanean ezin izaten dudanez jai eskatu, herriko jaiak oso gutxi aprobetxatu ahal izaten ditut. Hortaz, aste barruan barik bi aste bukaeratan egingo balira, hobeto aprobetxatu ahal izango nituzke.

Ainara

> EZ

Dauden bezala ondo daudela uste dut. Zertarako bi aste bukaera? Beti egin izan ditugu lau edo bost egun jarraian eta erditik apurtzea ez dut batere ondo ikusten; ez litzateke berdinana izango.

Aitor

> PROBATUKO NUKE

Eingo nuke proba. Seguru, gaur egun baino jende gehiago ibiliko litzatekeela kalean. Bergaran, behintzat, jendeak aprobetxatzzen du Saloura joateko. Jaiak, aldiz, bi asteburutan izanez gero, ez lukete aukera hori izango.

Miren

DATORREN ASTEKOAK: Hondartzak garbi daudela iruditzen zaizu?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

koplak

Julen Iriondo

Azoreetako borraskaren ondorena

Antizikloak eduki arren oraino fama gehiena honako hau da Azore(e)tako borraskaren ondorena.

Nahiz ta haseran hiru aurpegi ilun besterik ez zian orain gerra eta heriotza ikusten da argazkian.

Aznar, Bush ta Blair agertu ziren mundu seguruan alde eta seguru munduak egin die eskutatik alde.

Ase ezina delako euren aberastasun gosea mundu osora zabaldu dute gerra eta oinazea.

Nahiz gupidarik gabe milaka herritar dituzten hilak oraindik eurek esaten dute nortzuk diren terroristak.

Yemengo bonba haren ardura omen dauka Al-Qaeda baina Azoretakoak dira egile intelektualak.

- top

rak dira biak. 40 urte inguruko gizon bi.

Dena ondo joan da. Bazkalten egon gara, eta elkarrikzeta interesarria izan dugu. Batek esan duen arte: "Nola liteke herrialde batzuentzat gauzak hain merkeak izatea, eta besteentzat hain garestiak? Nola liteke munduan halako desberdintasunak izatea?". Ezin izan diot eutsi eta erantzun egin diot, "zuei lapurtutakoarekin itzel bizi garelako. Hegoamerikan ostu genuen, Afrikan ostu dugu, Indian...".

(...) Mapan zentimetro bat gorago edo beherago jaiotzeak gauzak asko aldatzen ditu.

Eta kasu horretan, jaio garen lekuaren jaiotza izanaren pribilegioa izatez gain, errua ere badaukagu. Ez guk zuzenean, akaso, baina ez ditugu gehiegiz aldatu gure jokabideak, bizi modua...

Internet eta heriotza

Oier Guillan
www.berria.info/blogak/oier/

Hiltzen den pertsona bakoitzeko webgune bat egon behar litzateke,

Internet hiltzen diren guztien artxibategi erraldoia izan behar luke, eta ez soilik hildako ospetsuena, hildako politikoena, hildako morbosonena... guztienetan baizik, doakoa, gizakiok horren hankamotz dugun memoriari astindu bat eman horren bidez, memorimotzak gu. Morbotik ihesi beti, pertsona bakoitzaren gogoetak, aipuak, betetako ametsak, bete gabekoak, jasoko dituen gunea.

Amets bat hau ere, beste utopia bat, heriotzari guda irabazi ez baina borrokaren bat behintzat irabazi nahi diona-ren desioa.

Hamaika ikusteko jaioak...

Lander Martinez
Arrasate

Lotsagarri eta barregarri geratzen dabil egunotan Reala. Esperpentoa sekulakoa da. Tristea da, baina hala da. Bigarren mailara jaistea gogorra izan da, baina larriagoa ondoren eterri dena. Begira: zuzendaritza batzordeko hainbat kidek ihes egin dute (Fuentes presidenteak, Zamora kiroleko ardurak zeuzkanak, diru kontuez arduratzentz zirenak...); bota dute Etxarri, Zubietako arduraduna; joan da entrenatzalea, Lotina, eta harekin Ribera (hau ere gogorra da gero e, bakarrik eterri zen bizkaitarra, baina joan da klubeko entrenatzale bat eroanda, mailari eutsi ez eta are eta kalte handiagoa eginez...).

Eta egoerari buelta emateko zer eta Toshack ekarri nahi izan dute. *Toshack Handia*. Zein eta Realean orain dela 20 urte lan bikaina egin zuena, baina itzuli den beste bi aldietañ porrot egin eta atzeko atetik atera behar izan duena. Ahaztu egin zaie hori Realeko agintariei? Ala Gipuzkoan gehien irakurtzen den periodikoan idazten dituen *bataila-txoekin* liluratura jarraitzen dute?

Galestarrak, baina, ezin Realera eterri, edo nahi ez, eta kirol kontuetarako aholkulari jarri dute, Iriarte ipiniz haren ordez kirol zuzendaritzan; eta, ez hori bakarrik: JBk beste galestar bat ekarri du entrenatzalea izateko, bere laguna berau, Espainiako ligetan esperientziarik ez dauduna. Txotxongiloak bailira, harrietatik tira dezan... Horrela berriztatu behar dute kluba? Horrela zulotik ateratzen? Nor engainatu nahi dute?

Hau da Denon Errealak? Putxa! Esandako bat bera ere ez dute egin: gardentasuna, betiko balioak, harrobia indartu, diru zorrak kitatu... Kaka zaharra!

Realeko zuzendaritzak Gipuzkoan gehien saltzen den periodikoaren presioen aurrean men egin eta denak pozik. Denak? Bai, zera! Realeko zale, akziodun eta baziak zentzudun eta kritikoak pozik ez; haserre bizian, ikuskizun negargarriarekin. Hamaika ikusteko jaioak gara!

Elkar ulertze baten eredu

Joxerra Landa
(Malen Errastiren bikotekidea)
Arrasate

Asko hitz egiten dugu azken urteotan elkarritzetaz, bestearekiko begiruneaz, adostasunaz eta antzerako

gauzez. Batzuetan intentzio eta borondate onarekin, besteetan faltsukeria izugarrizkin. Kasu gehienetan bestearen postura gureganaten edo gurea isilean uztea, edo berba baxu egitea edo diskusio beroen ordez sermoi aspergarriak egitea ematen da positibotzat. Norberaren moduan pentsatzen duenarekin errazagoa da "ondo eramatea" eta ez beti.

Malenek eta Garratzek urteetan eduki duten harremana guztiz diferentea izan da. Gehienok egiten ez dakiguna lortu dute. Postura ezberdinetan oinarrituta, eztabaida gogorrak edukita, lagun egin dira. Bat-etortze aspergarritik distentsio bero eta leial batera alde eginez. Bata ETAKo militante damatu gabekoa izanez eta bestea, borroka armatuak gaur eta hemen zentzurik ez zuela pentsatzen zuen feministak ez abertzalea. Bainan errespetuz eta maitasunez.

Aupa, maitia!

Jesus Mari Zabarte 'Garratz'
Huelvako espetaea

Zer esan? Nola hasi? Nun bukatu? Bukatu sekulan bez! Hor dihoaz nere burutazioak. Bihotzean minez pentsatu diñat lau hitz idatziz bidaltzie. Hau bai dela hau injustizia! Hiru gaitzaz horrela jakittie. Horrela da bizia. Bai hirie

edo nerrie, zentzuak agintzen duena egittie. Behar izan duen guztiari laguntza emanez egin dun hire bidie. Ez haiz ama izan baina bai injustizia guztiak borrokatzeko andrie. Haiz borroka, elkartasun eta duntasunez beteriko emakumie.

Orain zailtxoago egingo zaigun herri, mundu berdinagoagatik borrokatzie. Horren eta gehiagotik maite haut, maite haute Malen iraultzai-

Hau ez dun alegria, ederra bez! Bainan bai bihotzez egiña eta nere egie.

Honekin adierazi nahi diñat geratzen nazela hire oroimenez bete-betie.

Emango diten nire besarkada eta nire garraxia esanez haizela maittie.

Beno laztana: berrizz elkartu arte Marraketxen, Arrasaten... edoizar hauts bihurtzen.

Bihotzez. *Garratz*.

Igerilekuetako berdegunea

Iñaki Arantzabal
Bergara

Zabaldu dute Agorrosingo igerileku kanpoaldeko berdegunea. Egia esan, ez du eguraldi oso onik egin eguzkitan jartzeko, baina...

Ondo dago igerileku kanpoaldean eguzkia hartzeko toki bat egotea, baina zerbitzu gehiago ematea ere ez legoke txarto. Uste dut pobre samarra dela. Sekulako belardia gutxitako. Hortaz, zera eskatuko nuke: arbola batzuk landatu ditzatela, gerizpea egon dadin; jarleku batzuk ipin ditzatela; umeendako jolastoki batzuk: txirristak, ziburuak... Eta, importanteena: kanpoaldean igerileku fundamentuzkorik ipini behar ez badute ere, txikiendako putzu edo igerileku txiki bat ondo legoke.

ZUZENKETA

Zinegotzia Aramaion

Aramaiori dagozkion albistearen atalean argitaratu genuen ekainaren 22ko GOIENKARIAn, Andres Osinaga EAJko zinegotzia dela Aramaion. Bada, horiez da zuzena, Osinaga EAko zinegotzia da-eta. Barkatu eragopenerak.

GOIENKARIA

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batez bideratzen beharko dira datu hauetak: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 01

Faxa:
943 25 05 13

Posta elektronikoa:
goinkaria@goiena.com

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emailta onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

www.goiena.net/blogak

/aebp
/aiastui
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-
asegurauak
/BZ-sistemas

/bolusukaldeak
/dragon-oriental
/dukienna
/ego
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak
azabarte@goiena.com
943 76 92 70

/garaia
/gertu
/gorkatxi
/gurea
/guztizeder
/hamaiaka
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/jacing
/joseba

/lamaino-etxeberri
/lorelan
/korozabaleta
/markieg
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multioptic
/ohiak
/ogizun
/okipark

/otzeta
/pando
/richimaier
/tabernaberri
/udaialitz
/urdeki
/urbietza
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net



GAZTEKUTXA TXARTEL BERRIA. LEHEN TXARTEL BERTIKALA, ETA SEGURTASUN-TXIPAZ HORNITU.

TXIPA ALDATU



Zure beharrak aldatzen dira, zure bizitza ere aldatuz doa...eta orain, baita **zure Gaztekutxa Txartela** ere. **Formatuz aldatua eta segurtasun-txipaz** hornitua datorren txartel berria da, zure eragiketa guztiak segurtasun osoz egin ditzazun.

Baina bada gehiago ere, **MasterCard txartela denez, zure erosketak internet bidez egin eta Gaztekutxak eskaintzen dizkizun abantaila guztiez** gozatzeko aukera izango duzu: deskontuak saltokietan, zineetan, kontzertuetan...

Oraindik ez daukazula? **Zatoz, bada, kutxako zure bulegora** eta eska ezazu gaur bertan. Zure poltsikoak eskertuko ditzu.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa



Karaoke Ikuskizuna

Urritik aurrera Debagoienean!

162 taldek (571 gaztetxoek) eman dute izena Kantarin esku hartzeko!
www.goiena.net/blogak/kantari

Zur eta lur gelditu gara Kantarik izan duen harrera onarekin! Eskerrik asko animatu zareten guztoio!


Hasiera baten parte hartaileen artean zozketa egiteko asmoa genuen, baina azkenean erabaki dugu guztiei ikuskizunetan esku hartzeko bidea ematea.

Horrek ahalegin berezia eskatuko du, baina merezi duela uste dugu.

Laster jarriko gara talde bakoitzarekin harremanetan, kantuak banatzeko.

Gogoratu, ikuskizunak Debagoieneko aretoetan izango direla eta emanaldi guztiak GOITBn emango direla.

BABESLEA



gaztetxoen
elkartea
club juvenil

ANTOLATZAILEA



Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Elgeta > 37 Leintz Gatzaga > 38 Aramaio > 39-41



> ARRASATE
Pobreziaren kontra, jaia eta aldarrikapenak, bihar, zapatua > 19



> BERGARA
XIX. mendeko bi txanpon agertu dira San Martzialen > 24



> ANTZUOLA
Iragarri bezala, alkatearen soldata jaitsi du EAE-ANVk > 36



> GATZAGA
Izendatu dituzte datozen lau urteotarako batzordeburuak > 39

OÑATI > DANTZAK

Oñatz dantza taldeko 38 lagun doaz Idahora (AEB), San Inazio jaietara

ASTEBETE

Uztailaren 25ean aterako dira eta abuztuaren 3an etorri

26 URTE

Boisen 26 urte daramatza hango dantza taldeak Oñatiko dantzak egiten

UBANE MADERA > OÑATI

Oñatiko Oñatz dantza taldeko 30 dantzari (15 neska eta 15 mutil), lau txistulari eta bi trikitilari pare Idahora (AEB) doaz uztailaren 25etik abuztuaren 3ra arte; hain justu, Idahoko hiriburu Boisera.

Han egingo duten denboran hiru dantza saio egingo dituzte, asteburuan ospatuko dituzten San Inazio jaien barruan. "Hiru jardunaldi egitea eta eurekin San Inazio jaiak pasatzea da helburua", kontatu du Oñatzeko arduradun Jesus Irizar Txutxin-ek.

PIC-NIC ETA GUZTI

Egitarrau zehatzik ez dute oñatiarrek, baina gutxi gorabeherakoak badakite: "Boiseko Euskal Etxean txosna moduko batzuk ipiniko dituzte dirua ateratzeko eta erromeriak ere izango dira. Gero, zaptauan egingo dute dantza elizan eta katedralean eta gaelean, erromeria. Eta domekan, egoten da picnic moduko bat. Familia osoak elkartzen dira kanpoan, eta gero jokoak-eta egiten dituzte".

DANTZA BEREZIAK

Oñatz dantza taldeari dagokionez, eurek egingo dutena ere aurreratu du Irizarrek: "Bizpahiru jaialdi desberdin egingo ditugu. Oñatiko dantzak eta Bizkaikoak izango dira oinarri, baina Gipuzkoako eta Nafarroakoak tartekatuta". Batzuk aipatzearen: San Miguel Banako eta Arku Dantza (Oñati); Bizkaiko Dantzari Dantza, Kaxarranka; Gipuzkoako Iztueta Zikloa eta Luzaide eta Zuberoako dantzak egingo dituzte.



OÑATZ Oñatiko dantza taldeko mutilak, herrian dantza saioa egiten.

OÑATZ

Eta Oñatitik propio eraman-dako oparitxoa ere emango diete diasporako euskalduniei: "Eraman behar ditugu Jauregialto zeramis-taren eskultura batzuk".

ZER DELA-ETA, IDAHORA

Txutxin-ek kontatu du nondik nora antolatu duten bidaia: "Haudator aspalditik, orain 28 bat urtetik. Hemen amerikarrak izan zirenetik; 45 bat lagun etorri ziren, hango programa baten bitartez euskara ikastera. Eta Oñatiko alkateari galduen zioten ea posible zen Ameriketan Oñatiko dantzak egitea. Harrezkerro, 26 urte daramatzate Oñatiko dantzak egiten. Iaz, berriz, neu izan nintzen gonbidatuta; dantzan-eta zela dabiltsan ikusten izan nintzen eta zenbait zuzenketa egiten. Aurten gura zuten gu joatea, besteak beste, jantziekin aldaketa batzuk egin ditugulako; eta bien bitartean, lehenengo aldiz Oñatiko dantzak oñatiarrek egingo dituzte Ameriketan".

OINKARI ETA OÑATI

Oñatiko dantzak egiten dituen Boiseko dantza talde hori Oinkari deitzen da. Dena den, beste bat

ere bada han, aipatzeko moduko: "Oñati du izena. 10 bat lagun dira eta urtero Oñatiko dantzak bakarrik egiten dituzte. Oinkarikoak ibiltzen dira eurei laguntzen, norbait falta badute-edo..."

Oñatirekiko zaletasun hori amerikarren artean zela piztu zen ere kontatu du Oñatzeko ardurdunak: "Taldeko bik edo hiruk ikusi zuten interesgarria zela.

Kontua da han ere prozesio moduko bat egiten dutela, San Inazio aterata; dantza egiten dute katedral aurrean eta elizan ere bai. Hori guztia gordetzea, akats batzuekin; orain bideratu egingo ditugu".

"Oñatiko dantzak hemen ikastea gainera, Oñatiko bi han bizi izan ziren (orain 10-15 urte) eta eurek lagundu diente dantzak gordetzen", gaineratu du.

HARREMANA, INDARTSU

Badira hamar urte-edo ez direla Oñatira etorri Idahokoak. "Programa baten barruan etortzen ziren, Patt Bitterren zuzendari-tzapean. Hura eta Jon Oñatibia izan ziren ekimenaren lehen antolatzaileak". Beraz, badirudi programa hori bukatu egin dela. Hala eta guztiz, ikusten den moduan, oñatiarren eta boistarraren arteko harremana bizi-bizi mantentzea lortu dute: "Harremana beti izan dugu. Adibidez, bost urtean behin, Jaialdi izeneko ospakizun bat egiten dute Idaho-ko Euskal Etxe guztiek. Lehiaketa moduan, talde bat aukeratzen dute, hara joateko. 2005ean, gu bigarren geratu ginen. Hala, kontua zen 2010ean berriro ere aurkeztu edo orain joan. Eta gura izan dugu orain aprobetxatzea". Horrez gain, fisikoki ere harremana zaindu dute urteotan: "Semea ere egon da han. Hango jendea sarri etorri da hona (oñatiarrekin ezkondua ere badaude batzuk). Bestalde, Oinkarikoak Añorgan (orain lau urte) eta Galdakaon (iaz) egon zirenean ere etorri ziren Oñatiara. Eta harreman pertsonalak ere sortu dira. Oñatiko batzuk han bizi dira, adibidez".

Esaldi borobil batekin bukatu du Txutxin-ek kontakizuna: "Gauza printzipalena da Oñatiko dantzak mantentzea. Eta 26 urtean mantendu baldin baditzte, bada, segi dezatela!".

Oñatiko dantzak eta Euskal Herriko leku askotakoak

Oñatiko dantzak egiteaz gain, Euskal Herriko bestelako lekueta-koak ere egiten dituzte Oinkarikoek, eta badirudi, gainera, indartsu eutsiko diotela aurrera begira ere: "Piloa dakite. Egon dira Añorgan eta Galdakaon ere bai. Egiten dituzte Euskal Herriko dantz piloa. Gainera, dantzari kopuru nahiko handia dute (70 bat lagun) eta Boiseko Euskal Etxean aktibitate handia izaten dute, bai dantzan eta baita trikitiarekin ere".



Euskal jaialdietan jantzi tradizionalekin ateratzen dira; argazkian, iazkoa.

OÑATZ

zerbitzuak**GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapatua, 7	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Domeka, 8	Español	Araba etorbidea 14	943 79 18 65
Astelehen, 9	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09
Martitzena, 10	Etxeberria	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Eguaztena, 11	Azkoaga	Ferrerrietas 1	943 79 15 15
Eguena, 12	Azkoaga	Iturriozt 17	943 79 79 99
Egubakoitz, 13	Corcueria	Maisu Aranbarri 1	943 79 22 26

BERGARA

Zapatua, 7	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 8	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehen, 9	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Martitzena, 10	Urritikoetxea	Oixondo 4	943 76 11 74
Eguaztena, 11	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Eguena, 12	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Egubakoitz, 13	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63

ONATI

Zapatua, 7	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Domeka, 8	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Astelehen, 9	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Astelehen, 10	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguaztena, 11	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 12	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Egubakoitz, 13	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58

ARETXABAleta

Zapatua, 7	Iturrealde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Domeka, 8	Iturrealde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Astelehen, 9	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 10	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 11	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 12	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitz, 13	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK**((112))
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 03 54 30
Udalzainoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

GARRAIoAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramai.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Onati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hildegaitz (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritzan garbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Onati.....	943 78 36 67
Kiroldegiaj	
Aramai.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Onati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramai.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramai.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

URBANOAK**ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterri, Legarre, Musakola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.	
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obregón, Oberenreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.	
Gorostizatik Eroskira (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguín A eta Gorostiza.	

ARAMAIOKO AUTOBUSAK

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
07:50	08:05	
08:30	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:	

kale inuesta

Airearen kutsadura neurten dabilta herrian; zer deritzozu?



Idoia Elexpuru
Langilea
Aretxabaleta



Pako Porcel
Langilea
Aretxabaleta



Sonia Herran
Langilea
Aretxabaleta



Iratxe Arbulo
Langilea
Aretxabaleta



Fernando Zubillaga
Erretiratua
Aretxabaleta

Neurtzea ondo dago, baina ez dakit gero egia osoa jakingo dugun. Denok dakigu izugarrizko kutsadura dagoela, eta eskubidea dugu zer dagoen jakiteko; baina jakinda ere, zer? Ezer gutxi egingo dute.


Ondo deritzot; seguru asko, gainera, kutsadura izango dugu gure herrian. Ondo legoke neurketa egin eta datuak aztertu ostean kutsadura jaisteko behar bezalako neurriak hartzea.

Ideia ona da, baina gero ez dute benetako emaitzarik ematen. Markolen bizi naiz eta izugarrizko kutsadura daukagu, ni eta umea beti gabiltza eztarriko minez. Neurketaren ostean neurriak har ditzatela.

Oso ondo, eta seguru nago kutsadura maila altua daukagula herrian. Autoan igartzen dut nik, oso zikin egoten da. Neurtzea ondo dago, baina gero zerbaitegina dezatela eskatuko nuke.

Zer daukagun airean jaki-teko balioko du neurketak, baina neure zalan-tzak ditut ze emaitza emango duen. Semea Markolen bizi da, eta bizilagunak kutsadura dela-eta asko kexatzen direla dio.

txaloak eta txistuak



Labegaraietako zubia konpondu dute



Bergarako Labegaraietako zubia berritu dute. Aspaldiko eskaera zen zubi hori gehiago babes-tea, umeak errekkara erortzeko arrisku handia zegoelako. Egunotan konpondudute. Hala ere, zubi hasiera ez dutela behar bezala konpondu salatu du irakurle batek.

O.E.

asteko datua

162

Horixe da Goiena antolatzen ari den *Kantari* saiorako aurkezta den talde kopurua. Ikuskizunak urri aldera hasiko dira. Hain zuzen ere, 8 eta 12 urte bitarteko haur debagoiendarrek parte hartuko dute Debagoieneko herrietatik igaroko den saio berri horretan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

5 galdera...

Ainhoa Alberdi

Pintura tailerreko irakaslea
Bergara

1. Umeendako pintura taillerria ematen duzu hil honetan. Zertan ematen dute haurrek denbora?

Hiru zatitan banatuta dago. Lehenengo astean marrazketa lantuko dute eta bigarrenean hasiko dira pinturako nahasketak egiten. Bukatzeko, azken bi asteetan koadro bat egingo dute.

2. Zer-nolako teknikak erabiliko dituzte taillerretan?

Koadroa egiterakoan, txikienek temperak erabiliko dituzte. Garbitzeko askoz hobeak dira, eta, gainera, askoz gusturago ibiltzen dira tenperekin. Nagusiak eta denbora daramatenek, bestalde, olioa erabiliko dute. Marrazketan arkatzarekin mar-gotuko dute, normalak eta kolo-retakoak.

3. Bakoitza gura duen gaia aukeratzen du ala aurreikusita dago?

Batzuetan, gura dutena egiten uzten diegu, baina gehiene-tan, aurretik aukeratuta daude gaiak. Natura hilak askotan mar-gotzen ditugu, baita lauki-sare baten bidez egindako marrazkiak ere. Kanpora ere irteten gara noizean behin, elementu errealak margo ditzaten.

4. Ez da lehen aldia umeendako pintura taillerak antolatzen dituzueña uda partean...

Hala da. 2004. urteko uztailean hasi ginen udako tailerra ematen. Ume askok errepikatu egin dute ordutik hona. Gero eta haur gehiago ditugu. 6 urtetik gora eta 14 urte bitarteko umeak hartzen ditugu. Aurten, 33 haur ditugu, 8 eta 9 urtekoak gehienak.

5. Udakoaz gainera, urtean zehar ere eskolak ematen dituzue...

Bai. 2003. urtea ezkerro umeendako pintura tailerrak ditugu zapatu-tuetan. Hiru ordukoak dira horiek. Horrez gain, datorren ikasturte-tik aurrera, astegunetan ere ema-tea pentsatzen ari gara. Helduen-dako ikastaroak ere ematen dira eraikin berean, baina beste irakas-le batek ematen du.



AUZOAK > URIBARRI

Uribarrikoen kezka, auzoko hilerri eta errotarengatik

Kanposantu zaharra errespetatu eta urbanizazio obretatik kanto uzteko eskatu diote Udalari

Barrenatxo antzinako errota dela-eta, hura konpondu eta manten dezatela gura dute

UBANE MADERA > ARRASATE

Uribarriko auzotarrak kezkatuta dabilta auzoko kanposantuaren eta Uribarrin duten antzinako errota baten etorkizunarengatik. Hala azaldu du auzokojarduneko alkate Jone Bergaretxek.

Are gehiago, hark jakinari zu bi gaiokin lotutako eskaerak aurkezu dizkiotela Arrasateko Udalari.

KANPOSANTUAREN GINEAN

Auzoko kanposantu dela-eta, beldur dira auzotarrak lursail hura auzoan eraikitzen dabiltsan etxe berriendako aparkaleku egiteko edo bestelako urbanizazio asmoren baterako ez ote duten erabiliko etorkizunean. "Printzipioz aparkalekua egingo dute goiko zatian, baina beheneko zatia (kanposantu) gaur eguna lurzoru publikoa. Hortaz, beharra balego, Udalak hura erabiltzeko eskubidea luke", jakinarazi du auzo alkateak.

Bergaretxek gaineratu du auzotarrek gura dutena dela kanposantu edozein urbanizazio asmotatik kanto uztea, eurendako duen balioarengatik: "Badira urte batzuk ez dela gorpurik ehorzten Uribarriko kanposantuau, baina oraindik bertan daude lurperatuta auzoko baserri askotako senitartekoak. Hori dela eta, kezka handia sortu zen kanposantuau senideren bat lurpe-

ratuta zeukan auzotarren artean". Udaleko Hirigintza Sailean aurkezu duten idatzian gaineratu dute "auzotar askorentzat kanposantuak oso esanahi sakratua eta sakona" daukala, "lur eremu santua" dela, eta "bedeinkatuta" dagoela. "Auzotar asko bizi dira sinesmen horretan; horregatik, Uraren Ibarreko (Uribarri) Auzo Batzordeak eta Kristau Komunitateak eskatzen diote Arrasateko Udalari aparkalekua kanposantu eremutik atera dezala".

Kanposantuaren balio sentimentalaz gainera, balio historiko ere nabarmendu gura izan du Bergaretxe auzo alkateak: "Badauka, adibidez, horma bat XVIII. mendearren amaiera edo XIX. mendearren hasierakoa. Eta, besteak beste, bataiatzeko ponte bat ere badu, oso antzinakoa, elizatik atera eta kanposantuau ipinita dagoena".

UDALAREN ERANTZUNA

Udalari dagokionez, Hirigintza Sailetik jakinarazi dute jasota dutela uribarritarren eskaera hori eta zer egin "aztertu egin behar" dutela.

BARRENATXO ERROTA

Bestalde, Garagartzara bidean dagoen Barrenatxo errotena egoerak eta etorkizunak ere pitztu du uribarritarren kezka. Oso antzinakoa hura (1.700 urte pasatxoan



KANPOSANTUA Uribarriko kanposantu obraz inguratuta dago orain, inguru urbanizazio lanak direla-eta.

U.M.

dagoeneko bada haren berri) eta Bergaretxek esandakoaren arabera, Udalak hura zaindu egin behar dela onartu zuen, "baina ez dute ezer egin". Eraikinaren egoera penagarri samarra da, argazkiak erakusten duen moduan.

KONPONDU EGIN BEHAR

Udalari dagokionez, konfirmatu egin du eraikina konpontzea jasota dutela. "2006ko maiatzean jaso

zen Ibarretako plan partzialaren barruan eraikin hura mantendu egin behar dela, kontsolidatu. Eta Tokiko Gobernu Batzarra gunet hartako urbanizazio proiektua onartu zuenean (06-12-04) era baki zen Polmetasako pabilioi berria eraikitzen dabilen San Andres Berri promotorearen lana izango dela eraikina berritzea, hirigintza karga moduan", jakinarazi dute Hirigintzatik, "eta

egin beharko dute inguru urbanizazio lanak bukatu baino lehen", gaineratu dute.

URIBARRIREN GINEKO LIBURUA

Uribarri auzoaren ginekoekin bukatzeko, Jone Bergaretxe auzo alkateak jakinarazi du hil honen 25ean Uribarriren gineko liburu argitaratu behar dutela. *Uribarri, auzo baten historia* izenburua ipini diote.

DATU HISTORIKOAK

Barrenatxo errota: historia luzea duen eraikin txikia

Hona hemen Barrenatxoren ginean Uribarriko auzo alkateak emandako informazioa: Urdaixena baserriaren lurrekin muga egiten du Barrenatxo errota. Oroitezina den denboratik, inguru mehatzeetatik garraiatzen zen mineralaren garbilekua zen. Izan ere, Ibarreta-gain baseriaren ingurueta mineralaren fundiziorako erabiliak ziren haizeolak azaldu izan dira. Geroago, Barrenatxo errota bilakatu zen. Ura hartzen zuen Barrenatxo izeneko malatutik. Malatu hura zetorren Urdaixena zubitik (Garagartzako) Barrenatxora eta handik atzera ere Aramaio errekkara egiten zuen. 1.700 urte pasatxoan dagoeneko bada Barrenatxoren berri.

Orain dela bi mende hasieran, berriz, Iramendi baserriko Francisco Otadui Ibarguren erosi zuen eraikina, han okre pintura fabrikatzeko.

Hurrengo, marmol konprimituaren harraska bezala erabili zen, Kobate eta Aramaiorako bidetik ekartzen zuten mineralarendako.

Gerora, zerrategi izan zen eta azkenik ganadu pentsu fabrika. 1920an itxi zuten, pentsu fabrika zela. Edozelan ere, orain dela bost urte ingurura arte,



BARRENATXO Egoera eskasean dago errota orain.

U.M.

errepeideak garbitzen zituztenek euren tresnak gordezko ere erabili izan dute Barrenatxo.

Gaur egun, hondamen egoeran dago, eta oso abandonatuta.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

ELKARTASUNA > ARRASATEKO POBREZIA ZERO PLATAFORMA

Pobreziaren kontra, jaia eta aldarrikapenak tartekatuko dituzte bihar

Pobreziaren gaineko datu batzuk eman ditu Arrasateko Pobrezia Zero Plataformak: "3.000 milioi pertsona munduan gose dira"

UBANE MADERA > ARRASATE

Bihar, uztailaren 7an, munduko gobernu eta estatuburuek Milurteko Garapen Helburuak betetzeko ezarritako epearen erdia beteko da. Helburuotako bat zen munduan gosez bizi diren edo egunean dolar bat baino gutxiagorekin bizi direnen kopurua erdira murritztea. Baino, "orain arteko erritmoarekin jarraituz gero, bakarrik %50 baten lortuko da". Hala jakinarazi du Arrasateko Pobrezia Zero Plataformak.

EGITARAU

Bada, horren harira, eta hori salatzeko, bihar arratsalderako jai errebendikatiboa antolatu du gobernuz kanpoko Arrasateko erakundeak.

Jaia hasiko da 18:00etan. Donostiako La Tribu Batukadaren kalejirarekin. 19:00etan, Kiki, Koko eta Moko pailazoek ekitaldia egingo dute. 20:00etan, berriz, pobreziaren kontrako manifestua irakurriko dute eta bukatzeke, 20:15ean, txikiteoa egingo dute.

Horrekin batera, 18:00etatik 20:00ak bitartean, pobreziaren gainean informatzeko eta sinadurak batzeko standa ipiniko dute, Herriko Plazan.

LEKU GEHIAGOTAN

Arrasateko ekitaldiaz gainera, Pobrezia Zero kanpainaren barruan, munduko 65 hiri baino gehiagotan egingo dituzte ekinmenak. Eta baita gure inguruan ere: Eibar, Irun eta Donostian, esaterako.

DATU BELDURGARRIAK

Bestalde, biharko errebendikazio-ekin lotuta, zenbait datu ere helarazi ditu Pobrezia Zero Plataformak: "Gaur egun, 3.000 milioi pertsona munduan gose dira, eta pobreziaren biktima. Egunero 30.000 haur hiltzen dira munduan saihestu daitezkeen zergatiengatik. Zu beste kontinente batean jaio bazina, euretako bat izan zintezkeen".

Hori horrela, biharko ekitaldian parte hartzeko eta oro har pobreziaren kontra jarduteko gonbidapena egin gura du Pobrezia Zero Plataformak: "Pobreziak eta gosek irauteak munduan XXI. mendean lotsagarria da, gaur egungo aurrerakuntza teknologiko eta zientifiko guztiak kontuan hartuta".

Azpimarratu dute beharrezko dela guztiion partaidetza: "Ezberdintasuna eta pobrezia, injustiziaren ondorio, ezingo direlako kendu guztiion parte-hartze eta konpromiso biziarekin ez bada... Horregatik eskatzen dizugu zure ahotsa goratu dezazun pobreziaren eta injustiziaren aurka, gizadiarentzat larriena den mehatxuarekin amaitzeko".

> PERTSONA NAGUSIAK
**Uztailaren 18an
Bizkaira, Abaroa
erretiratuen elkartetik**

Bizkairako txangoa antolatu dute Abaroa elkartetik uztailaren 18rako. Bermeo, Lekeitio (bazkaria Emperatriz jate-txeen) eta Ondarroa bisitatu-ko dituzte. Txangora joan gura duenak datorren eguztenean eman beharko du izeña, 10:30ean, Abaroan. 22 euro da prezioa.

> ZERBITZUA
Autobusak udako ordutegiek lanean hasi dira

Udalak gogorarazi gura du oraingo asteaz geroztik, autobus zerbitzuetan (herri barrukoak zein herri artekoak) udako ordutegia aplikatu dutela.

Horrek esan gura du zerbitzu gutxiago izango direla.

Informazio gehiago: arrasate-mondragon.org.

ZERBITZUA > HAURRESKOLA ZERBITZUA

Haurreskola publikoan dagoeneko ez dute lekurik datorren ikasturterako

U.M. > ARRASATE

Haurreskola publikoan, Bedoñaben, dagoeneko talde guztiak beteta dituzte datorren ikasturteari begira. Horrek esan gura du maiatzetik aurrera jaiotako umeek ezingo dutela zerbitzu hori erabili, baldin eta ez bada bajaran bat gertatzen.

Ama batek horren gaineko kezka azaldu eta egoera hori salatu gura izan du, zerbitzu hura publikoa delako.

Bedoñaben, berriz, egoera hori horrela dela konfirmatu dio GOIENKARIARI haurreskola zerbitzuaren koordinatzaile Mai-der Zuazubiskarrek.

MATRIKULAZIOA ITXITA

Hark azaldu du espero baino matrikulazio gehiago izan dituztela 1 eta 2 urteko umeen talde-estarako. Hori horrela, 0 eta 1 urteko sehaskako umeen talde

bat kendu egin dute, besteak haritu ahal izateko.

Eta horren ondorioz, ume jaioberriak hartzeko lekurik ez dute Bedoñaben: "Hurrengo matrikulazioa (iraila-urria) ez dugu zabaldu ere egingo, bajarik gertatzen ez bada, ez dugu leku-rik-eta".

KONPONBIDE BILA

Are gehiago, leku falta horren berri eman zioten Udalari haueskundeak baino aste batzuk lehenago. Eta irtenbideak ere proposatu zituzten: Bedoñabe eraikina bera handitu edo Musakolan, Udalarena den eraikin bat egokitu haurreskola moduan erabiltzeko.

ORAIN, GUZTIA GELDI

Udalak erantzun zuen egoera aztertu egin beharko dutela, irtenbideren bat aurkitzeko.

Orain, berriz, gobernu berria eratu eta lanean hasi arte itxaron egin beharko dute.

Bedoñaben 2004ko irailean hasi ziren haurreskola zerbitzua ematen eta hiru urtean zerbitzua txiki geratu da.



BEDOÑABE San Andres auzoan dago Bedoñabe eraikina.

U.M.

Pando Errotuloak

Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Zenbaki Ahokulariak

Juridikoa:
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak,
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekursoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Soziitateen eratzeak, ...

Laborala: Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
Fiskala: Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...
Kontabilitatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABAleta. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

OSTANTZ

pinxoak eta bokata onenak geurean!!!

Ferrerias 12 behe 20.500 ARRASATE Tel.: 943 79 56 04

KULTURA PROGRAMAZIOA > UDALEKO UZTAILEKO ESKAITZA

Filmak, musika eta dantza, uztaileko kultura eskaintzan

Donostiako Jazzalditik musika talde bat ekarriko dute, eta nazioarteko dantzak ere izango dira

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Azkeneko urteotan ohikoa den moduan, Udaleko Kultura Sailak Monterron parkean egingo ditu uztaileko kultura ekintza guztiak. Are gehiago, egubakoitzeko filmak emango dituzte parkean, eta abuztuan ere gauza bera egingo dute. Azken hori antolatzearren arrazoia da abuztuan herrian daudenei ere kultura zerbitzua ematea.

Uztailean emango dituzten filmak hauek izango dira: *Spiderman 3, Rocky Balboa, Las vaca-*

ciones de Mr. Bean eta Nömadak Tx. Hala, abenturak, drama, komedia eta euskarazko dokumentala izango dira ikusgai.

Horrez gain, hilaren 26an Gypsy Swing laukote frantzarrak kontzertua egingo du Arrasaten, taldeak Donostiako Jazzaldian ere esku hartuko duela aporetatuta. Talde horrek jazza eta Europako ijitoen musika batzen ditu maisuki; eta, diotenez, Django Reinhardt-en eskolaren jarraitzaile onenetakoak dira. Florin Niculescu musikaria da taldea-



NAZIOARTEKO DANTZAK Hilaren 24an Albaniako (argazkian) eta Mexikoko dantza taldeek ikuskizuna egingo dute.

ELAI-ALAI

ren sortzailea, eta biolina, bi gitara eta kontrabaxua izango dira entzungai emanaldi horretan. Horren aurretik, baina, hilaren 24an, urtero moduan nazioarte-

ko folklore jaialdia egingo dute. Portugaleteko nazioarteko folklore jaialdi ospetsutik bi talde ekarriko dituzte Arrasatera. Hala, aurten Mexikotik Colinako

unibertsitateko ballet folkloriko taldea; eta Albaniatik dantza eta abestien konpañia nazionala ekarriko dute. Punta-puntako taldeak dira.

'Udaixe'-koak egun-pasa egin zuten surfa ikasten

Joan den asteburuan, Txatxili-purdik antolatzen duen *Udaixe* ekimeneko hainbat gazte hondartzan izan ziren surfa ikasten. Surf ikastaroa jaso, bainuak hartu, boleibolean jokatu, apustuak egin, izozkia jan eta leher eginda, baina gustura Arrasatera etorri ziren bueltan autobusean. Horrez gain, gaztetako batzuek olatu gainean zutik jartzea ere lortu zuten. Ez da gutxi!




IKER BARANDIARAN

> ANTZERKIA
'Ser o no ser... visible' antzezlana hilaren 14an egingo dute

Emakume Txokoak joan den domekarako iragarritako antzezlana atzera bota zuten eguraldiagatik. Cristina Castillo aktoreak *Ser o no ser... visible* antzezlana egin behar zuen Monterronen.

Emakume Txokoak jakinari digu hilaren 14an egingo dutela Monterronen, 22:15ean, eta sarrera doan izango dela. Eguraldi txarra badago, Amaia Udal Antzokian egingo dute.

Kritikaz jositako komediano hori emakume lesbiano gaineko da. Ezkontzera doan emakume batzuk salantzak sortuko zaizkio une horretan.




URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

B E H E R A P E N A K

O
P
O
R

E
S
K
A
I
N
T
Z
A
K

azken ordua

Italia Irteerak uztailean	599€ -tik aurrera
Turkia Irteerak uztailean	299€ -tik aurrera
Gambia Irteerak uztailean	699€ -tik aurrera
Menorca Irteera uztailaren 12an	258€ -tik aurrera
Ibiza Irteerak uztailean	328€ -tik aurrera

azken ordua

Mallorca Irteerak uztailean	339€ -tik aurrera
Brasil Irteerak uztailean	560€ -tik aurrera
Itsasbidaia (Mediterraneoa) Irteerak uztailean	2x1
Costa Rica Uda guztian zehar	1.000€ -tik aurrera

Uztailaren 2tik 10era erreserba eginez gero...

%50erainoko deskontua

Praga Uda guztian zehar	442€ -tik aurrera
Erdialdeko Europa Uda guztian zehar	448€ -tik aurrera
Sizilia Uda guztian zehar	545€ -tik aurrera

Istanbul Uda guztian zehar	354€ -tik aurrera
Dubrovnik Uda guztian zehar	769 € -tik aurrera

Eta uda guztian zehar **umeak DOAN!**



Arrasate Bidaiak



B I D A I A - A G E N T Z I A E L K A R T U A

Kontzeziño Kalea 12 - ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 - Faxa.: 943 79 74 45
Posta-e: d4051@marsans.es

FUTBOLA > PREFERENTEA

Mondrak ez daki non egin aurre-denboraldia

Mondra taldeak hilaren 16an hasiko du aurre-denboraldia; oraindik ez dakite entrenamendu horiek Mojategin ala Atxabalpen egingo dituzten

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Arrasateko taldea segituan hasiko da datorren denboraldia presatzen. Hala, jokalariak datorren egunean, hilak 12, elkartuko dira, datorren urtearen gainean berba egin, fitxak bete eta bestelako tramiteak egiteko. Baina oraindik ez dakite Atxabalpen edo Mojategin elkartuko diren, ez diete-eta esan non hasiko duten aurre-denboraldia.

Izan ere, preferenteko taldea hilaren 16an hasiko da entrenatzetan, gero oporrak hartzeko. Eta, zuzendaritzako kideek Mojategin gura dute lanean hasi, bestetako beste futbol zelaira lehenbalienean egokitzen hasteko.



ESTREINATUTA Ekain amaieran inauguratu zuten futbol zelai berria.

x.u.

BATZAR OROKORRA, EGUAZTENEAN

Horrekin batera, Mondrak datorren eguaiztenean, hilak 11, egingo du urteko batzar orokorra (Kulturaten, 18:30ean). Joan den

denboraldiaren gaineko errepasoak egin, datu ekonomikoak ezaugtzera eman eta datorren urteko dagoen asmoaren berri ematea da batzarraren helburua.

> MENDIA

Domekan, Okina-Lagran arteko mendi irteerarekin estreinatuko du Besaidek uztaila

Besaide Mendi Elkarteak prest ditu uztailerako gertatu dituen mendi irteerak. Hala, oraindik domekarako, hilak 8, mendi irteera antolatu dute Arabara, Okina eta Lagran banatzen dituzten kilometroak egiteko.

Uztailaren 22an, berriz, mendi zeharkaldi horren hurrengo etapa egingo dute, Lagran eta Biasteri batzen dituena, hain zuzen ere. Uztailaren 16an, 17an, eta 18an eman ahal izango da irteera horretan parte hartzeko izena, Besaideko egoitzan (19:30-20:30).

> ATLETISMOA

Oihane Urtzelaik klubeko errekorra hautsi du, luzera saltoan 5 metroko marka eginda

Joan den asteburuan egin zuen Oihane Urtzelaik, luzera saltoan, 5 metroko marka. Salto horrekin, Arrasatekoak bere marka onena ondu du (4,78 metro, iaz) eta klubean marka berria ezauri. Marka ona da, kontuan izanda entrenamenduak egoera eska-Sean dauden Iturriapeko kirol instalazioetan egin dituela. Luzeera saltoa lantzeko pista, esaterako, gaizki dago, besteak beste zuloan oso hare gutxi dago-eta. Hala, Mojategiko kirol instalazio berriek nabarmen lagunduko dute atleten jardunearan.

> ATLETISMOA

Hamaika ehunenengatik ez da sailkatu Markel Blanco Spainiako Txapelketarako

Anoetan egindako saioetan, 800 metroko lasterketan Markel Blanco ez zuen bere maila erakutsi, eta minutu bat eta 59 segundo denbora eginda, ezin izan du Spainiako Txapelketara joateko gutxieneko denbora egin. Aurten, Arrasatekoak minutu bat, 56 segundo eta 11 ehuneneko marka zuen, eta 11 ehunen horienengatik ezingo da Castellora joan.

Lander Errastik, berriz, pertika saltoan 4,35 metroko marka eginda, Spainiako Txapelketarako txartela lortu du.

Goza ezazu aparteKo udaz

Nokia 5200 Sony-Ericsson K610i LG Chocolate

baita Udako Unika Tarifaz ere
dei guztiak, edozein ordutan eta edozein operadoretara

* Unika: Deiaren ezartze-kostua, 15 zent, estatuko finko eta mugikorretarako deitzen. Hilean 1.000 minutuko muga, minutuko o zentimoan. Kontratutako Unikaren arabera, hileko gutxieneko kompromisoa ezarri da, eta, mugak horretara iristen ez badu, kobrauto egindo da. 2007/06/22etik 2007/09/25era Unikaren kontratutako alfa berrirentzat balio du sustapenak. Sustapenaren amalera-eguna, 2007ko irailak 3oa. Euskaltel Hautaketa/Lehoko bezeroentzako PSP eta sustapena, betiere ondoren ordaintzeko linea mugikor berri bat kontratatzeko adituren ondoren, hilean gutxienez 6 e (LG Chocolate-ren kasuan) edo 15 € (beste bi modeloaren kasuan) kontsumitzeko kompromisoarekin. 18 hilabete irauieko kompromisoa. Muga: 50 unitate ale bakotzeko. Jakinarazpen honetan adierazten diren prezioei dagozkien zeharkako zergak aplikatu behar zaizkie. Penintsula eta Balear Uharteak: BEZA (p. 16). Kanariak: IGICetiria salbuesita. Ceuta: IPSI (p. 3). Melilla: IPSI (p. 16).

ROUTER
COMUNICACIONES, S.L

Errebal, 15
Eibar
① 943 700 369

Biteri Plaza, 4
Arrasate
① 943 71 27 81

euskaltel -en Banatzaile Ofiziala

Arrasatearrak kanpoan

Zurine Lasa > Arrasatearra da Stuttgart bizi da

"Zaila da ikasleekin harremana izatea, klaseak handiak dira-eta"

MIRIAN BITERI > ARRASATE
Abuztuan bi urte beteko dira Zuriñe Lasa arrasatearra Alemaniara joan zela. Ingeniaritza Tekniko Mekanikoa amaitu eta Stuttgarterantz abiatu zen, ikasketekin jarraitzen.

Hasieran, "denak harritu ninduen, dena zen ezberdina", azaldu du. Hizkuntza, janaria, ordutegiak, eguraldia, eguneroko bizi-tza, klaseak emateko modua aipatu ditu, besteak beste.

"Beste mundu batean" zegoela iruditzen zitzaiola eta hasiera "oso gogorra" egin zitzaiola onartu du 23 urteko arrasatearrak. Gaur egun, ordea, Stuttgar-

ten nahiko ondo moldatzen dela jakinarazi du, bai hizkuntza aldetik eta baita eguneroko bizimoduaren ere.

Azken horren harira, orokorrean, hango jendeak bizimodu "lasaia" duela adierazi du. "Dena ondo eta txukum antolatuta dute", dio Lasak. Arrasate eta Stuttgart

"Alemaniarrak oso langileak eta serio samarrak dira; hotzak direnik ez zait iruditzen"



Irudian, Zurine Lasa.

artean aldaketa "itzela" dagoela azaldu du: "Stuttgart askoz handiagoa da, eta desberdintasun kultural guztiei hiriko bizimodua ere gehitu behar zaie".

LANGILEAK ETA SERIOAK

Alemaniarrak "oso langileak" eta "serio samarrak" izateaz gain, "beti esaten ohi den bezain hotzak" ez direla azpimarratu du arrasatearrak. Ikasketei dagokienez, ikasleek ikasteko duten grina "bitxia" iruditzen zaio. Horrez gain, hango ikasleekin harremanan jartzea "zaila" izaten dela ere aipatu du, "klaseak oso handiak direlako eta bakoitzak ikasgai ezberdinak dituelako". Horrataz, ikasle atzerritarrekin elkarztea errazagoa dela dio.

Anonimotasunak ematen duen "askatasuna" du gustuko. Burokracia da, bestalde, handik gutxien gustatzen zaiona. Etxekoak eta lagunak igartzen ditu falta. "Etxera bueltatzean igartzen dudana baino sentimendu hobetrik ez dago", esaten amaitu du.

bere ustez



Nerea Makazaga

Nekearen parasitoa eta errutina

E zinegon zaharren izerdi hotz berarekin esnatu zaitu goizak, ordu txikietan, eta goizean goiz jaikitzen ohi era ezak mendizale zineneko garaia gogora arazi dizkizu besteak beste.

Urteak dira inguratzen zai-tuen paisaiaren elementu petrifiku bilakatu zarela eta mugimendu minimo bat eusteko ahaleginak, ez zaituzte zure patua izango ez zena geraturatzetik babestuko. Bainak egunak doaz, egunak dato...

Aire girotuak eta laneko leihor ilunduek ez dute urtaro

"Zapaten zolari eransten zaizun egunerokotasunaren uhal garraiatzailea onartu duzu berriz"

aldaketarik erakusten eta egutegiaren orriak egunero pasatzea jolas bat besterik ez zaiztu bilakatu. Berri zire, euliek gogorarazi behar zein urtarotan zauden, eta berriz dator kitzu galdera atzo bertakoak ez ote diren.

Arnasten duzun airearen konposizioa aldatu izanari egoten diozu zure gogo ezaren errua eta gaixotasun kronikoren bat ere. Nekearen parasitoa gorputz osora hedatzen ari zaizu, esponentzialki. Eta medikuek ez dute zure literaturan sinesten; baina hauek are gutxiago konbentzitzen zaitu zu.

Zapaten zolari eransten zaizun egunerokotasunaren uhal garraiatzailea onartu duzu berriz, zeren gaur ez, gaur nekatuegia zaude, beste inora zuzentzeko.

Hau be badaukogu




TXATXILIPURDI

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuleta

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE



Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ONDAREA > ALFONSO XII.A ERREGEAREN GARAICO TXANPONAK DIRA

XIX. mendeko bi txanpon agertu dira San Martzialen

San Martzialgo ermitaren atean agertu dira, sarrailaren ondoan

Hamar zentimoko txanponak dira, lehengo 'txakur handiak'

OIHANA ELORTZA > BERGARA
XIX. mendeko bi txanpon aurkitu dituzte San Martzialgo ermitan; bigarrena domekan, San Martzial egunean. Txanpon biak toki berean aurkitu dituzte, ermitaren ate nagusiaren sarrailaren ondoan.

Lehenengo txanpona duela hiru hilabete inguru topatu zuten: "Joan den udan ermitako atea apurtu zuten eta atea konpontzen ari ginela topatu genuen. Sarrailaren ondoan zegoen", dio Juan Kruz Mendizabalek, Santa Marinako parrokoak. "Ermitak leihatila bat du kanpotik barrua ikus-teko. Leihatila horren beheko aldean itsulapiko antzerako bat egongo zen lehen, jendeak dirua botatzeko. Txanpon horiek ere itsulapiko horretan sartu nahi-ko zituen norbaitek, baina, des-kuidoz, bitarteko bidea hartu eta sarrailaren ondoraino heldu dira", jarraitu du Mendizabalek. Bigarren txanpona domekan aurkitu zuten: "Istorio hori ari nintzaion kontatzen lagun bat eta non aurkitu genuen azaldu nio-nean, hara non agertu zen bigarren txanpona", azaldu du elizgi-zonak.

SARRAILAREN ONDOAN
Atea apurtu zutenean, konpon-tea erabaki zuen Juan Kruz Men-dizabalek. Gaztainazkoa da atea, eta, egindako kaltea handia zenez, garestia iruditu zitzaiion konpon-ketaren aurrekontua: "Horregaa-



ITSULAPIKOAN Uste dute atearen leihatila azpiko itsulapikoan sartu nahi zituela norbaitek bi txanponak. MIRIAN BITERI

tik pentsatu genuen auzolanean konpontzea apurtutakoa. Atearen sarraila nolakoa zen azterzen hasi ginenean, eta funtzionamendua deskubritzen genbiltzala ikusi genuen txanpon bat zegoela han.

Bigarrena ere toki berean aurkitu dugu eta pentsatzen dugu per-tsona berak botatakoak direla", dio Santa Marinako parrokoak. Txanpon biak gordeta ditu orain elizgizonak.

Ateari dagokionez, indartu eta babestu egin zuten. Sarrai-la eta giltza lehengoak jarri dituzte berriro. Ermitako giltza betiko tokian dago, Askatzu baserrian.

Txaponak bi 'txakur handi' dira, baina egun ez dute baliorik


Aurkitutako bi txanponak Alfontso XII.a erregearen sasoikoak dira, 1878. urtekoak. Hamar zentimokoak dira biak: garai bateko *txakur handiak*.

Numismatikoki ze balio izan dezaketen ere ikertu dute, baina ez ei dute balio handirik: "Ez dira ez urezkoak ezta zilarrezkoak, kobrezkoak dira. Egun, bost eta 10 euroren arteko balioa dute", dio Juan Kruz Mendizabalek. Bat bestea baino hondatuago egon arren, Mendizabalek uste du pertsona berak botako zituela txanponak ermitara.



Tamainaz, euroa baino handiagoak dira aurkitutako txanponak. XABIER URTEZELAI

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

Aldoka Maldoka

TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

K O N D E
PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

> IRTEERA
Arcachongo
Aquaparkera joango direnen zerrenda

Arcachongo Aquaparkera joateko izena eman duten gazte-txoen artean zozketa egin du Udaleko Kultura Zerbitzuak. 51 gaztxo daude zerrenda horretan eta beste hamar itxaron zerrendan. Izenematea behin betikoa izateko, ezinbestekoa da 20 euro sartzea Kutxa-ko edo Euskadiko Kutzako kontu korronte banatan. Dirua sartu ondoren, kultura etxera eraman behar da ordainagiriaren kopia eta guraso-en baimena. Baimenaren orria udalzaingoan lor daiteke. Hilaren 19an da irteera.

> EUSKARA
Begirale lan-poltsa osatu nahi du Jardun euskara elkartea

Begirale lan-poltsa osatu nahi du Jardun euskara elkartea eta epea zabaldu du izena emateko. Datorren ikasturtean, 2007-2008, lan egiteko begiraleak izan nahi ditu Jardunek, eta horiek lortzeko lan-poltsa osatu nahi du. Lan-poltsa horretan izena emateko beharrezko da euskaraz ondo jakitea; ikasketak, esperientzia eta begirale tituluia izatea baloratuko dira. Interesa duenak Jardunera bidali behar du curriculuma, postaz edo Internetez.

> ERROMESALDIA
Arantzazu eta Loiolako santutegiak bisitatuko dituzte

Arantzazuko eta Loiolako santutegira irteera antolatu dute uztailaren 22rako. Goizean Arantza joango dira, eta, erromesaldia denez, nahi duenak oinez egin ahal izango du Zelai-Zabal jatetxetik santutegira bitarteko zatia. Arantzazun bazkaldu ostean Loiolara joango dira. Autobusa-serako txartelak Ozaetako Zerkauzin eta Barrenkaleko Zatoian erosi daitezke zortzi eurotan; bazkaria 19 euro da.



LUDOTEKA Neska-mutikoak Agorrosingo ludotekako liburu eta joko artean jolasten.

GOIENKARIA

ZERBITZUA > IRAILETIK AURRERA

Auzoetako liburutegiak, ludoteka eta udalekuak esleitu nahi ditu Udalak

Berez urtebeteko epea dute zerbitzu horien kontratacio berriek, baina beste hiru urtez luzatu ahal izango dira, aldian urtebeteko iraupenaz

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Hainbat zerbitzu kontratatzeko deialdi publikoa egin du Udalak: Osintxuko liburutegi eta ludoteca zerbitzua, udako udalekuak eta ludoteka zerbitzua eta Angiozarko liburutegia eta kultura sustatzeko zerbitzua.

Datorren irailaren 12tik aurrera aplikatuko dute zerbitzu horien kontratacio berria. Berez urtebeteko epea dute, baina beste hiru urtez luzatu ahal izango da, aldian urtebeteko iraupenaz,

non eta bi alderdietako edozeinak, hiru hilabete aurretik, gutxienez, propio denuntzia egiten ez duen.

Egun, Xipizaro arduratzentzak da Osintxuko liburutegiaz eta ludotekaz eta Udal Ludotekaz eta udalekuez; Angiozarko liburutegiaren eta kultura sustatzearren zerbitzuaz Mila Elortza arduratzentzak da. Lehiaketa publikoz adjudikatzen ditu Udalak zerbitzu horiek, eta deialdia egin du datozentzak.

INFORMAZIOA, KULTURA ETXEA

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak aste honetan, martitzenean, argitaratu ditu zerbitzu horiek kontratzeko baldintzak. Udalak egiten dituen diru eskaintzak ere jasotzen ditu: Osintxuko zerbitzuak eskaintzeagatik 2.434,56 euro ordainduko ditu hileko; Angiozarkoak eskaintzeko, 1.824,56 euro hileko eta ludoketa eta udalekuak eskaintzeko, 2.934 euro hileko ludoteka zerbitzuaren dako eta 30.528 udalekuetarako. Eskaerak egiteko epea zabalik dago, uztailaren 18a da azken eguna. Informazioa kultura etxearen eskatu dezake interesatuak eta dokumentazioa, udaletxeko idazkaritzan.

MARGOAK
josean pintore

Dekorazio-pintura eta
industriala

barnealdeak eta
kanpoaldeak

Bergara - Arrasate - Oñati

Tel.: 609 54 89 89
943 53 27 16
josehernandez@euskalnet.net



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

JAIAK > SAN KRISTOBAL AUZOAN

Autoak bedeinkatuko dituzte San Kristobal auzoan

Domekan eta martitzenean bedeinkatuko dituzte autoak

fuego eta kanpai hotsen laguntzarekin. Auzokoendako saihesquia, sagardoa eta txokolatea prestatuko dituzte.

Zapaturako Orotz taldearen dantzaldia antolatu dute eta domekarako, meza nagusia, ibilgailuen bedeinkapena, auzoko erretiratudako luntxa eta Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia. Umeendako kukainak ere egongo dira.

SAN KRISTOBAL EGUNA

San Kristobal eguna martitzenean da, uztailaren 10ean. Jaieitako ekitaldi gehienak astebururako antolatu baditzte ere, San Kristobal egunerako ere utzi dituzte batzuk. Adibidez, 12:00etan meza nagusia egingo dute eta ondoren, autoen bedeinkapena. Erretiratudako luntxa ere egingo dute. Gauean, dantzaldia egongo da Garroki taldearekin.

OHIKO PINU SARTZEA

Aspaldiko ohiturari jarraituz hasiko dituzte jaiak San Kristobal auzoan: ohiko pinu sartzea egingo dute gaur, egubakotza, jaietako lehen egunean. 22:00etan egingo dute hori, etxan-

> SAHARA

Datorren martitzenean helduko dira Bergarara uda hemen emango duten ume sahararrak

Datorren martitzenean, uztailak 10, datoz Bergarara uda hemen emango duten ume sahararrak. 7 eta 12 urte bitarteko hamar umeak Bergaran, Antzuolan edo Elgetan pasako dute uda, eta horietatik bederatzi hurrengo martitzenean datoz; hamargarrena egun bat geroago iritsiko da, eguztenean. Bergarako Bubisher elkarteko Bibi Andueza esan duenez, "hegazkina martitzten eguerdian helduko da Bilbao. Handik Loiuko kiroldegira eramango dituzte ume guztiak eta banatu egingo dituzte. Elkartekoak autobusean joango gara euren bila eta Bergarako kultura etxeen elkartuko gara hemengo familiekin". Datozen umeetako batzuk lehenengo aldziz izango dira Euskal Herrian.

> LIBURU KANPAINA

Uztailaren 21a arte luzatu dute 'Irakurri, gozatu eta oparitu' izeneko liburu kanpaina

Uztailaren 21a arte luzatu dute *Irakurri, gozatu eta oparitu* izeneko liburu kanpaina. Jardun euskara elkarrekin Udal Liburutegiaren eta Elkar megadendarekin batera bultzatu du kanpaina hori duela bi hilabetetik hona. Bada, uztailaren 21a arte luzatzea erabaki dute. Udal Liburutegian 100 liburu daude apal berezi baten. Irakurleak liburu bat maileguan hartu eta irakurri ondoren, lau galdera orokor dituen fitxa bat bete behar du. Irakurritako liburuak gustatu eta norbaiti oparitu nahi izanez gero, %25eko deskontua duen txartela eskuratuko du. Txartel hori Elkarreko dendan aurkeztu behar du deskontua egiteko. Jarduneko kidea izaitez gero, gainera, deskontua %50eko da.

GOIERRI AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

MUSIKA > JAZZ GAUAK

Nafarroatik dator jazza Espoloira

Los Inquilinos Jazz Band nafarrek emango diote hasiera aurtengo jazz egitarauari

EDU MENDIBIL > BERGARA

Los Inquilinos Jazz Band taldeak hasiera emango dio gaur, egubakoitza, uda sasoiko jazz egitarauari. Emanaldia Espoloian izango da, 22:30ean hasita.

Los Inquilinos Jazz Band boskotea esperientzia handiko musikariz osatuta dago. Taldea orain dela zazpi urte jarri zuten abian, Iruñean. Gaur, txupinazoa eta San Ferminen hasiera ospatu ostean, Bergaran izango ditugu nafarrak.

Mario Fernandino taldeko partaidearen hitzetan, "abesti klasekoen ezaugarri akustikoean ikertzen ari gara orain, eta horiek abangoardiako soinu erritmikoekin uztartzen ditugu. Bergaran bigarren aldiz joko dugu, orain hiruzpalau urte, seikotea ginenean, jo baike-nuen lehenbizikoz".

Pieza instrumentalak joko dituzte gaur, *All the things you are* (Hammerstein), *Nardis* (Miles Davis), *Soy Califa* (Dex-



ARRASATE MUSIKAL BIG BAND Arrasatearrek egingo dute jazz egitarauko bigarren emanaldia, hilaren 13ko.

GOIENKARIA

ter Gordon), *Valse hot* (Sonny Rollins) eta *Blues for Alice* (Charlie Parker) tartean. Ezaugarri akustiko berriak bilatzeko ibilbidea horretan, jazz boskoteetan gutxitan ikusi ohi diren formazioa

erabiltzen du: Mario Fernandino (saxo alta), Iñaki Askunze (saxo tenorra), Luis Gimenez (guitarra), Juan Romero (kontrabaxua) eta Jorge Garrido (bateria) osatzen dute taldea.

ARRASATE MUSIKAL BIG BAND

Jazz gauak egitarauarekin jarraituz, Arrasate Musical Big Band taldeak kontzertua eskainiko du hurrengo egubakoitzean, uztailaren 13an, ordu eta toki berean.



GOIENKARIA

Alai taldearen CDaren arrakasta

Alai taldeak sekulako arrakasta lortu zuen domekan San Martzialgo erromerian: grabatutako CDa jarri zuten salgai eta 200 ale inguru saldu zituzten. Ale gutxi batzuk geratzen dira oraindik, 10 euroren truke. Diskoak hamabi kantu batzen ditu, *Euskal Herriko, Hiru damatxo, Maitasuna, Santa Luzia, Festara, Pol-Pol eta Eperra* tartean. Gabon kantuekin beste CD bat aterako dute etorkizunean; asmoa ez da dirua irabaztea, baizik eta herriko kantuak jendearen esku jartzea, kanta ditzan.

> ERAKUSKETA

Film laburren lehiaketa deitu du Bergarako Udalak: 300 euroko saria irabazlearentzat

Bigarren urtez, lehiaketa deitu du Udalak: film laburra, abesti baten bideoaklipa, iragarkia edo bestelako lanak aurkez daitezke, bakarra zein taldeka. Bergaran edo Debagoieneko edozein herrian bizi den edozeinek aurkez ditzake lanak. Bi sari izango dira: 300 euro irabazlearentzat eta 250 euro bigarren sariarentzat.

> BANDA

Udal Musika Bandaren 175. urteurrena ospatzeko herri bazkaria, uztailaren 15ean

175. urteurreneneko ospakizunekin jarraituz, bandak kontzertua emango du uztailaren 15ean, Udal Pilotalekuaren. Jarraian herri bazkaria izango da. Bazkarirako txartelak Lazkano oinetako dendan (943 76 25 03) daude salgai, 30 euroren truke. Izena emateko epea astelehenera arte, hilaren 9ra arte, dago zabalik.

> PINTURA

Jabier Sagarzazu, Carmen Maura eta Susana Zaldibarren margoak Aroztegi aretoan

Bidasoako pintoreen erakusketa ikus daiteke egunotan Aroztegi aretoan. Jabier Sagarzazu, Carmen Maura eta Susana Zaldibarren margolarien erakusketa datorren uztailaren 15era arte izango da zabalik Barrenkaleko aretoan, ohiko ordutegian.

CLARINS ESKAINTZA

Krema bat erossteagatik %10eko deskontua eta opari hau *

* Opariak bukatu arte

Estetika zentroa
Igaro

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK

K21

Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak • Altzariak • Leihoa • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerlek zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

GURIA
Taberna


Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

ZURE AUTOAREN PIEZAK PUNTU-PUNTAUAN



Amillaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 19 11 • Bergara



BergaraCars

Aitziturri 1 • 943 76 18 71 • Bergara

Berria Garajea

Amillaga 49 • 943 76 22 43 • Bergara

DESA/CRISTAL

Santalaiz 6, 5. pabilioia • 943 76 36 09 • Bergara
Ibaiondo bailara 17, 8. pabilioia • 943 69 16 16 • Irura



ELGETA AUTOAK

Julián Sanz Fernandez

Berraondokua • 943 76 82 02 • Elgeta

ION AUTOAK

Amillaga 36 • 943 76 47 49 • Bergara

ad LAGUN GARAJEA

Santalaitz 3 • 943 76 11 20 • Bergara

MARKIEGI autoak

Leizeaga 1 • 943 76 35 09 • Bergara

Murillo Garajea EUROTALLER

Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara

ad TXOMIN GARAJEA

Lizarraga auzoa 8 • 943 78 70 77 • Antzuola

Auto-Recambios



Ibargarai 33 • 943 76 72 59 • Bergara

Josetxo Muniategi > Eskubaloiko entrenatzailea

"Eskubaloia partaidetza eta inplikazio handiagoa behar du, maila guztieta"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Gipuzkoako eskubaloii federazioak Josetxo Muniategiandikoetxea sartuko du gaur arratsaldean. 14 urte-rekin hasi zen eskubaloian eta gaur egun, oraindik, horretan jarraitzen du. 21 urte daramatzat Bergarako taldea entrenatzen, eta federazioak egindako lana eskertu gura dio sari horren bitarte.

Zorionak!

Eskerrik asko.

Poztuko zinen sari bat jaso behar zenuela jakitean...

Bai. Hala ere, poztasunez jaso badut ere, kontraesankorra dela uste dut. Sari horrekin urteko entrenatzaile onenaren lana goraipatzen da eta hobeak ez ote diren izan galdetzen diot nire buruari. Saritua izateko arrazoien artean talde moduan jokatu dugula eta oso maila ona era-kutsi dugula egon daitezke.

Zelan eusten diozu hainbeste urtez entrenatzaile izaten jarraitzeari?

Oso metodikoa naiz eta gauza berriak ikastea izan dut beti gustuko. Lehenengo zappi edo zortzi urteak ikasten eman nituen, gauza berriak egiten. Gero hasi ginen talde polita izaten eta 1993. urtean lehenengo igoera lortu genuen. Hiruzpalau urte mantendu ginen eta mailaz jaistean, krisi bat izan nuen. Gogo barik geratu nintzen.

Ez zenuen, ordea, eskubaloia utzi...

Hala da. Gazteak entrenatzen hasi nintzen eta ilusioa berreskurratu nuen. Jokalari hobeak izan daitezen lortzea dago oraindik. Askoz hurbilagoak dira gazteak. 14-16 mutikoz osaturiko talde sendoa topatu nuen han, orain nagusiak taldean daudenak.

Hainbeste urte daramatzan entrenatzailerik ezagutzen duzu?

Bai, gehiegiz. Toki askotan dago antzerako urteak daramatzan jendea.

Zergatik izan daiteke hori?

Lanean jende gutxi eta kompromiso falta handia dagoelako. Beti jende berdina dabil. Inplikazio eta partaidetza handiagoa behar du eskubaloia, maila guztieta. Jendeak erosio bizitzea du gustuko. Baina jakin behar du bizi modua ez dela hainbeste aldatzen mundu horretan sartzean. Horren harira, etorkizunear, ardura apur bat izan eta inplika daitezen eskatzen diet jokalariei.

Ibilbide osoan zein izan da lorpenik handiena?

Aurtengo denboraldian, adibidez, dena onto irten da, zortea izan dugu. Baina, 1993. urtea, lehen aldiz igo ginenean, askoz potoloagoa izan zen.

Zein izan da zure aginduetara izan duzun jokalaririk onena?

Jokalari bakar bat aipatzea ez lego ke ondo. Joan zen igorran jokalari hobeak zeuden, fisikoki. Oraingoak oso txikiak dira, beste taldeetako jokalariekin alderatuz.

Zer gertatu da urte hauetan guztieta bergararrik ez iza-teko lehenengo mailan?

Oso nekeza da hori. Goian dauden jokalariak fisikoki oso indartsu daude eta gaztetatik, gainera, eskubaloian ibiliak dira. Eskubaloian fisikoki indartsu egotea ezinbestekoa da. Hasteko, 1,85 metrolik gora izan behar duzu. Azkenaldian, gurean, jokalari txikiak izan ditugu, baina horrek ez du esan nahi txarrak direnik.



Josetxo Muniategi saritu egingo dute gaur Donostian.

MIRIAN BITERI

"Oso metodikoa naiz eta gauza berriak ikastea izan dut beti gustuko"

"EZ dago inor soberan inon, eta, beraz, leku batetik bestera pasatzea nekeza da"

Talde indartsuren batera joateko aukera izan duzu inoiz?

Ez, ez dut sekula horrelako eskauntzarik izan. Kontuan hartu behar da taldeen arteko egitura nahiko ahula izaten dela herri guztieta. Ez dago inor soberan inon, eta, beraz, leku batetik bestera pasatzea nekeza da. Norbait kentzen baldin baduzu, talde horrek desagertzeko arriskua izango du. Gure artean errespetua dago.


Agorrosingo berdegunea ireki dute

Joan zen astelehenean zabaldutzen Agorrosingo berdegunea. 10:00etan irekitzen dute eta 20:30ak arte han egoteko aukera dute bergararrek. Hasierako egunotan, hala ere, ez da jende askorik hurbildu, eguraldiak ez dute batere lagundu.

3.500 metro karratuko zelaia barruko igerilekuekin dago zuzenean komunikatuta. Iturria, komunak eta dutxak ditu.



TXOMIN MADINA.



JAIZKI ile apaindegia

Ireki berria

Asteartetik ostegunera: 09:30 – 12:00 / 15:00 – 18:00

Ostirala: 09:30 – 18:00

Zapatua: 08:30 – 12:00

Tel.: 943 76 38 95

Bidekurutzeta 42 • Bergara

Kanpotarrak Bergaran

Neidis Rodriguez Kubatarra
Bergaran bizi da

"Elurra noiz egingo duen zain nago, ez dut-eta sekula ikusi"

MIRIAN BITERI > BERGARA
Hilabete eta erdi baino ez darama Neidis Rodriguez kubatarrak Bergaran bizi izaten. Bikotekidea Bergarakoa da. Oraindik ohitzen ari dela azaldu du eta jaioterriko "guztia" faltan igartzen duela gaineratu du.

Hasiera "gogorra" izaten ari dela onartu du 35 urteko kubatarrak. "Hemengo bizimoduari moldatzea kostatzen ari zait, oso ezberdina da-eta guztia", adierazi du.

Olgineko (Kubako ekialdean) da hura eta han seme-alabak utzi ditu, bestekat Beste. Iritsi berria denez, jaioterriira bueltazeko urtebetetan inguru itxaron behar duela azpimarratu du.

Bergara gustuko duela jakinaztu du Rodriguezek: "Oso gustu nago, hemengo jendea oso atsegina da", azpimarratu du. Joan zen domekan, adibidez, San Martzialera joan zen: "Oso jai dibertigarria iruditu zitzaidan. Dantza eta guztia egin nuen. Gustura ibili nintzen han", azaldu du.

Orain, Larrañaga gozategian dabil praktikak egiten. Pastelak eta tartak prestatzen ikasi du dago-

"Barazki asko jaten da hemen, han baino askoz gehiago; Kuban uzta jasotzen denean baino ez da jaten"



Irudian, Neidis Rodriguez.

eneko. Lan interesagarria iruditzen zaio kubatarrari. Kafearekin hartzen diren pastak gustuko dituela gaineratu du.

"BARAZKI ASKO JATEN DA HEMEN"

Olginen, sukaldari egiten zuen lan. Horren harira, bi herrialdeetako jakien artean zerikusirik ez dagoela dio: "Hemen barazki asko jaten da; Kuban uzta jasotzen denean baino ez da jaten", esan du.

Horrez gain, "orain arte probatu dudan guztia gustatu zait", azpimarratu du Rodriguezek irribarre batekin. Ezin du jaki bakar bat aipatu, "denak gozoak dira-eta".

Eguraldia ere hitz egin du. Eguzkia faltan igartzen badu ere, elurra ikusi gura duela esan du: "Ez dut sekula ikusi elurra", dio. Negua iristen den bitartean, hondartzara joaten da Rodriguez: "Ez naiz itsasoan sartu, ura izoztuta dago-eta".

Euskarari dagokionez, "oso zaila" iruditzen zaiola dio; edozelan ere, bikotekidearen senideek zertxobait irakasten diotela gaineratu du.

bere ustez



Iñigo Garitano

Elkarlanaren aldeko apustua

Udal agintari berriei gauza asko eskatuko nizkien. Baino merezi dute aurrez Udalaren egoeraz jabetzea. Are gehiago joan diren eta etorri berri direnen artean izaaten den komunikazio eza konutuan izanik. Ulergaitza egiten zait egoera hori.

Udal mailan, tamalez, beste administrazio batzuetako eskemek funtzionatzen dute: Gobernua-oposizioa dialektika adibidez. Noizbait gainditu beharko da. Udal gestioa udalextetik kanpora irekitza ezinbesteko da, talde, era-

**"Udal gestioa
udaletxetik
kanpora ireki behar
da, parte-hartzea
bultzatuz"**

kunde eta pertsonen parte-hartzea bultzatuz, baina hau-tauak izan diren guztiee irekitza ere.

Pentsatu nahi dut zinegotzi guztien artean egongo dela gaitasuna herriaren alde lan egiteko, eta beren ekarpenak aberastu egingo luketela udal gestioa. Egungo eskemak dakarrena da gaitasunak ez aprobetxatzea, denbora gal-tzea, sasi-politika..., eta horrek ez dute Bergarak behar duen bultzada ematen lagunduko.

Ez da erraza egun batetik bestera funtzionamendu ireki baten aritza. Baino aurreko 16 urteetan egin nahi izan ez denez, nahiko nuke udalean sartu den aire freskoak apustu hori egitea. Elkarlana, zergatik ez, udalean ere praktikatzea. Argi da.

Lanbide Heziketaren ibilibidea

Ondoko irudia Bergarako Elementala: 75 urteko ibilibidea liburutik hartuta dago. Ezkerretik eskumara, Andoni Romaratezaba-la, Anaje Narbaiza, Juan Mari Retes, Joxan Arteaga, Juan Gallastegi eta Iñaki Eguren azaltzen dira. Makurtuta dagoena ezezaguna da. Juan Gallastegi 1970etik 1983ra bitartean Elementaleko zuzendarria izan zen.

Argazkia: 'Bergarako Elementala' liburua
Informazioa: Bergarako Elementala
Urtea: 1976-77 ikasturtea



BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untzia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

MUJIIKA BURDINDEGIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITAREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

U
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE



AZKARATE AROZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

Arotz lanetan behar duzun guztia

Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak
Parketak • Sukaldeak

www.goiena.net/blogak/azkarate



BIDEGORRIA Eskoriatzara bidean dagoen bidegorri tarteak konpontzen langileak, eta oinezko bat nondik pasa daitekeen begira.

M.A.

LANAK > BIDEGORRIA

Eskoriatzaranzko bidegorria egiten

Drainatze lanak egingo dituzte, zoladura egokitu eta behar bezalako argiteria sistema jarri

Lanok iraun bitartean eta batez ere lanean dabiltzanean kontu handiz ibili behar dute oinezkoek

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Joan zen astean hasi zituzten bidegorriko lanak Eskoriatzara bidean. Aldundi Garapen Iraunkorraren ardurapean daude, eta hamar astean bukatuko dituzte, ezustekorik ez badago.

UDAZKENERAKO BUKATUTA
Herriko bidegorria bukatuta egongo da udazkenerako. Bi tarte daude egiteko, eta dagoeneko bietan dabiltza lanean. Azkena hasi dutena hegoaldeko sarrerako da, Eskoriatzara bidean dago-

en tuneletik mugainoko tarteak. Probisa, Tecnologia y Construcion SA enpresari esleitu zizkion lanok Aldundiak, eta bertako hondeatze-makina dabil lurzorua egokitzen. Drainatze lanak egingo dituzte, zoladura egokitu eta behar bezalako argiteria sistema jarri, Garapen Iraunkorrek Saitetik adierazi dugutenez. Lanok 101.266 euroko aurrekontua daukate, eta hamar bat aste iraungo dute; hortaz, udazkena datorrenerako bukatuta egongo dira, aparteko ezustekorik sortzen ez bazaie langileei.

OINEZKOAK, KONTUZ
Lanek iraun bitartean oinezkoek kontu handiz pasatu behar dute, batez ere lanean dabiltzan bitartean. Eguraldia lagun, oinez, arineketan zein bizikletan herritar asko ibiltzen da Eskoriatzarantz joan-otorrian, eta batzuetan itxi egiten dute tarteak, lanak egiteko.

Egiten dabiltzan beste bidegorri tarteak Arrasatera bidean dago, CVL lantegitik aurrera. Ekainean hasi zituzten lanok eta han guztiz itxi zuten oinezkoen-dako pasabidea. Hala ere, herri-

tarrak ohitura daude oinez joaten Arrasatera, eta errepide nagusian zein Aretxabaletako iparraldeko sarrerako errepidean ibiltzen dira, oso arriskutsua izan arren. Tarte horretako lanak zailagoak dira, Deba ibaian sartuta lan egin behar dutelako langile eta hondeatze-makinek. Hala ere, eguraldia lagun, hamar astean bukatzea aurreikusita dute.

Bestalde, herritik pasatzen den bidegorri tartean zutikako seinaleak jarri dituzte. Seinaleok oinezko eta bizikletek batera ibili behar dutela adierazten dute.

ELKARTASUNA > SAHARARRAK GUREAN

Saharako mutiko bi iritsiko dira gurera datorren astean

7 eta 9 urte dituzte umeok, eta Aaiunen dagoen kanpamendutik dator bat eta Dajlatik bestea


M.A. > ARETXABAleta
Saharako ia 500 neska-mutiko etorriko dira datozen egunotan Euskal Herrira, Oporrak Baken egitasmoaren barruan. Aretxabaletara mutiko bi datozen, eta gure artean egingo dituzte hurrengo bi hilabeteak.

BIZI BALDINTZA PENAGARRIAK
7 eta 9 urte dituzte mutikoek; eta kanpamendu ezberdinaren bizi dira. Bata Saharako mendebaldean dagoen Aaiunen eta bestea, Dajlan, Aaiundik 550 kilometro hego-aldera.

Datorren martitzen eta eguztenean iritsiko dira Loiuko aireportura, eta etxearen hartuko dituzten familiak irrikaz daudela adierazi digu Iesbaa elkarteko Olaia Sagredok. Gurera datozen ume horien bizi baldintzen berri ere eman digu: "45 eta 50 graduko tenperaturak jasan behar dituzte uda partearen, kanpamenduetan. Eta

bizi baldintza benetan penagarrriak dituzte Saharako desertuan. Nazioarteko laguntzari esker egiten dute aurrera, eta esan behar da hori ere gero eta gutxiago jasotzen dutela", azaldu digu Sagredok, eta gaineratu du: "Hona datoz umeek zein zoriontsu diren oso gutxirekin erakusten digute, eta Sahara askearen alde borrokan jarraitzeko eskatzen".

Uztailaren 15ean ongi torri festa egingo diete Estibalitzan. Eta umeek alde egin aurretik, irailaren 1ean, Sahararendako autodeterminazioa eskatzeko ekitaldia egingo dute Bilbon.



UMEAK Saharako umeak kanpamendu batean.

IESBAA

KIROLAK > UDAKO KANPAINA

150 gaztetxotik gora uztailean kirola egiten

Uztailaren 20a bitartean ibiliko dira, eta asteka antolatu dituzte txandak; horregatik, izena eman daiteke oraindik uztaileko bi asteetarako

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Dagoeneko 151 neska-mutikok eman du izena Kirol Sailak antolatutako udako kanpainan. Hala ere, oraindik badago aukera uztailaren 20a bitartean kirola egiteko.

PATINAJEA, ARRAKASTATSUENA
5 eta 12 urte arteko neska-mutikoak dabilta kirola egiten Kirol Sailari esker. Udalak orain dela hiru urte zerbitzua esleitu zion Goienae sport enpresa da jarduerok ematen dabilena. Iaz 137 gaztetxok jardun zuen, eta aurten 151 dira bigarren astetako; hortaz, antolatzaleak oso pozik daude jasotako emaitzarekin: "Iazk datuak gainditu ditugu, eta pozik gaude partaidetzari dagokionean", adierazi digu Asier Muxikak, Kirol teknikariak.

Eskaera handia izan dute eskainitako kirol gehientsuenek, baina patinajea izan da izarra, 71 lagunek eman du izena. Tenisean eta minitenisean 41 dabilta, multikirolean 25, batera eskaini duten igeriketa eta psikomotrizitatean beste 25, eta antzeko zenbakiak gainerakoan ere.

Eskainitako artetik bi kirol geratu dira egin barik: piraguismoa eta aerobika: "Piraguismoa ezin izan dugu eman Ur Partzuergoak ez digulako baimenik eman. Erabakia prebentzio moduan hartu dute, zebra muskuiluaren arazoak dela-eta", azaldu du Muxikak.

Aerobikaren kasuan, eta ezohikoa bada ere, ezin izan dute lako taldea sortu bota dute atzea jarduera, "ez da izen ematerik egon eta".



TENISA Neska-mutikoak tenisean zelan jokatu ikasten kirol etxeko kantxan.

M.A.

ANTOLATZE LAN ZAILA

Aurtengo berrikuntzarik handiena lau txanda egitea izan da, astero txanda bat. Seguru asko horixe izan da izenemateak gora egiteko arrazoi bat, baina anto-

latzaileei lan handiagoa ekarri die: "Lau txanda eskaintzerakoan askotxo konplikatu zaizkigu antolakuntza lanak. Ikasleak asko banatu dira eta taldeak sortzeko kopuruak lortu ezinik

ibili gara zenbait kiroletan", bukatu du Muxikak. Orain arte moduan, datozen bi asteotan ere kirol etxea bete egingo da kirola egin gura duten neska-mutikoz.

Giroa bero-bero asteon hasitako areto futbol txapelketan

Zortzi taldek hasi zuten, astelehenean, Loramendi EEk eta Arlutzek antolatutako areto futbol txapelketa, eta giro paregabea izan da lehen partiduetan: "Pike sanoa", antolatzaleen esanetan. Astelehen, eguzteten eta egubakoitzetan jokatzen dute Arlutz osteko kantxan, eta emaitzak udaletxe zaharreko argibide-taulan daude jarrita.



> KIROLA Urteko batzar orokorra egingo du gaur UDAk

Aretxabaleta kirol elkartearak, UDAk, batzar orokorra egingo du gaur, egubakoitz, 18:30ean, udaletxe zaharrean.

Lehenengo, aurreko batzarreko akta onartzea proposatuko du zuzendaritzak. Ondoren, 2006-2007 denboraldiaren eta diru kontuen berri emango dute batzordeko kideek, eta 2007-2008 denboraldia aurkeztu, diru kontuekin batera. Batzarrera joandako baziodeek zuzendaritzat batzorde berria hautatuko dute gero, eta galdera eta eskerak eginda bukatuko dute batzar orokorra.

EZKUTU TABERNA

ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

TABERNA

TRLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABAleta • TEL. 943 79 32 34

JON DíAZ

Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABAleta

> ZINEMA

'Nomadak TX' filma emango dute gaur, 22:30ean, plazan

Gaur, egubakoitza, hasiko ditu Kultura Sailak uztaileko film emanaldiak. 22:30ean izango dira guztiak, Herriko Plazan, eta eguraldiak lagundu ezean bertan behera gera daitezke emanaldiok.

Nomadak TX filma eskainiko dute gaur. Oreka TX txalaparta taldeak instrumentuekin batera munduan egindako bidaia kontatzen du; India, Laponia, Mongolia eta Saharako musikariekin jardun zuten. Hainbat zinemalditan aipamen bereziak jaso ditu film euskaldunak.

> OSPAKIZUNA

Martitzenean meza Larrino auzoan, San Kristobalen omenez

San Kristobal eguna da martitzenean, hilak 10, eta Larriño auzoan zaindari dute santuua. Horregatik, gogoan izango dute martitzenean, hainbat ekitaldirekin: 19:30ean meza eta ostean mokadutxoa.

Larrinon bertan dagoen gastronomia elkartea ere San Kristobal dauka izena, eta santuaren egunaren inguruau jaia antolatzen dute. Aurtzen, datorren zapatauan egingo dute, hilak 14; 17:30ean umeendako jolasak eta 19:00etan txokolate beroa.

> IRTEERA

Islara antolatu du irteera Zaraia Mendizale Taldeak

Denboraldia bukatzeko, mendira beharrean hondartzara egingo du irteera Zaraia Mendizale Taldeak. Kantabrian dagoen Isla herrira joango dira uztailaren 21ean, zapatua. Taldeko baziak 20 euroren truke izango dute bidaia eta baziaria, eta baziak ez direnek 23 euro ordainduta.

Interesatuak Zaraia taldeko kideren batekin jar daitezela harremanetan izena aurrez emateko.

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

MEXIKO ETA PORTUGAL AURKARI 1994an jaiotako mutikoek osatzen dute Azkar Baster Alde taldea. Behin futbol denboraldia bukatuta, beste txapelketa batzuk jokatzeko aukerari ez diote ezeztik esan, eta Gasteizen izango dira domekak aurrera. 1993an eta 1994an jaiotakoekin multzo bat osatu dute Gasteiz Cup txa-

mingainari tiraka

Larraitz Garai > Poxpolin aisiaaldi taldeko kidea

"200 bat neska-mutiko dabiltza udalekuetan"

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Maider Revalo eta Lur Delgadorekin batera udaleku irekietako zuzendaritzat batzordeko kidea da. 200 neska-mutiko hasi ziren astelehenean herriko udalekuetan.

Lehenengo aldiz zabiltza udalekuak antolatzen?

Bai. Aurretik begirale ibilitakoa naiz hiru urtean.

Eta zelako esperientzia izan zen?

Oso ona. Adin tarte ezberdinako neska-mutikoak izan nituen eta guztiak oso gustura ibili nintzen.

Zein da zuzendaritzat batzordeareen lana?

Udalekuak antolatzea: materiala gertatu eta behar izanez gero erosoi, irteeran lagundu, Galartzara gaua pasatzera joaten direnei baziaria eta aferia egin... Eta ebaluazioak egin; egunero ebaluatzen dugu zela doazen udalekuak.

Berrikuntzarik badago aurten?

Zuzendaritzari dagokionez, ardurak ez ditugula banatu aipatuko nuke; taldean egingo dugu lan hiru-rok. Eta neska-mutikoei begira, nagusienek irteera asko egingo dituztela da berrikuntza: eguneko irteerak, kanpaldiak... Egia esan, oraindik ez dugu erabaki nora joango diren, baina egiteko asmoa badugu.



Zein adin tarteko neska-mutikoak dabiltza?

3 urtetik hasi eta 14 urte artekoak. DBHko 1. eta 2. mailetakoak, hau da, nagusienak, elkarrekin daude.

Eta zein adin tarte da zailena?

Ez dakit ba... Nagusienak ez aspertzeko irteerak egin behar ditugu; txikienak, ostera, antolatzea da zaila, baina gero edozein jolasekin oso gustura egoten dira.

Antolakuntzari dagokionez, zer da zailena?

Irteera asko batera egokitzen dira eta guztieta iristeko larri ibiltzen gara. Bestalde, irteerak antolatu eta gero eguraldi eskasa egitea ez da batere atsegina; beste aukera batzuk bilatu behar dira halakoetan...

Zein ekitaldi dira arrakastatsuenak?

Lehen esandako moduan, irteerak. Horiez gain, azken eguneko jaialdia emozio handiz gertatzen dute, eta San Fermin eguna ere polita da. Jaialdia guztiak egubakoitzetan egingo ditugu.

Eta kamiseta zelakoa izango da?

Ia kolore guztiak erabilita daude, bi bakarrik geratzen dira eta bat ezin zuten lortu iraila arte kamisetak egiten dituztenek; hortaz, bestea hartzar behar. Baliteke txikienei ez gustatzea askorik...

KIROLAK > FUTBOLA

Gasteiz Cup txapelketa jokatuko du Azkar Baster Alde taldeak hilaren 8tik 14ra

Portugalgo, Mexikoko eta Gasteizko taldeek osatzen dute aretxabaletarren multzoa, eta lehen partidua etzi daukate

M.A. > ARETXABAleta

Domekan hasi eta hilaren 14an bukatuko den Gasteiz Cup nazionalen arteko futbol txapelketan hartuko du parte Aretxabaletako Azkar Baster Alde izeneko taldeak. Infantil txiki mailan jokatzen duen taldeko kideak lehenengoz doaz guztiak elkarrekin.



INFANTIL TXIKI MAILA 1994an jaiotako mutikoek osatutako taldea Ibarra futbol zelaian.

X.A.

pelketan. Hala, urtebetetako nagusiagoak diren mutikoen aurka jokatu beharko dute, eta adin horretan asko igartzen dela adierazi digu jokalari baten aitak: "Talde txukuna da gurea, eta mutikoek borrokan egingo dute lehenengo fasea eta onenek gero final-aurrekoak eta finalak jokatuko

Lau talde daude aretxabaletarren multzoan: Portugalik etorritako Senhora Da Hora, Mexikoko Herradura, Gasteizko San Ignacio B eta Azkar Baster Alde.

Jokalarien gurasoek eskerrik eman gura dizkiote Baster Alde jatetxeari, taldea babestu duelako.

NATURA > NATUR ESKOLAREN ETA TURISMO BULEGOAREN ARTEKO ELKARLANA

Orkatzategiko hegaztiak ikusiko dituzte lehen natura ibilbidean

Komeni da izena turismo bulegoan ematea; batzuek eman dute abuztuko irteeretara joateko

Ibilbideak egun erdikoak eta errazak dira; Arrikutzeko aparkalekutik abiatuko dira denak

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Orkatzategiko hegazti kolonia ikusteko irteera egingo dute zapaturan, bihar. Horixe izango da aurtengo udarako prestatu dituzten natura ibilbideetan lehena.


Aurten ere natura irteerak prestatu dituzte natura eskolak eta turismo bulegoak uztailera eta abuzturako. Guztira sei natura ibilbide antolatu dituzte, baina irteerak gehiago dira, ibilbide batzuk bi aldiz egingo dituzte eta.

ARRIKUTZETIK

Lehenengo irteera zapatuan egingo dute, Orkatzategiko hegazti kolonia ikustera. Lau orduko

ibilbide erraza da, eta saiak, belatzak eta beste hegazti batzuk iku si ahal izango dira. Iturrigorriko basoa, uraren ibilbidea, koba zuloak eta mendiko larreak eta artzaintza dira antolatu dituzten beste ibilbide batzuk. Irteera horietara jateko, komeni da iza na ematea turismo bulegoan; batzuk, dagoeneko, apuntatu dira abuztuan egingo dituzten irteeretan parte hartzeko.

Irteera guztiak egun erdikoak dira, eta ez dute zailtasunik. Bost euro da prezioa, baina ume endako prezio bereziak daude. Irteera guztiak Arrikutzeko aparkalekutik abiatuko dira.



IRTEERA Uztailean eta abuztuko asteburuetan dira natura irteerak.

GOIENKARIA



JOKALARIAK Ane Herrero eta Kepa Zelaia.



ALOÑA MENDI

KIROLA > ALOÑA MENDIKO ESKUBALOIA

Espainiako selekziora doaz eskubaloiko bi jokalari

Ander Ugartek, bestalde, Gipuzkoako golegile onenaren saria jasoko du gaur Donostian

O.E. > OÑATI

Aloña Mendi eskubaloit sailko bi jokalari Espainiako selekziora doaz. Ane Herrero eta Kepa Zelaia Espainiako selekzioarekin izango dira hilabete honetan, uztailean.

ERRIOXAN ETA SORIAN

Nor bere kategoriako beste jokalari batzuekin egongo da. Hain zuzen ere, Ane Herrero promes kategoriak deitura joango da. Errioxako Lardero herrian egongo da uztailaren

22tik 29ra bitartean. Entrena menduak egingo ditu hantxe, beste jokalari batzuekin batera. Kepa Zelaia, aldiz, Sorian dago aste honetan; uztailaren 2tik 9ra.

GOLEGILE ONENA

Bestalde, gazte mailako Ander Ugarte jokalariak 2006-2007 denboraldiko golegile onenaren saria jasoko du gaur, egubakoitza. Eta Donostiako Txuri-Urdinen egingo dute sari banaketa.

> ETXEBIZITZAK
Martitzenean da Ugarkaldeko etxebizitzentzozketa

Martitzenean, uztailak 10, zozketatuko dituzte Ugarkaldeko babes ofizialeko 40 etxebizitza. Zubikoa kiroldegiko frontoian egingo dute zozketa hori, 17:30ean. Lehen promozioko etxeen zozketa era bilitako sistema bera erabili dute: zerrendako zenbak bat atera eta etxeak esleitzten hasi. Etxea eskuratzetan dute nek aurkeztu behar duten dokumentazioa eta epeak Santa Anako zerrendetan agertzen dira.

> OSOKO BILKURA
Hurrengo egunean egingo dute lehen osoko bilkura

Datorren egunean, uztailak 12, egingo dute agintaldi berriko lehen osoko bilkura. Hantxe jakin da zein zinegotzik ze ardura hartzentzen datuen datoren lau urteotarako. Bestalde, Udaletik kanpoko erakundeetako ordezkariek ere egue nean izendatuko dituztela espero da.

EAE-ANVik, berri z, gobernu osatzeko proposamena egingo die gainerako alderdi politikoei.

> MENDIKO ASEGURUA
Mendiko asegurua tramatutako du Aloña Mendik

banatzen ditu egun horretan Mapfrek. Urte barruan lortutako etekin onenen artean banatzen dituzte sari horiek. Aurten, lehenengo aldiz, pertsona bati lotutako sari berezia eman du; ez poliza edo aseguru gehien saltze agatik, lanari eskainitako dedikazioagatik baizik. Jose Mari Altuberi eman diote sari hori. Ia 2.000 lagun zeuden ekitaldian eta inork ez zekien sari hori emanago zutenik. Jose Marik eta emazteak ere "sorpresa" hartu zuten Altuberen izena entzutean.

Jose Mari Altube Mapfrek Oñatin duen delegatua da eta 37 urte daramatzera. Altube Zerbitzuak bulegoan lanean. Bost lagunek egiten dute lana han.

SARIA > VENEZIAKO EKITALDIAN

Jose Mari Altube saritu du Mapfrek, egindako lanagatik

Lehenengo aldiz eman du aurten Mapfrek Urrezko Hirusta izeneko saria

O.E. > OÑATI

Mapfrek Jose Mari Altube sari tu du, bizitza profesionalari eskainitako lanagatik eta bezeroei emandako tratuagatik. Mapfre aseguru etxeak lehenengo aldiz eman du aurten Urrezko Hirusta saria.

VENEZIAKO EKITALDIAN

Mapfrek Venezian egin zuen pasa den maiatzaren 12an urtero egiten duen ekitaldia. Hainbat sari

Udako oporei begira, mendi asegurua tramatutako du Aloña Mendik. Uztailaren 11, eguna, da hori egiteko eguna, Aloña Mendiko bulegoan, 19:30etik 21:00etara. Eraman beharrekoak: NA eta bankuko kontu korrontearen 20 digituak. Dagoeneko federatuta dagoenak eta aldaketa taren bat egin gura duenak ere egun eta ordu horretan joan behar du Aloña Mendiko bulegoetara. Oporrak har tutu dituztela gero.

> HITZALDIA
Hitzaldia antolatu du ezker abertzaleak martitzenerako

Oñatiko ezker abertzaleak hitzaldi bat antolatu du hurrengo asterako. Martitzenean egingo dute, uztailaren 10ean. Hauxe da hitzaldia gaia: Konponbidea gure esku. Lau herrialdeetako autonoma. Erabakitzeko eskubidea. Hitzaldia kultura etxeen izango da, 19:00etan. Hitzaldia mahai nazionaleko kide batek emango du, izena zehaztu barik duten arren.



SARIA Jose Manuel Martinez Mapfreko presidenteak Altuberi saria ematen.

MAPFRE

LEHIAKETA > LEINTZ IBARRAUNDI FUNDAZIOAREN LOGOTIPO LEHIAKETA

Leintz Ibarraundi Fundazioaren logotipoa aukeratzeko lehiaketa

Hilaren 18a da lanak aurkezteko azkeneko eguna, eta 2.000 euro da saria

Leintz Ibarraundi Fundazioak ibarreko ondarea kudeatzeko helburua dauka

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Leintz Ibarraundi Fundazioak, Leintz ibarreko kultura eta eazgutzaren gune eragile berria izango denak, logotipo lehiaketa deialdia ireki du. Lehiaketaren helburua da aipatutako fundazioaren logotipoa aukeratzea.

Deialdia diseinu grafikoan diharduten aditu eta profesionalei zuzenduta dago, eta Ibarreko edozeinek parte hartu ahal du.

HILAREN 18RAKO AURKEZTU

Logotipoak hilaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dira. Hain zuzen ere, egun horretako 14:00etan bukatuko da lanak aurkezteko epea. Interesatuek honako helbidera bidali beharko dituzte: Ibarraundi jauregia, Intxaertxueta jauregia, Intxaertxueta z/g, 20540, Eskoriatza.



IBARRAUNDI MUSEOA Museotik abiatuta, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagan lan egingo du.

IKER BARANDIARAN

Leintz Ibarraundi Fundazioak euskal kulturaren aldaketaren adierazpena, hausnarketa eta azterketa gunea izan gura du, eta, betiere, komunitatearen gara-

pen kulturalean eragina izanda. Ikerketa, saiakuntza eta berrikuntzatik bertakoa pizteko helburua du. Modu berean, ondarea kudeatuko duen kultura eta

dibulgazio gune bizia, gaur egungoa, berritzalea eta originala izatea du helburu. Horretarako, Eskoriatzako Udalaz eta herriko hainbat enpresaz gain, Aretxaba-

letako eta Leintz Gatzagako udalen eta herri horietako enpresa eta erakundeen elkarlana lortzeko ahaleginean dihardu.

2.000 EUROKO SARIA

Logotipo proposamenen ebauziorako honako berezitasunak hartuko dira kontuan: erabilako formen itxura berritzalea, Leintz Ibarraundi Fundazioaren helburuen adierazle izatea, logotipoa fundazioaren izenarekin modu egokian integratzea, originaltasuna eta konposizioaren kalitatea eta adierazgarritasuna, hain zuzen ere.

Parte-hartzaile bakoitzak gura dituen proposamen guztiak aurkeztu ahal izango ditu; eta horiek guztiak CD-ROM formatuan eta paperean, bietan, aurkeztu beharko dira.

Identifikazioa errazteko, parte-hartzaileek *Leintz Ibarraundi Fundazioaren logotipo lehiaketa* idatzita gutun-azalean sartu beharko dute sortutako proposamena.

Epaimahaia Leintz Ibarraundi Fundazioaren gobernu organoak eta zuzendariak osatuko dute. Erabakia hartzeko gehienago simplea nahikoia izango da.

Antolatzaleek 2.000 euroko sari bakarra emango dute. Dena dela, epaimahaieren erabakiz saria esleitu barik gera daitekeela jakinarazi dute.

JAIAK > SAN PEDRO JAIAK

Oso harrera ona izan dute aurtengo San Pedro jaiek

Murphy magoaren ikuskizuna eta Des+Karadas taldearen kontzertua, arrakastatsuenak

I.B. > ESKORIATZA

San Pedroak antolatzeko ardua duen Kultura azpibatzordea eguztenean, hilaren 11n, bantzartuko da jaien balorazioa egiteko. Horren harira, Udaleko Kultura batzordetik jakinarazi digute batzarra irekia dela eta edozein herritarrek esku hardezakeela.

EKITALDIK, ARRAKASTATSUAK

Bestalde, balorazio ofizialik egin artean, Udaleko Kultura teknikari Arantza Untzuetak nabarmendu du jaiak oso ondo joan direla, eta ekitaldi ia guztiak oso arrakastatsuak izan direla: "Dantza taldeak etorri ezin izan zirelako,

azken orduko hainbat aldaketa egin behar izan genituen, eta agian horregatik Korrontzi taldearen kontzertua ikustera jende gutxi gerturatu zen".

Bestela, gainontzeko ekitaldiak jende ugari ibili zen. Horien artean, Untzuetak azpimarratu zituen Murphy magoaren ikuskizuna eta Des+Karadas musika taldearen kontzertua, hain zuzen ere. "Bietan jendez lepo egon ziren ikuskizunak, eta jendeak asko gozatu zuen".

Eguraldia ere lagun izan dute la nabarmendu zuen Untzuetak. Hala, Euskal Jai Egunkero herri bazkaria egiteko zalantzan ibili ziren, baina azkenean egural-

diak ez zien kalterik egin. Hala, 400 herritarrek esku hartu zuten herri bazkarian.

KANTU TXAPELKETA ITZELA

Euskal Jai Egunkarekin jarraituta, aurten lehenengo aldiriz kantu txapelketa antolatu zuten, eta harrera izugarria izan zela jakinarazi zuten: "Herritar ugari apuntatu ziren txapelketan, eta plaza jendez beteta egon zen; giroa ere ikusgarria izan zen. Azkenean, Txistularien taldea nagusitu zen, desberdintzean Camilaren taldearen aurrean".

Kart autoen zirkuituak ere harrera oso ona izan zuen, baina antolatzaleek 10 urtean mugatu zuten. Datorren urtean, txikieneko beste zerbaitek ekarriko dute. Txosnagunenari dagokio, egunez zein gauez jende asko ibili da ekintzetan zein bestela.



MAHAIAREN BUELTAÑ 400 bat lagun bat ziren herri bazkarian. JOSETXO ARANTZABAL

> ELKARTASUNA
Afrikara eramateko arropa eta eskola material bilketa

Afriki kultura elkartea abuzturako Burkina Fasora kultura bidaia antolatu du. Bidaia hori aprobetxatuta, Eskoriatzan eskolako materiala eta arropa batu gura dituzte. Hala, material hori guztiori Burkina Fasoko umei bideratu gura diente. Antolatzaleek esan digutenez, Afrikako herrialde horretako umeek premia handia dute.

Burkina Fasoko umeendako materiala emateko asmoa dutenek Eskoriatzako kultura etxera jo beharko dute astelhenetik (hilaren 9a) egubakoitzera (hilaren 13a) bitartean. 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 19:00etara egingo diente harrera emaileei.

> AITZORROTZ
Aitzorrotz kultura elkartearren uztaileko programazioa

Datorren astebururako Aitzorrotz kultura elkartea garagardo jaietako antolatu du Inkernu tabernan. Horrekin batera, asteburu berean dardo txapelketa ere egingo dute.

Hilaren 21ean, berriz, El Quinteto de la Muerte taldeak kontzertua egingo du Inkernun. Talde gasteiztar horrek funka eta groovea egiten du, teklatu, saxo eta tronboarekin lagunduta.

Hilabeteko ekitaldiekin bukatzekeo, Aitzorrotz kultura elkartea IV. Postal Lehiaketa antolatu du. Uztaila eta abuztua bitartean Inkernu tabernan jasotako postalen artean (Hidalgo kalea 5) zoketa egingo dute. Irabazleak afari bat egingo du herriko jatetxe baten.

> LEHIAKETA
Jaietako umeen margo lehiaketa arrakastatsua

San Pedro jaietarako Udaleko Gazteria Zerbitzuak ume eta gaztetxoiei zuzendutako margo lehiaketa antolatu zuen. Hala, 3 eta 12 urte bitarteko 87 eskoriatzarrek esku hartu zuten lehiaketan.

Margotzerakoan antolatzaleek honako gaia jarri zieten ardatz: Eskoriatzako San Pedroko.

Gustura ibili ziren gaztetxoenak margotzen, eta honako hauek izan ziren irabazleak: 3 eta 4 urte bitarteko artean Danel Sierra; 5 eta 6 urte bitarteko artean Xabier Ugalde; 7 eta 9 urte artekoetan dagokienez, Leire Sierra izan zen txapelduna; eta 10 eta 12 urte bitartekoetan dagokienez, Ekain.

Barua Banda > Musika taldea

"Adin eta gustuei dagokienez, musika esparrua zabaldu dugu"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Joan den egubakoitzean, San Pedro jaietan, Barua Banda talde eskoriatzak berriak kontzertua egin zuen txosnagunean. Besteak beste SS-77, Lukas Prest, Honky Tonks eta Eskoriatzako Txistularien Bandan aritutako lau eskoriatzarrek osatzen dute talde hori. Ezohiko eskauntza da eurena, soinuz eta formatuz oso irekia, eta oso gogotsu daude.

Noiz eta zelan sortu zen Barua Banda?

Andoni Bengoa: 2006ko urrian Iñaki Kortazar bateria jotzailea eta neuk abeslaria eta gitarra jotzailea entseautzen hasi ginen, neuk etxean gordeta neuzkan abestiekkin. Horren ostean, Gari Kortazar batu zitzaigun saxoa jotzen, eta gerora, Andoni Zubiaaga baxua jotzen hasi zen gurekin.

Iñaki Kortazar: Banekien Andonik aspaldi idatzitako kantru asko zeuskala etxean gordeta, eta behin horren gainean berbertain hasita, zerbait egiteko-edo konbentzitu nuen.

A.B.: Aspaldiko kantu zirriborroak dira, baina azken bizpahiri urteotan haien borobilten ibili naiz.

Eta izenak zer esanahi dauka? Nondik hartz duzue?

A.B.: Eskoriatzako toponimiatik hartz dugu. Bolibarko Garmena baseriaren aurrean dagoen zelaia da Barua. Lehenengo kontzertua egin aurretik, azkeneko orduan toponimiaren zerrendari begira egon ginen, eta hori aukeratu genuen.

Aipatu duzu kantuak borobilten zabiltzala. Dagoeneko bukatuta daude?

A.B.: Ez. Uneoro borobilten gabiltza. Gainera, musikari bakotzak bere ukita propioa ematen dio, eta abestiak etengabe garatuz doaz. Iñakik eta Andoni Zubiaagak, esaterako, gogortu egin dituzte kantuok.

Andoni Zubiaaga: Oso aberasgarria da, eta uneoro irabazten doaz. Oraindik ez dakigu zenbat



Ezkerretik esku marratik, Gari Kortazar, Iñaki Kortazar, behean Andoni Bengoa eta Andoni Zubiaaga goian.

IKER BARANDIARAN

"Izena Eskoriatzako toponimiatik hartz dugu; Bolibarko zelai baten izena da"

hobetuko duten, baina itxura polita hartzen dabilta.

Punk eta metal tradizioarekin apurtu, eta beste mota bateko kantuak egin dituzue...

Gari Kortazar: Musika esparrua zabaltzen dugula uste dugu, adin eta gustuei dagokienez. Pop, folk, rock-and-roll egitura batzuk ere bai... Abesti lasaiak, biziagoak... Horrez gain, Andonik abesteko modu oso berezia dauka, eta hitzak oso onak direla uste dugu. Originala dela uste dugu.

Saxoa taldearen soinuan hain barneratuta egotea ere ez da ohikoena, ezta?

A.B.: Hasieran ez genekien saxoak zelako jokoa emango zuen

"Kantuak Bengoaren aspaldiko zirriborroak dira, azken urteotan borbildu dituenak"

abestietan, baina oso gustura gaude, Garik asko lagundu due-lako kantuak soinua aberasten eta kantuak berotasun berezia bemanen.

I.K.: Are gehiago, kantu batzuetan gaitza izaten da saxoa sartzea, baina Andonik idatzitakoetan halako joko asko emateko aukera dago.

Zelakoak dira orain zuzenean jotzen dituzten kantuak hitzak, zer kontatzen dute?

Guztiak: Oso originalak dira, eta oso ondo idatzita daude. Andonik gauzak kontatzeko oso modu berezia dauka.

A.B.: Gehienak kontu personalen gaineakoak dira; beste batzuk gizarte arazoen gaineakoak; eta baita une konkretueta-

ko biziaren gaineakoak ere. Hasieran lotsatu egiten nintzen horiek abesten, kantuak batzuk nahiko pertsonalak direnako.

Bestalde, garrantzia ematen diot kontatzen dudanari, nik ere beste talde batzuk entzutean gus-tuko izaten dut-eta.

Dagoeneko bi kontzertu egin dituzue. Orain arte ikusi eta entzun ez duenak zer aurkituko du zuen zuzenean?

A.B.: Guk oso ondo pasatzen dugu, nahiz eta jakin oraindik mugatuta gaudela. Orain arte bi emanaldi bakarrik egin ditugu: Aitzorrotz Kultura Elkartearren egunekoak, maiatzean; eta joan den egubakoitzean, jaietan, egindakoa. Lehena oso bitxia izan zen: adibidez, Jon Zubiaagak bezperan bakarrik entseaututa jo zuen gurekin...

G.K.: Egia esanda, ikusleak harrituta gelditzen dira, batez ere Andoni Bengoa abesten ikusita; berria da hori eurendako.



DE LA TORRE igeltserotza

*Erreformak orokorrean
Gremioen koordinazioa*

Intxaurtxeta 7 2-D
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27

UDALA > OSOKO BILKURA

Iragarri bezala, alkatearen soldata jaitsi du EAE-ANVk

Pedro Iturbek lan jardun osoa alkatezari dedikatza eta bere soldata gordina urtean 32.000 euro izatea onartu zuten

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA
 Eguaztenean egin zuten agintaldiko lehen osoko bilkura. Besteak beste, batzordeen banaketa zehaztu zuten, Gobernu batzordea eratzea onartu eta erabaki zuten aurrerantzean osoko bilkurak egitea hilabeteko lehenengo eguzatenetan, 18:00etan.

EAE-ANVko zinegotziek haritu dute zazpi batzordeetatik sei-ren ardura eta Zutik-EB-Aralar koalizioak zapigarrenarena.

NEGOZIAZIOEN ONDORIA
 Hauteskundeen ondoren, EAEko ordezkariek batzarra egin zituzten EAJko eta Zutik-EB-Aralar koalizioko ordezkariekin. Batzar horietako negoziazioen ondorio da batzordeen arduen banaketa. EAJk hasieratik argi laga zuen ez zuela ardura-k hartuko eta Gobernu batzordean ez zuela parte hartu nahi. Zutik-Ezker Batua-Aralar koalizioaren kasua bestelako da; negoziazioen ondorioz, batzorde bakarraren ardura hartu dute, nahiz eta Hirigintza batzordearena ere eskaini zion EAEk.



OSOKO BILKURA Udalbatza osatzen duten hamaika zinegotziak egin ziren.

A.I.

ALKATEAREN LAN JARDUNA

Alkatearen lan jardunaren eta haren soldataren gaineko puntuia izan zen eztabaideatuena. Pedro Iturbe alkate berriak lan jardun osoa dedikatuko dio alkatezari. EAE-ANV alderdiak aurreko astean iragarri bezala, alkatea-

ren soldata murriztu dute. Urtean 32.000 euro gordineko soldata izango du, lan jardun osoa dedikatuta. Aurreko alkateak 34.660 euroko soldata gordina zuen urtean, baina lan-jardunaren %75 dedikatzen zion Zabalok alkatezari.

Batzorde informatzaileen banaketa**BATZORDE INFORMATZAILEA**

Ogasuna eta Pertsonala
Hirigintza eta Zerbitzuak
Kultura
Euskara eta Hezkuntza
Kirolak eta Gazteria
Gizarte Ongizatea eta Osasuna
Nekazaritza eta Ingurumena

BATZORDEBURUA

Pedro Iturbe/EAE
Pedro Iturbe/EAE
Patxi Olabarria/EAE
Mari Paz Ugalde/EAE
Andoni Azkargorta/EAE
Mamen Jauregi/EAE
Jose Mari Iturbe/Zutik-EB-Aralar

ITURRIA: ANTZUOLAKO UDALA

> TXIRRINDULARITZA

Amateur mailako txirrindulariendako Antzuola saria jokatuko dute domekan, 09:30ean hasita

Antzuola sariaren LXII. eta Iñaki Leteren Oroimenezko XV. lasterketa jokatuko dute domekan, uztailak 8, 09:30ean hasita. 19 eta 20 urteko amateur mailako txirrindulariek parte hartuko dute eta 125 kilometroko ibilbidea prestatu du Aiastui Txirrindulari Elkarteak.

Antzuolatik abiatu eta Bergaratik pasatu eta gero, Oñatira iritsiko dira eta handik, berriro Antzuolara; bi aldiz egingo dute joan-etorri hori. Ondoren, Deskargatik (11:20) Udanara eta handik berriro Oñatira abiatuko dira; Oñatitik, Bergarara, Angiozarrera igo, Asentzio gainera ondoren (12:20) eta Elgetatik eta Bergaratik pasatu ondoren, Antzuolara iritsiko dira. Herriko Plazan amaituko da lasterketa 12:41 inguruan.



A.I.

Klakson taldea, berriro taula gainera

Gaur, egubakoitza, Mox tabernan egingo dute kontzertua, 23:00etan. Denboraldi batez kontzerturik egin barik egon eta gero, ekin diente berriro emanaldie. Berrituta datorkigu taldea: Mikel Bargiela da abeslari berria; Jon Gurutz Biteri da teklatu jotzailea; Zumarragakoak dira gainerako kideak: Asier Alkorta, Mikel Arriaran eta Jon Pinillos.

Laser bidezko depilazioa.
Informa Zalitez!

Ondo pasau jaixak!

Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

DESKARGA AUTOAK

Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!

**OKINDEGIA
GOXOTEGIA
DAZTAKETA
KROISSANTEGIA**

ALTZARTE

Kalebarren 18 • Tel.: 943 76 62 94 • Antzuola

Kalebarren janari-denda

Goretti eta Amaiak
jai zoriontsuak
opa dizkizue
herritar guztioi!

Kalebarren 11 ANTZUOLA Tel.: 649 662 791 / 675 701 347

Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!

Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tel.: 943 76 62 75

AISIALDIA > ZABALIK SEGITZEN DU BARDEKO BIZIKLETA IRTEERAN IZENA EMATEKO EPEA

Umeak gustura uztaileko aisialdi ekintzetan

Irakurzaletasuna bultzatzeko, Topaguneak uztailaren 21era arte luzatu du Udal Liburutegian 'Irakurri, Gozatu, Oparitu' izeneko programa

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Astelehena ezkerro 3-6 urte bitarteko dozena bat umetik gora dabil uztaileko aisialdi ekintzetan parte hartzen.

Ludotekan dute egunero hitzordua hiru begiralekin. 10:00etan elkartzen dira eta hiru orduz askotariko ekintzak egiten dituzte, euskaran. Udalak hilaren 20ra arte eskainiko du zerbitzua.

BTT IRTEERA AUKERAN

Egoki elkarreka uztailaren 12ra arte luzatu du Bardeko BTT irteeran izena emateko aukera. Txangoa uztailaren 15ean egindo dute eta dagoeneko sei lagunek eman dute izena. Bardean

40 kilometroko ibilbidea egingo dute parte-hartzaleek. Uztailaren 15ean 07:30ean abiatuko dira Herriko Plazatik. Bidaia auto partikularretan egingo dute, eta ekintza doan da.

IRAKURKETA BULTATZEKO

Opor egunok aproposak dira liburu on bat irakurtzeko. Hala, Topaguneak hilabetez luzatu du *Irakurri, Gozatu, Oparitu* kanpaina.

Liburuak erdi prezioan oparrizko aukera ematen duen kanpaina horrek arrakasta handia izan duela adierazi dute Topaguneak, baina ez da hori Elgetaren kasua: "Liburutegian kanpaina honetako 50 bat liburu ditugu eta

oso jende gutxik eskatu ditu", esan du Maria Elena Eztenaga liburuainak. "Elgetan oso gutxi dira euskaran irakurtzen duten helduak. Bik bakarrik hartu dute parte kanpaina honetan".

Eztenagaren esanetan, hauurrek euskaran liburu gehiago irakurtzen dituzte: "Egunotan asko etorri dira eskolan oporrotarako irakasleek gomendatutako liburu eske".

Kanpaina uztailaren 21era arte egongo da martxan; beraz, inor animatzen bada zabalik aurkituko ditu ateak. Liburutegian, gainera, Maria Elena Eztenagaz gain Geaxi Ezpeleta elgetarrak ere hartuko ditu herritarra.



L.Z.

Kalteak Ferixa Nagusiko jaietan

Bi semaforo eta lorontzi bat apurtu dituzte jaiegunotan Elgetan. Semaforoak Gudarien bidean eta kirolegi ondoan kokatuta daudenak dira. Kasu bietan, argi berdearen kristalak apurtu dituzte. Lorontzia, berriz, Salbador kaleko espaloian dago. Argi dago batzuek ez dakitela festa kalterik eragin gabe egiten.

> SALBADOR KALEKO LANAK

Uda ostera arte ez dituzte Salbador kaleko ur hornidura berritzeko lanak abiaraziko

Udalak ekainaren 20an Salbador kalean geratutako lanak ez dituzte uda ostera arte egingo. Lanotan, Ur Partzuergoak Salbador kaleko ur hornidura berritu behar du. Lan garrantzitsuak dira, eta Udal horiek nola egin aztertzen ari da. "Lanak zenbat fasetan egitea komeni den aztertzen ari gara", esan du Oxel Eros-tarbe alkateak. "Lanok ez dira uda ostera arte hasiko".

Salbador kaleko bizilagunek, beraz, lasai igaroko dituzte udako hilabeteak. Gogoratu behar da lanotan, Salbador kale erditik behar den tamainako ur hodia sartu behar dela eta etxe guztieta-ko ur hornidurarekin lotura berria egin.

> JAIEN BALORAZIOA

Eguaztenean, hilak 11, jaien balorazio bilera egingo dute, 20:00etan

Jai batzordeak eguztenerako, hilak 11, finkatu du balorazioa egiteko batzarra. Batzar irekia da eta nahi duen guztiak du bertan parte hartzeako aukera.

Batzar horretan, jaietako ekintza guztien errepasoa egingo dute eta bakoitzaren balorazioa hurrengo urteei begira.

> TXIRRINDULARITZA

Jone Muxika 9. sailkatu da Espainiako Txapelketan

Lehenengo aldia zuen elgetarrak Espainiako Txapelketan eta 9. amaitu zuen zapatuan Cuencan jokatutako proba. Ibilbideko 108 kilometroak egiteko 2:44:09 behar izan zituen. Maribel Moreno irabazoleak baino 1:38 minutu gehiago. Orain, Italiako Giroan da elgetarra.



Jone Muxika.

L.Z.

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

Etxeko berezitasuna:

Buztana eta txuleta (zaharrarena).

Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelehenetan eta martitzenetan itxita

Jai zoriontsuak guztioi!

Kalebarren 7. Tel.: 943 78 62 45 ANTZUOLA



Lantegia: Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35
ANTZUOLA

Jai zoriontsuak
antzular guztioi!

GARBIÑE ILE APAINDEGIA

Garbine eta Jaioneren izenean,
ZORIONAK!



Ondarra plaza 4
Tel.: 943 76 61 56
ANTZUOLA



Zorionak, antzuolar guztioi!

Bustinzuri 6 behe - 20577 Antzuola
Tel.: 943 78 62 69

Ongi etorri

J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak

Zatoz jaietan geurera!

Bustinzuri 5 Tel.: 943 76 63 49

JAIAK 07 > ARRANTZA LEHIAKETA

Arrantza lehiaketako amuarraínak gaur, barikua, askatuko dituzte

80 bat kilo amuarraín ekarriko dituzte Santikurutze-Kanpezutik; "bakarren bat kilo bateko, gainera", antolatzaleen esanetan

UBANE MADERA > ARAMAIO

San Martin jaien azkeneko ekitaldia bihar, zapatua, egingo dute: Oilogor Ehiza eta Arrantza Elkarteko antolatutako arrantza lehiaketa, hain zuzen ere.

Hala, gaur, barikua, ziren askatzeoak lehiaketa horretako protagonista nagusiak: amuarraínak. Guztira, 80 bat kilo, Santikurutze-Kanpezuko arrain-haztegik ekarritakoak.

TAMAINA HANDIKOAK

Gainera, aurten, amuarraín horietako batzuk eder askoak izango direla kontatu du Kristobal Goikoetxeak, Oilogor Ehiza eta Arrantza Elkarteko kideak: "Bakarren bat kilo bateko da, halakoak harrapatzek poz han-diagoa ematen du-eta".

Era berean, amuarraínak harrapatzeko "erraztasun" batzuk izango direla ere kontatu du hark: "Astebetean jaten eman barik izan dituzte amuarraínak; horrela, goseak etorriko dira eta haien harrapatzea errazagoa izango da".

LEKU GUZTIETAN EZIN DA

Urtero moduan, 08:00etarako egin dute hitzordua, Ibarran bertan. Lehiakideen izenematea zabalduko dute orduan, 09:00ak arte. Eta guztia gertu dutenean abiaraziko dute lehiaketa. Eguerdi aldeera bukatuko dute. Lehiakideek kainaberak bota ahal izango dituzte Salazandik Goikoerrotan.

"Astebetean jan barik izan dituzte arrainak, harrapatzea errazago izateko"

"Kukuko eta Martzelinaren uharka azpietan arrain asko askatuko ditugu"

"Hobe katiuskekin etortzea, txankletekin ibiltzeko ura hotzegia egongo da-eta"

ko presaraino: "Hori bai, Kukuko uharkaren gainetik Gantzagatik datorren errekkara bitartean ezin izango da arrantzan ibili", zehaztu du Goikoetxeak.

PRESAPEAK, LEKURIK ONENAK

Horren harira, arrantzan egiteko lekurik onenak aipatu ditu Goikoetxeak, presapeak, alegia: "Kukuko uharka azpian eta Martzelinaren uharka azpian amuarraín asko askatuko ditugu eta umeendako errazagoa izango da han arrantzan egitea. Gainerakoak, nagusitxoagoak erreka osoan ibiliko dira".

Errekaren egoerari dagokionez, berriz, ondo dagoela kontatu du Oilogorreko kideak: "Aurten ur kopuru aldetik ondo dator, nahikoa euri egin du-eta". Hori kontuan hartuta, gomendio bat ere egin die lehiakideei: "Hobe katiuskekin badatoz, txankletekin ibiltzeko errekkako ura aka so hotzegia egongo da-eta".

SARIAK DENONDAKO

Eta lehiaketa guztieta moduan, sariak ere izango dira biharkoan. Are gehiago, "denondako zerbaiz" izango dela ziurtatu dute antolatzaileek: "Garaikurrak, kainaberak, amuak... izango dira, denendako oroigarriren bat".

KIROLA > PLATER TIROKETA

Plater tiroketako herri arteko finala bihar, Kurtzetan

60-70 tiratzaile espero dituzte Herri Arteko Arabako Txapelketako finalean, bihar, 16:00etan

U.M. > ARAMAIO

Kurtzeta-Gainen zapatua, 16:00etan egin dute hitzordua Herri Arteko Arabako Txapelketako finalerako. Kalkulatzen dute 20:30ak inguruan bukatuko dutela tirada hori; izan ere, lehiakide asko espero dituzte Aramaion, 60-70 bat tiratzaile, Araba osokoak.

Lehiaketa jokatuko dute 25 plateretara. Eta biharko jardunaldiko puntuazioarekin izendatuko dute elkartea txapelduna.

ESPERANTZA BARIK

Edozelan ere, Aramaiko taldeak ez du batere esperantzarik: "Aurten bi tiradetan kale egin dugu; hortaz, ezin izan dugu puntuatu, eta hori asko igartzen

da", kontatu du plater tiroketako Kurtzeta-Gain elkarteko presidente Jose Inazio Ullibarriaranak. "Gainera, asteburu berean Andorrako tirada jokatuko da eta Aramaikoak ere bagoaz hara. Zazpi, guztira (bat Arasatekoak da); beraz, talde txiki batean zazpi lagunek kale egitea asko igarriko da", gaineratu du.

ANDORRAKO TIRADA

Izan ere, Andorrako lehiaketa urtero joaten da herriko ordezkaritzat. Lehiaketa jendetxua izaten da 200 bat tiratzailek parte hartuko du. Iaz, Aramaiora ekarri zuen hirugarren mailako lehen saria Enrike Ullibarriaranak. Ea, bada, aurten zorterik baduten.

> KZGUNEA

Astelehenean bidaien gaineke ikastaroa egingo dute KZgunean

Uztailean birritan etorriko da KZguneko arduraduna: uztailaren 9an, 09:00etatik 13:00ak arte. KZgunea bera zabaltzeaz gainera, Via Michelin-ekin bidaiatu izeneko ikastaroa emango du, euskalaz, 10:00etatik 11:00etara. Bestalde, uztailaren 23an etorriko da bigarren aldiz.

> ZERBITZUA

Argia moztu egingo dute datorren martitzenean

Udalak iragarri du datorren martitzenean, hilaren 10ean, argindarra kendu egin beharko dutela, ordubetez. Hain zuzen ere, 10:00etatik 11:00ak bitartean kenduko dutela iragari dute, argindarraren linea bat indartu egin behar dutelako 13,2 kilowatt-erekin.

JAIAK 07 > BALORAZIOA

Jende asko eta giro polita izan da jaietako ekitaldietan

Batez ere, musikarekin lotutako ekitaldiek eta jokoek erakarri dute parte-hartzaile gehien

U.M. > ARAMAIO

Inguruko hainbat herrian azken urteotan gertatzen ari denaren kontrara, Aramaiko jaiak arrakastatsuak izan dira, bereziki parte-hartzeari dagokionez. Hala adierazi dute Kultura Sailetik.

KABARETA JENDEZ GAINIZKA

Barian, adibidez, plazako kontzertuak gustura utzi zituen herri-tarrak. Txosnetan, berri, "entzule asko Des-Kontrol talde arrasatearraren kontzertua entzuteko irrikitan, itxaroten izan zen".

Bestalde, zapatuko mexikarrek eta Samasiku txarangak "giro bikaina" jarri zuten herrian.

Domekari dagokionez, ekin-tza arrakastatsuena bertsotxabreto izan zen. "Jendez gainezka izan zen eta umorez betetako ekintza izan zen. Bikain pasatu zuten bertan bildutakoek".

Bukatzeko, astelehenean, Koadrilen Arteko Pikearen bueltan batzen zen herritar asko, parte-hartzen zein ikusten. "Gauez, berri, dantza afrikarrek berotu zuten giroa".



'PIKIE' Katxi toldeoak arrakasta izan zuen Pikien. GOIENKARIA



ELIZAN Ikasitako erakutsi zuten musika ikasleek. GOIENKARIA



GUTXI Gutxi partea hartu du aurten plater tiroketan. GOIENKARIA



BRISKA Maria Luisa Bengoa eta Basilisa Elortza. GOIENKARIA

UDALA > BATZORDEAK ERATZEKO OSOKO BILKURA

Izendatu dituzte datozen lau urteotarako batzordeburuak

Bost zinegotziren artean banatu dituzte batzordeak; beste biek lagundu egingo diete

Egunean eguneko kontuak erantzuten dabilta, eta orain jaiak gertatzen hasiko dira

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA Atzo, eguna, egitekoak ziren osoko bilkuran eratu zituzten lau urteotarako batzordeak eta izendatu batzordeburuak. Behin eratuta, buru-bilarri hasiko dira lanean alkate zein zinegotziak.

BOST ZINEGOTZIRENDAKO
Ezustekorik ezean, atzo, 18:00etan, egin behar zuten osoko bilkura Gatzagan. Ekainaren 16an zinegotzi karguak hartu eta hilabeteko epea dute udalek batzordeak eratzeko. Gatzagan dagoeneko erabaki dute zeintzuk izango diren batzordeburuak: Kultura Saila Ainara Zubillaga eta Iñaki Elkorobarrutiak eroango dute; Zerbitzuak, Elkorobarrutiak berak; Hirigintza, Iñaki San Pedro; Mendien Saila, Asier Elkorobarrutiak; Gizarte Zerbitzuak, Zubillagak; eta Ogasuna, Eusebio Villar alkateak.

Zinegotziak zazpi dira guztira, baina bostek bakarrik izango dute batzordeen ardura. Gainerako biek, Ainhoa Barandiaranek eta Ibon Oñederrak, besteei lagunduko diente inongo buru izan barik.



UDALBATZA Ekainaren 16an egindako osoko bilkuran, lau urteotarako osatutako udalbatza alkate ohiarekin batera.

J.S.

KANPOKO ERAKUNDEETARA

Udalak, gainera, hainbat erakundetan ditu ordezkarriak. Debagoineneko Mankomunitatera joango dena Villar alkatea izango da; Antzuola, Elgeta eta Gatzagak osatutako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatera eta Goienara, Zubillaga; Suradesara, San Pedro; Mendi Nekazaritza Elkartera eta Ur Partzuergora, Asier Elkorobarrutia; Eudelen parte hartuko duena alkatea bera izango da, eta Jakion kontserben enpresan egongo dena ere bai; eta argindarra banatzan duen Leintzargi enpresan izango den ordezkarria, Ibon Oñederra.

JAIAK GERTATZEKO ASMOA

Batzordeak orain eratu badituzte ere, dagoeneko lanean hasita dago udalbatza; izan ere, hainbat ospakizun izan dituzte herrian azken bi asteotan: San Juan bezpera, San Martin eguna eta txirrindulari lasterketa: "Gainera etorri zaizkigun ekitaldiak antolatzen jardun dugu, eta ez dugu izan astirik beste kontu batzuei heltzeko", adierazi digu Villar alkateak.

Aurrera begira hainbat asmo dituzte, eta halaxe adierazi zuten hauteskunde garaian: komisio bat osatzea kanpoko jendearekin eta herriaren plangintza egi-

tea: "Komisioaren kontua aurreago hartuko dugu, orain data txarra da-eta baserritarrekin bilerak egiteko; oso lanpetuta dabilta", argitu digu.

Arau subsidiarioen aldaketen kontua aurreko agintaldiko udalbatzak hasi zuen, eta alegazioak aurkezteko epea ekainean bukatu zen: "Aurrerago egingo dugu batzarra arauen kontua landu duen arkitektu taldearekin. Herriaren batek jarri du alegazioa eta eurei bideratu diegu", adierazi du Villarrek. Orain, iraleko Andramaixa jaiak gertatzen hasi behar dute, egitaraua lotutu uzteko.

PILOTA

Infantilen txapelketako finalak domekan

Zazpi partidu jokatuko dituzte hainbat herritatik etorritako mutikoek

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Gatzagako infantil mailako pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte domekan, hilak 8, pilotalekuak. 7 eta 13 urte arteko mutikoak etorriko dira hainbat herritatik, eta zazpi partidu izango dira ikusgai: 7 urtekoak, Arrasate-Azpeitia; 8 urtekoak, Azpeitia-Elorrio; 9 urtekoak, Azpeitia-Bergara; 10 urtekoak, Amurrio-Azkoitia; 11 urtekoak, Amurrio-Azkoitia; 12 urtekoak, Arrasate-Azpeitia; eta 13 urtekoak Azkoitia-Arrasate (arrasatearrek bergararen ordez jokatuko dute, kanpoan direlako azken horieki).

10:00etan hasi eta 14:30ak inguruau bukatuko dituzte partiduak. Ostean bazkaria eskainiko diente antolatzaleek pilotari eta senideei.

GATZAGARRIK EZ

Herriko pilotariek ez dute parte hartu txapelketan. Horretarako federatuta egon behar dute, eta Gatzagakoak oraindik ez daude. Datorren ikasturteari begira zer egin pentsatzen dabilta pilotatxoak. Federatuta ere beste arazo bat daukate, pilotari gutxi direla. Hala, baten batek ezingo balu jokatu, han-kamotz geratuko litzateke bikotea. Hori guztia ondo aztertu gura dute pilotatxoak eta konponbidea topatu irailerako.

Uztailaren 9a:
137 zozketa

ASTELEHENeko GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

136 zozketako sariak

HDD Audio Player bat.
Jose Mari Mujika Sorozabal
(Bergara)

Saria jasotzeko epea: 15 egun

086 zozketako sariak

XABIER ARREGIren
HERRIA, HIRIA, NAZIOA
(Pamiela argitaletxea), hiru liburu.
(sariak bakotzari bat emango zaio)

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:
24 euro
2006 bukaera arte

Sariak astero!

Astelehenean, uztailaren 9a sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Baldintzak

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

IRONMANA > IBARREKO ATLETAK, PROBETAN BURU-BELARRI

Aritz Kortabarria laugarren sailkatu da Moraviaman proban

K-TRI TALDEKOAK, BIKAIN

Bergarako Joseba Zuzeta eta Aritz Kortabarria Txekiako proban lehiatu berri dira; 4. sailkatu da Kortabarria, eta 8. Zuzeta

KABIER URTZELAI > BERGARA

Bergarako K-Tri taldeko Aritz Kortabarria eta Joseba Zuzeta lan biribila eginda itzuli dira etxera, Txekiako Moraviaman distantzia luzeko proban lehenengo hamar lagunen artean sailkatu dira-eta. Hala, 9 ordu, 50 minuti eta 47 segundo erabilta laugarren sailkatu zen Kortabarria. Haren taldekide Zuzetak, berriz, 23 minuti gehiago behar izan zituen, eta zortzigarren lekuaren sailkatu zen (10:13:49). Bergarakoak joan den astean itzuli ziren etxera, pro-

ba amaituta Txekian egun batzuk igaro eta gero: "Normalean, horrelako proba bat egin eta gero biz-pahiru egun Robocop-en antzera ibiltzen naiz, giharretako minarekin. Oraingoan, baina, igartzen dut denbora luzeagoa beharko dudala errekuperatzeko, beste batzuetan baino gehiago estutu dut-eta", diosku Aritzek.

BUKAERAN, ESPRINTA

Izan ere, Kortabarriak badu nekatura egoteko motiboa, ia hamar orduko lehia esprintean amaitu

ELBAMAN BURUAN

Txekiako proba eginda, dagoeneko buruan daukate hurrengo helburua: irailaren 30ean Elba (Italia) uhartean egingo duten Elbaman ironman, hain zuzen ere

ezer egin, neukan apurra eman da nuen, eta leher eginda zeharkatu nuen helmuga".

ISTEKABE ASKOKO PROBA

Kortabarria zapore gazi-gozoarekin itzuli da Txekiatik, podiuma eskura izanda azken metroetan ihes egin ziolako: "Hasieran amorratu egin nintzen, baina, pentsatzen hasita, hasierako asmoa hamar lehenen artean helmugaratzea zen, eta laugarren izatea oso ondo dago".

Hala ere, Kortabarriak eta Zuzetak gura baino zaitasun handiagoak izan dituzte proba horretan: "Lehenengo ezustea izan genuen antolatzaileek neoprenozko jantziak erabiltzea debekatu zigitenean. Eta, italiar talde bat oso haserre agertu zen erabaki horrekin, uraren tenperatura ez zutelako behar den moduan neurtu. Kontua da ige-



Oñati Triatlooi Taldeko guztiak amaitu dute Roth-eko (Alemania) ironman proba

Oñatiko Triatlooi Taldekoak Rotheko (Alemania) ironmanetik itzuli berri dira. Aipatu behar da taldekide guztiak amaitu dutela proba, nahiz eta euretako batzuek arazo fisikoak izan dituzten. Besteak beste, Iban Uribetxebarria eta Jesus Cantero giharretako minarekin ibili ziren, eta Iban Isastik eta Martin Odriozolak tripetako arazoak izan zituzten. Dena dela, lau lagun horiek helmuga gurutzatzeko gauza izan ziren, gainontzeko batera.

Lasterketan, Iñaki Pelayo izan zen ordezkarri azkarrena, 69. postuan sailkatuta (09:23:53); 90.a Jon Zelaia izan zen (09:33:09), 99.a Josu Odriozola (09:37:41); 105.a Raul Montiel (09:38:06); 224.a Unai Pedregal (9:58:06); 287.a Joseba Blazquez (10:08:02); 465.a Mikel Azkorbebeitia (10:29:00); 1.072.a Jesus Cantero (11:26:21); 1.099.a Iban Uribetxebarria (11:28:46); 1.154.a Iban Isasti (11:35:00) eta 1.365.a Martin Odriozola (11:56:15).

Hain zuzen, 2.600 parte-hartzaileetako 2.245 lagun izan ziren proba amaitzeko gauza. Erreratuan, taldeko hainbat kide Eneko LLanos gasteitzarrarekin batera -bigarren sailkatu zen-.

ATSEDEN HARTZEN Txekiatik itzulita, egun batzuk a-



- Merkatuko lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar
project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA

Telleria 23, D5 pabilioia
Labegarieta Industrialdea BERGARA
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44
www.iparproject.com





tseden hartzeko aprobetxatuko dituela esan digu Bergarakoak.

**"40. kilometroraino
hirugarren postuan
nindoan, baina
azkeneko
kilometroan atzetik
ztorrenak
aurreratu, eta azken
esprintean ezin izan
nuen aurreratu"**

rian batere trebreak ez garenok errazago ibiltzen garela trajearekin. Eta ondoren, korrikako zatian ere salatu zuten korrikalari batzuek kanpokoen lagunza izan zutela. Horrek guztiek baldintzatu egin zuen proba, baina, egia esan, guk ez genion behar baino garrantzia handiagorik eman".

Etorkizunari begira, K-Tri taldeko kideek dagoeneko badakite zein izango den hurrengo erronka: irailaren 30ean Italian egingo duten Albaman ironmania. "Hori ere proba gogorra izango da, uharteetan egiten dituzten probetan haize handia ibiltzen da-eta". Hala, Kortabarriak ondo esaten duen moduan, "zigortuta igaroko dugu uda", entrenatzen.

XABI LEKUE, BERRIRO HAWAIIRA
Antxintxika taldeko Xabi Lekuek ironman proba garrantzitsuenean parte hartzeko txartela lortu du berriro ere: Hawaiiako, hain zuzen. Lanzaroteko lasterketan sekulako marka eginda –profesional asko atzean utzita–, hamargarren sailkatu zen (09:36:00). Trintxerpekoak urriaren 13an Atlantikoaren beste aldean egingo duten proba du buruan dagoeneko, nahiz eta taldeko kide Jose Mari Barrenaren esanetan, hasieran ez zegoen oso konbentzituta: "Ia derrigortuta bidali dugu. Kontua da iaz taldekideek ahalegin txiki bat egin genuela proba horretan parte hartzeko dirua lortzen, eta oraingoan ez gintuen berriro ere saltsa horretan sartu gura. Horrelako ahaleginak, baina, gustura egiten dira".

Bestalde, Antxintxikako datorren zapatuan Zumaiako triatloian izango dira, eta uztailaren 22an Gasteizen egingo duten triatlooi olinpiko bikotzean. Proba berria da hori.

> TXIRRINDULARITZA
**'Tropela' webguneko
lehiaketan esku hartzeko
azken eguna bihar**

Frantziako Tourra hasten den momentu berean itxiko dute www.tropela.net webguneko lagunek lehiaketa. Hala, bihar arratsaldera arte duzue webgunera sartu eta zeuen txirrindulari faboritoak aukeratzeko.

Lehiaketarekin batera, Tourraren gaineko jarraipena egingo dute webgunean.

> ESKUBALOIA
**Federazioak sari
banaketa egingo du gaur
Donostian**

Ibarreko hainbat lagun itzuliko dira gaur arratsaldean Donostiatik sari batekin eskuetan. Josetxo Muniategik, esaterako, Bergarako taldearen alde egindako lanagatik jasoko du saria –22 urte daramatzatza taldean–. Bestalde, hainbat jokalarik, Ford Mugarrti Arrasatek eta Bergarako taldeak ere jasoko dute saria.

> TOURRA
**Hasi dira Tourra
ikustera joateko izenak
hartzen**

Bihar hasiko dute, Inglaterran, aurtengo Frantziako Tourra. Eta, Lizarralde Kirolak dendako lagunak dagoeneko hasi dira lasterketa Pirinioetan ikusteko bidaia antolatzen.

Uztailaren 22ko eta 23ko etapak ikusiko dituzte, baina zapatuan, hilaren 21ean, hasiko dute Pirinioetara bidaia.

> TXIRRINDULARITZA
**Irizarrek ez zuen egun
onena izan Espainiako
Txapelketan, Cuencan**

Euskaltel-Euskadiko Txirrindularia gogotsu zegoen joan den egubakoitzean Cuencan egindako erlojupekoan lan ona egiteko: "Aurreko urteotan 14. eta 10. sailkatu naiz, eta aurrean ibiltzeko ilusioa nuen. Baino 30. kilometro rako konturatu nintzen gaizki nindoala". Oñatiako hilabeteko atsedenaldia izango du orain.

An advertisement for MIKEL LASA, S.A. The top half features a scenic view of a road leading through a mountainous landscape under a blue sky with clouds. The company logo, which consists of three stylized green and yellow shapes, is positioned in the upper right corner. Below the logo, the company name "MIKEL LASA, S.A." is written in bold black capital letters, with "ASEGURU ARTEKARITZA" in smaller letters underneath. The bottom left contains the company's address and contact information: "Otalora Lizentziaduna, 5 behe - 20500 ARRASATE (Gipuzkoa)", "Tel. 943712454 - Fax 943771074", and "Mail: mikellasa@mikellasa.com - Web: www.mikellasa.com". The bottom right contains the slogan "profesionalak zure etorkizunaren zerbitzurako".

Ikus itzazu argazkiak, astero, ASTELEHENeko GOIENKARIAn!

III. UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENeko GOIENKARIA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak

Har ezazu parte!



Baldintzak

- Udako argazkiak izango dira, eta berdin izango da aurtengo udan ateratakoak izan edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da ekainaren 22an eta amaituko da irailaren 17an.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoineko edozeinek parte hartu ahal izango du, eta ez da adin mugarrak izango.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko erresoluzio eta kalitatearekin).
- Bidali ahal izango dira e-postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri. **Arrasate:** Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500, edo Otarola Lizentziaduna 31, 20500. **Bergara:** Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570. **Aretxabaleta:** Durana 11, 2. solairua, 20550.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri beltzean.

- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira egilearen izen eta abizenak, adina, harremetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoak den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero ASTELEHENeko GOIENKARIAn.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 1ean jakingo dugu ASTELEHENeko GOIENKARIAn.
- Parte-hartzaleek gehienez bost argazki bidali ahal izango dituzte.
- Lehiaketaren epai-mahaia osatuko dute Goienako kideek eta argazkigintzan adituak diren debagoiendarrek.
- Epai-mahaiaiak baloratuko ditu argazkiaren kalitatea, originaltasuna, balio historikoa eta bizitasuna, besteak beste.
- Honez gain, Goienako beste hedabideek ere egingo dute lehiaketaren jarrapena.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENeko GOIENKARIko artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, beti ere egilea aipatuz.

Sariak



1. saria

- Olympus E-400 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren esku. - 10 milioi pixel.
- Bi objektibo aldagarririk: Zuiko digital 14-42 mm eta 40-150 mm.
- Flash eta guzti.
- 2,5 hazbeteko LCD pantaila.




- 2. saria: Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarentzat, Arrasate Bidaia-en esku.



- 3. saria: bi pertsonarentzako afaria edo baziaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxeen.

Babeslea:



kutxa

Laguntzaileak:



Arrasate Bidaiaik
BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA

GURE AMETSA
JATETXEA

**ASTELEHENeko
Goienkaria**
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Asteleheneik egubakoitzera
09:00etik 18:00etara

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> MUSIKA

Ste Vai gitarrista ospetsuaren kontzertua Jam aretoan > **45**



> KOMUNIKAZIOA

MUK webgune onenetariko bat dauka, ikerketa baten arabera > **51**



> JON GALDOS

Mikel anaiaren bidea jarraitu gura du. Horretarako badaki golfa serioago hartu eta gogor entrenatzen hasi beharko duela. Bide onean da; bi txapelketa irabazi ditu aurten > **50**



TALDEKO LANA Argazkian, ezkerretik eskuamara: Mikel Alvarez, Josema (teknikaria), Iñaki Ibarzabal, Mikel Ilardua eta Aimar Lasa. Roberto Ugarte (guitarra) falta da.

JOSEBA ANTIA

ABY-KEM

Aby-Kemen diskoa, labean

DANBAKAKO IRABAZLE

Aby-Kem talde berargarra, Danbakako irabazlea, diskoa grabatzera sartu da asteon Shot! grabazio estudioan; grabazioa eta diskoa kaleratzea dira Danbakaren sariak

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Aby-Kem talde bergarra izan zen Danbaka Debagoineneko II. Musika Lehiaketako irabazlea. Hala, sari nagusia eskuratu zuen: disco baten grabazioa Arrasateko Shot! grabazio estudioan eta lan hori kaleratzea Gaztelupeko Hotsak diskoe xearekin. Bada, astelehenean hasi ziren disco hori Shot! grabazio estudioan prestatzen.

Pare bat aste izango ditu lan horretarako, baina oso fin hasi dira zeregin horretan. Astelehenean bertan bateria muntatu zuten eta soinu probak egin zituzten. Hala, bi egune-

an bateria guztia grabatu zituzten. Horren ostean baxuaren txanda izan zen; horren atzetik etorriko dira gitarra erritmikoa, gitarraren bestelako ñabardurak eta ahotsak. Azkeneko pausoa nahasketak eta masterizazioa egitea izango da.

LANA GOGOR EGIN DUTE

Aby-Kem taldeko kideek aitortu digute luzaroan ibili direla entsegu lokaletan kantuak prestatzen: "Danbakan finalistak izan ginenean erabaki genuen disco bat grabatu gura genuela, lehiaketa irabazi edo ez. Eta ira-

baztea izugarrizko bultzada izan zen horretarako, baita laguntza ederra ere", azaldu zigun taldeko abeslari Mikel Alvarezek.

Eta joan den urtea ezkero, lan eta lan ibili dira musikari berargarra entsegu lokaletan kantuak sortzen, egokitzen eta borobiltzen. "Dagoeneko goiko geltokiko entsegu lokaletako taldeen artean, Aby-Kem gau eta egun egoten garen ospea hartu dugu, nahiz eta asteburutan bakarrik elkartu guztiok", azaldu zigun barre artean Alvarezek.

(44. orrian jarraitzen du)

Aby-Kem taldearen lehenengo diskoa labean dago

(43. orrialdetik dator)

Diskoan aurkituko dugunaren gainean galdetuta, taldekideek kontatu digute lan berriak bederatzi abesti izango dituela, eta guztiak euskaran abestuko dituztela. "Betiko ildoan jarraituko dugu abesti indartsuak egiten". Hala, prestatzen dabiltsan lanean thrasha eta metala nagusi izango direla antzematen dugu.

DISKOA, AURKEZPEN TXARTELA

Taldekideek oso argi dute disco hori taldearen aurkezpen txartela izango dela. "Guretako disco hau erronka handia da. Horren bitarte, jende askok lehenengo aldi ezagutuko gaitu, eta ez dugu aukera hori galdu gura", azpimarratu zuen Mikel Alvarezek.

Oraindik ez dute discoaren izenburua aukeratu, baina abes-tien izenak irakurri ostean, argi dago gaiak gogorrak izango direla. "Sentimenduz betetako hitzak idazten ditugu, eta gehienetan kritika zorrotzak egiten ditugu", zehaztu zuen Alvarezek.

ENTZUN BAKO KANTUAK

Aipatutako bederatzi abestietatik, gutxi batzuk Danbakako finalean aurkeztu zituzten; besteren bat Bergarako jaietan egindako kontzertuan; eta beste guztiak entzun bakoak dira. "Danbakako finala egin aurretik, kantuak

idazten hasi ginan eta ordutik hona bizpahiru kontzertu besterik ez dugu egin, gurago genuenako kantuak idatzi eta ondo borbildu. Hala, abesti gehienak berriak dira entzuleendako", azaldu zuen taldeko gitarra jotzaile Mikel Ilarduiak.

ESTUDIOAN OSO GUSTURA

Aby-Kemek aurretik beste grabazio ekinaldi batzuk egin ditu, baina honako hau estudio profesional baten sartzen garen lehenengo aldia da. Iraganean Bergarako lokal baten, eta gure entsegu lokalean aritu gara grabazioak egiten. Saia kera horietan asko ikasi dugu, gauza txarrak eta onak", azaldu zuen Ilarduiak.

DISKOAREN ABESTIAK

- AZKEN GUDA
- LARROXEN IRAULTZA
- BERUNEZKO MALKOAK
- ADIERAZPEN BORTXATUA
- EROMENARENERRAUTSAK
- BEHIN-BETIKO ZIGORTUA
- POZOI
- EGUZKIA
- HONDARREZKO EKAITZA



GRABAZIO LANETAN Argazkian Mikel Ilardui gitarra jotzailea eta Mikel Alvarez abeslaria.

JOSEBA ANTIA

Josema soinu teknikariaren kin dabiltza berigararrak estudioan lanean. "Josema erreferentziaz bakarrik ezagutzen genuen: estudioan egindako beste lan batzuengatik eta zuzenean NaizRoxa taldearekin egindakoagatik, besteak beste", azaldu zuen Mikel Alvarezek.

Lana aurreratzeko asmoz, aurretik Josema Aby-Kem taldearekin izan zen entsegu lokalean. "Gure kantuak bertatik bertara entzutera etorri zen, eta egur apur bat ere eman zigun. Ondo dago hori, oso mesedegarria da aurretik lan hori egitea", azpimarratu zuen Ilarduiak.

Bestalde, egiten dabiltsan diskoaz gain, taldekoek beste grabazio bat prestatuta dute. "Shot! estudioa sartu aurretik, hiru kantu demo bat grabatu genuen gure entsegu lokalean. Diskoa kaleratu ostean ikusiko dugu demo horrekin zer egiten dugun", jakinarazi zigun Ilarduiak.

Boulevard merkealdia. BIHOTZEKOAK EMATEKO MODUKOA.



Boulevardeko merkealdiak arritmiak

ta pultsuaren bizkortzea eragin ditzake. Gure salgaien prezioak ikusita, litekeena da izerditzea, baita euforia sentsazioa izatea ere modu iraunkorrean edo aldi baterako. Produktuen eta zerbitzuaren kalitateak shock handia eragin diezaiok kontsumitzaileari, arrazoi nagusia hau izanik: eskandaluzko prezio murritzak.

MUSIKA > STEVE VAI BERGARAN

Gitarra jotzen maisua den Steve Vairen kontzertua domekan Jam aretoan

Aditu askok munduko gitarrista onenetakotzat jotzen dute Steve Vai

Etzi, Bergaran, 'Sound theories' izenburuko lan bikoitza aurkeztuko du

EDU MENDIBIL > BERGARA
Uztailean Europan zehar egiten ari den biraren barruan, Steve Vai gitarrista ospetsuak emanaldia egingo du domekan Jam aretoan. Steve Vai munduko gitarrista onenetakotzat jotzen dute aditu askok, Joe Satriani eta beste gutxi batzuekin batera.

Hain zuzen ere, Frank Zappak asko lagundu zion hasieran, eta ezagun egin zen haren taldean esku hartu zuelako. Horren ostean, Satrianirekin *Rockaren kon-dairak* ekimenean esku hartu zuen; baita G3 eta Guitar 3 ikus-kizunetan, Satriani eta Eric Johnson, Yngwie Malmsteen eta



STEVE VAI Munduko gitarrista ospetsueta bat da estatubatuarrak. Zack Wiesinger izango du domekan *telonero*. GOIENKARIA

Robert Frippekin batera.

Etzi, Bergaran, *Sound theories* izenburuko lan bikoitza aurkeztuko du. Spainian lau emanaldi egingo ditu. Bergaran ez

ezik, Bartzelonan, Lorcan eta Madrilen joko ditu Vaik bere kantu ezagunenak: *Gentle ways*, *Liberty*, *The God eaters* eta beste hainbat.

Domekako kontzerturako, Jameko ateak 20:00etan zabalduko dituzte. Sarrerak ohiko tokietan eta *ticktackticket.com* webgunean daude salgai, 35 eurotan.

> MUSIKA
Lau talderekin kontzertua gaur Oñatiako gazteleku

Obligaciones (Gasteiz), MC6 (Oñati-Arrasate), Sarri's Trio Rock'n'Roll (Donostia) eta Highschool Gunner (Arrasate) taldeen kontzertua izango da gaur Oñatiako gazteleku, 22:30ean. Sarrera: 5 euro.

> MUSIKA
Golpe de Estado eta 5 Twisters zapatuan Arrasateko gaztetxean

Golpe de Estado eta 5 Twisters taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, Arrasateko gaztetxean, 22:00etan. Arrasateko talde batek ere The Clash taldearen bertsioak joko ditu.

> MUSIKA
Malenkoniak San Fermin jaietan joko du, eguztenean

Malenkonia talde oñatiarrak kontzertua emango du eguztenean, hilaren 11n, Iruñean. Kerobia taldearekin batera arituko dira, Medialuna agertokian, gauerdian hasiko den kontzertuan.

KIA auto erakusketa berritua Arrasaten! Etor zaitez ezagutzen, KIA produktu-gama zabala!



KIA MOTORS
The Power to Surprise™

KIA MOTORS

Araba Etorbidea z/g - ARRASATE

(Honda Tecnocar ondoan)

Tel.: 943 79 00 11 Faxa.: 943 71 27 38





Ainhoa Herrasti aretxabaletarra eta **Urko Gomez** zegamarra zapatuan, uztailaren 7an, ezkonduko dira Zegaman. Zorionak, Bergarako familiakoen partetik. Ondo ibili ezkontza eguneara eta laztan handi bat, bikote!



Bergarako **Naiara Beistegi** eta **Gorka Mujika** uztailaren 7an, zapatuan, ezkonduko dira Mariaren Lagundiko elizan. Ondoren, Gure Ameetsa jatetxean egingo dute ospakizuna. Zorionak eta ondo ibili ezkontza bidaian, koadrilakoen eta familiakoen partetik!




Jose Luis Arantza eta **Miren Elkoro** ezkondu zirela 50 urte bete dira gaur, egubakoitza. Urrezko ezteiak zapatuan ospatuko dituzte Elgetan, senideekin. Zorionak, familiakoen partetik.



Angiozarko **Lorea** eta **Antxon** donostiarra bihar, zapatua, Angiozarko elizan ezkonduko dira. Ondoren, bazkaria Zarautzen izango dute eta eztei-bidaian Maurizio irletara joango dira. Zorionak eta zorte on bioi, koadrilakoen partetik!



Fertxu Rodriguez eta **Nerea Sanzberro** bihar, zapatua, ezkonduko dira Bedoñako elizan, 12:00etan. Gero, Azpeitiako Kiruri jatetxean egingo dute bazkaria, eta eztei-bidaian Argentinan joango dira. Zorionak, lagunen eta familiakoen partetik.



Agustin Merchan eta **Maria Jesus Vazquez** arrasatearrak ekainaren 30ean ezkondu ziren Arrasateko San Juan Bataiatzailearen elizan. Dagoeneko Maia Erriberan egongo dira ezkon-bidaian. Familiakoen partetik, zorionak eta urte askotarako!



Arrasateko **Mikel Tena Morales** eta **Lorena Perez Mauleon** uztailaren 7an ezkonduko dira Arrasateko udaltxean. Bazkaria Gure Ametsa jatetxean egingo dute eta eztei-bidaian Thailandiara joango dira. Zorionak, familiakoen partetik!



Iker Blazquez aretxabaletarra eta **Marisa Del Pozo** arrasatearra uztailaren 7an ezkonduko dira Arrasaten. Bazkaria Etxeberry jatetxean egingo dute. Bidaia Australiara eta Balira egingo dute. Zorionak, familiakoen eta lagunen partetik. Ondo ibili!



Jon Ugarriza laudioarra eta **Aroa Madinabeitia** arrasatearra uztailaren 7an ezkonduko dira Musakolako San Isidro elizan. Bergarako Lasa jatetxean izango da bazkaria eta bidaian Siziliara joango dira. Zorionak, koadrilakoen partetik.

bono fotoa



Onatin, XVII. mendeko etxe horri bere jatorrizko familiak ematen dio izena. Zein da izen hori?

Argazkia eta galdera > Iñigo Biain




Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon aranean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK


TELEFONOAK

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goiak edozein egoitzara

Kas laranja edo limoia
latak, 33 cl-ko 8ko packa

2,25 €
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
BERGARAKO FELIXA GABILONDOrendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: San Bartolome.



Ane Miren aramaioarra eta **Iñigo** arrasatearra zapatuan, uztailaren 7an, ezkonduko dira Arrasaten. Eztei-bidaian Perura eta Mexikora joango dira. Ondo-ondo pasatu eguna eta bidaia ona izan. Zorionak, Aramaiko lagunen partetik.



Oñatiko **Oihana** eta Ibarrako **Jon** uztailaren 7an ezkonduko dira Arantzazun. Ospakizuna Zelai Zabalen egingo dute eta bapo jan eta dantza egin osten, Vietnamera joango dira bidaian. Zorionak, guapos, eta ea noizko familixian aumentual! Laztan bat, etxeko partetik.



Duela 50 urte ezkondu ziren, uztailaren 6an, **Joxe Kortabarria** eta **Marilu Fernandez** Aretxabaletako parrokian. Oraingoan urezko ezteiak beteko dituzte eta elkarrekin ospatzeaz gain, zorionik beroenak opa dizkiegu etxeeko guztiek!

hildakoak

- **Angel Elortza Arenaza.** Arrasaten, ekainaren 25ean. 90 urte.
- **Cesareo De la Fuente Rodriguez.** Oñatin, ekainaren 27an. 66 urte.
- **Consuelo Garcia Oñate.** Arrasaten, ekainaren 27an. 72 urte.
- **Malen Errasti Lopez de Foronda.** Arrasaten, ekainaren 28an. 50 urte.
- **Paula Palomino Pascual.** Aretxabaletan, ekainaren 29an. 80 urte.
- **Felix Lizaso Urbieto.** Arrasaten, ekainaren 30ean. 64 urte.
- **Maria Jesus Perez Etxarri.** Bergaran, ekainaren 30ean. 49 urte.
- **Trinidad Arregi Muruamendiarraz.** Bergaran, uztailaren 1ean. 94 urte.
- **Luis Larrañaga Orozko.** Bergaran, uztailaren 1ean. 74 urte.
- **Sabino Zabala Garitaonandia.** Arrasaten, uztailaren 3an. 72 urte.
- **Juan Jimenez Garcia.** Arrasaten, uztailaren 3an. 72 urte.
- **Benito Arriola Zugasti.** Eskoriatzan, uztailaren 4an. 49 urte.

ESKER ONA

Maria Jesus Perez Etxarri

Jakan (mendi istripuan) hil zen 2007ko ekainaren 30ean, 49 urte zituela.

Jende guztiari eta bereziki
Jakan berarekin zeuden lagunei eta
Debagoineko ospitaleko langileei,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko uztailaren 6an.

ESKER ONA

Maria Jesus Perez Etxarri

Pirinioetan hil zen 2007ko ekainaren 30ean, 49 urte zituela.

Mariaje gure laguna, San Martzial egunean joan zitzagun,
asko eta asko izan zineten azken agurra ematera etorritakoak,
guztioi eskerrik beroenak bere lagunen partetik.

Bergaran, 2007ko uztailaren 6an.



URTEURRENA

Carmen Igartua Kortabarria

Lehen urteurreneko meza domekan,
uztailaren 8an, 15:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.

— Ez zaituztegu sekula ahaztuko.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Juli Lamarain Azkarate

Rufino Elgarrestaren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, uztailaren 8an,
15:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

II. URTEURRENA

Jose Antonio Gutierrez Igartua

Bergaran hil zen 2005eko uztailaren 2an, 60 urte zituela.

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan



Bergaran, 2007ko uztailaren 6an.

ESKER ONA

Paula Palomino Pascual

Aretxabaletan hil zen 2007ko ekainaren 29an, 80 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Aretxabaletan, 2007ko uztailaren 6an.

ESKER ONA

Sabino Zabala Garitaonandia

Arrasaten hil zen 2007ko uztailaren 3an, 72 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2007ko uztailaren 6an.

Babeslea:

 **OROILORE**
Hileta eta beilateko zerbitzuak

Zerbitzu etengabea 365 egunean • Behar bagaitzue aski duzue dei bat, laster joango gara zuekin egoteko: etxera, ospitalera...

Erantzun azkarra, tratu pertsonala • Eskelak: egunkari, irrati eta paperetan

Aukera lore apainketan: koroak, erramuak eta zentroak • Bete beharreko tramiteak • Gorputua prestatu eta dotore ipini

Zerraldo aukera, denetariko prezioak • Oroilore beilatekoak hiru gela ditu, beila egiteko

Amillaga 27, Bergara • Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76

Zerbitzua Debagoiena osorako

INMOBILIARIA KROSSTI
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Fax: 943 76 97 97
www.inmokorost.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
 • Ibargarai 74 m². Oso ondo.
 • Simon Arrieta 80 m². Eguzkitua.
 • Masterreka 92 m². Ondo.
 • Osintxu 80 m². Berritua.
 • Angiozar Bi solairu. Beritezko.
 • Bidekurutza 60 m². Berritua.
 • San Pedro 65 m². Prezio ona.
 • Ibarru 84 m². Terrazarekin.
 • Zubietza 60 m². Prezio ona.
 • Maisterreka 92 m². Prezio ona.
 • Zubiaurre 70 m². Berritua.

Antzuola:
 • Buztunzuri 76 m². Prezio ona.
 • Antigua 72 m². Oso ondo.
 • Ibarre 82 m². Ondo.

Elgeta:
 • San Roke 90 m². Berritua.
 • Salbador 90 m². Igogailuarekin.
 • San Roke. Prezio ona.

DEBA GARAIA INMOBILIARIA
 Telesforo Aranzadi 2
 T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA

- Bidekurutza, 82m², ia berria
- Arizuri, 97m², oso ondo
- Juan XXIII, 80 m², berriuta
- Burdinalea, 60m², garajearekin
- Bidekurutza, 60 m², oso ondo
- Zubiaurre, 60 m², aukera ona
- Zubietza, 65 m², oso eguzkitua
- Erdialdean, 200 m², aukera ona
- Ibargarai, 80 m², ondo
- Artekale, 62 m², oso ondo
- Aranerrea, 87 m², ondo
- Osintxu, 80 m², ondo
- Mugertza, 60 m², berria
- Masterreka etxebizitzak lojelakoa eta duplexak

SORALUZE

- Gabolatza, 65 m², oso ondo
- Atxuri, 93 m², oso ondo.

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguizi auzoa, 85 m², erdi berritua.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

1/ ETXEBIZITZAK**101. SALDU**

Antzuola. Etxebizitzak salgai, adosatua. Estreinatzeko. 607 79 00 37.

Aretxabaleta. Erdigunean, 72 m²-ko teilitapukoa eta 16 m²-ko garaje. Prezio ona. Telefono: 659 64 67 38.

Arrasate. Etxebizitzak salgai, Otalora 2, azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizi zitza sartzeko moduan. Deitu telefono honeketa: 675 71 37 27.

Arrasate. Etxea salgai San Jose-pen kalean. 60 metro koadro. 2 logela. Sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Trastelekuak. Telefona: 667 53 70 00.

Arrasate. Etxea salgai San Jose-pen. 58 m², berritua, bi logela. Trastelekuaren eta igogailuarekin. Deitu telefono honeketa: 667 53 70 00.

Arrasate. Grupo San Juanen etxebizitzak salgai. 60 metro koadro. Azkenetako solairua, igogailuarekin. Ganbara eta sota ditzu. Berogailua. 606 25 92 80.

Arrasate. Logela bakarreko apartamentua salgai Arimazubin. Terraza eta ganbarekin (estudioa jarteko aukera). Prezio eta egora onean. Telefona: 687 83 97 37.

Arrasateko Erguina auzoan etxebizitzak salgai. Hiru logela, egongela, komuna, sukaldea eta bi balkoi. Oso eguzkitua da, etxekiek kanpoalderak ematen du. 72 m². Deitu telefono honetara: 660 46 47 24.

Bergara. Boni Laskurain kalean. Eguzkitua. Bizi zitza sartzeko gerto. 90 metro koadro. Prezio interesgarria. Deitu telefono honetara: 685 72 40 30.

Bergara. Etxebizitzak salgai Zubiaurren. Guztiz berritua. Berogailua eta ganbara. 619 41 39 72.

Bergara. Etxebizitzak salgai erdialdean. Bizi zitza sartzeko gerto. Oso polita. Eguzkitua. Deitu telefono honetara: 685 72 40 30.

Bergara. Koldo Eleizalde kalean. 97 metro koadro ditu. Hiru logela, bainugela eta komun txikia. Garaje eta trastelekuak ere baditu. Eguzkitua. Deitu telefono honetara: 655 71 03 23.

Bergara. Simon Arrieta, 57 metro karratuko, bi logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekuak, igogailuarekin. Deitu telefono honetara: 649 63 11 47.

Bergara. Zabalotegi etxebizitzak salgai. Berritua eta jantzia. Deitu telefono honetara: 615 79 41 02.

Bergaran. Etxebizitzak salgai Zubiaurren. Bi logela, sukaldea, komuna eta egongela. Guztiz berritua. Gas bidezko berogailua indibidualea. Prezio oso interesgarria. Deitu: 21:00-23:00. Deitu telefono honetara: 943 76 19 39.

Eskoriatza. Etxebizitzak salgai San Pedro Kalean guztiz berritua. 73 m², 3 logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Eguzkitua. Deitu ezazu telefono

honeketa: 615 70 99 18.

Guardia (Laguardia). 80 m². Sukaldea, hiru gela, egongela-jangela, bainugela eta 30 m²-ko gariba. Jantzia. Hirigunean. Eguzkitua. Prezioa ados-teko aukera. Deitu telefono honetara: 943 77 21 24 edo 696 02 42 10.

Hozkaila konbi bat eta garbi-gailua salgal. Urtebetetze erabili ditu. Deitu telefono honeketa: 670 20 76 01.

Jaca. Estreinatzeko. Ullano Victoria, urbanizazio pribatua, ige-rikelekua, zabal, bi logela, sukaldarria jantzia, bi terraza, garajea eta trastelekuak. Kalitate handikoa. Gasa. Oroleria begira. Eguzkitua. Aukera ona. Telefona: 678 72 89 18.

La Barrosa-Chiclana (Cadi). Irailean apartamentua errentan ematen da urbanizazio berri batean. Leku zoragarria. La Barrosa hondartzatik oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

Luz Saint Sauveur (Frantziako Pirinioak). Apartamentua salgai. 30 m². Prezio negoziagari. Deitu telefono honetara: 665 73 95 65.

Perifisola. Apartamentua ematen da errentan abuztuaren lehenengo hamabostaldian. Hondartzatik 100 metrora. Ige-rikelekua eta aparkalekuak ditu. Telefona: 676 39 36 93.

Ofiati. San Lorentzo auzoan 93 m²-ko etxebizitzak salgai. 3 logela, 2 komun, egongela, estudioa, ganbara eta garaje handia. Deitu 20:00etik 22:00etara. Telefona: 943 65 54 10.

Perifisola. Bi logelako apartamentua, hondartzatik gertu, uztailean errentan emateko. Eta bi logelako beste apartamentu bat ere ematen da errentan; hura ere hondartzatik geru eta lorategi eta igerileku komunitarioarekin. Telefona: 659 95 04 71.

Pinedan (Tarragona) apartamentua errentan ematen da. Hondartzatik eta PortAventratik gertu dago. Igerilekuak daku. 659 77 22 82.

Salou. Hondartzatik gertu. Lau personarekako apartamentua errentan ematen dut uztailean edo irailean. 689 21 72 08.

Ofiati. Apartamentua salgai San Lorenzo auzoan. Saloi-sukaldea eta bi logela. Eguzkitua, terraza handiarekin. Garaje aukera. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

Ofiati. Uztailean eskola partikularrak emango nituzke. Irakas-kuntzan diplomatu naiz. Eskarmentu handia. Deitu telefono honetara: 666 21 73 48.

Ofiati. Etxebizitzak salgai, Kale Zaharrean. 3 logela, 2 egongela, 2 komun, sukaldea eta balkoi handia. Etxebizitzak osa-argitsua da. Deitu telefono honetara: 656 77 66 32.

Arrasate-Eskoriatza. Hiru gelako etxebizitzak bat hartu nahia da alokairuan urriaren hasieratik urtarriaren bukaera arte. Ikerlekak. Seriotsuna ziurtatua. Txema. 656 77 66 32.

Arrasate. Hiru gelako etxe bat hartzentz da errentan urriaren hasieratik urtarriaren bukaera arte. Ikerlekak. Seriotsuna ziurtatua. Txema. 656 77 66 32.

Arrasate. San Andres auzoan ikasleendako etxebizitzak erren-tan ematen ditzu. 943 79 81 05.

Cangas de Morrazo (Rias Baixas). Bi logelako apartamentua errentan ematen da. Garajea aukera. Bista ederrak Vigora. Telefona: 609 36 60 47.

Deba. Etxea errentan ematen da uztailean, herri erdian. 615 72 15 03.

103. ERRENTAN EMAN

Apartmentua errentan Gan-diko hondartzan, abuztuko bigarren hamabostaldian eta irailean. Bi logela, igerileku. Telefona: 635 31 26 11.

Arrasate. San Andres auzoan ikasleendako etxebizitzak erren-tan ematen ditzu. 943 79 81 05.

Cangas de Morrazo (Rias Baixas). Bi logelako apartamentua errentan ematen da. Garajea aukera. Bista ederrak Vigora. Telefona: 609 36 60 47.

Deba. Etxea errentan ematen da uztailean, herri erdian. 615 72 15 03.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Senar-emazte batzuek etxebizitzak hartuko luke errentan. Deitu telefono honetara: 699 49 14 32.

Arrasate. Kontzezino kalean garaje plaza errentan. 655 71 81 84.

Arrasate. Garaje itxia erosiko nuke San Andresen. Telefona: 659 76 74 18.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Kontzezino kalean garaje plaza errentan. 655 71 81 84.

Arrasate. Garaje itxia errentan ematen dut. Gaztañadui kalean. Deitu telefono honetara: 676 59 53 17.

Arrasate. Garaje itxia errentan ematen dut. Gaztañadui kalean. Deitu telefono honetara: 659 71 05 32.

Arrasate. Garaje itxia errentan ematen dut. Gaztañadui kalean. Deitu telefono honetara: 659 71 05 32.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Bergara. Logela bat alokairuan hartuko nuke. 667 56 13 24.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Logela bat alokairuan hartuko nuke. 667 56 13 24.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. BESTELAKOAK

Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri diru.

943 25 05 01
sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITU; GAINERAKO 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRU MODULUKO.

PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitekeen operazioen erantzukizunik.

2007-2008 IKASTURTERAKO TXATXILIPURDIKO LAN ESKAITZAK

LUDOTEKA ETA GAZTE TXOKOETAKO DINAMIZATZAILEAK BEHAR DIRA:

- Arrasateko ludoteca eta gazte txokoetan lau orduko kontratuko lana.
- Antzuola, Aretxabaleta, Zaldibar eta Eskoriatza gaztelekuetan asteberuetako lana.

Gutxieneko eskakizuna:

Legution 2 azken etxebizitzak

240.000 edo
265.000 €



- Egongela eta terraza urtegira begira.
- 104 eta 123 m² erabilgarri.
- Primerako materialak:
 - Egurrezko tarima.
 - Armairu hormatudun logela nagusia.
 - Dutxa manparaduna.
 - Horma lauak.
- Garajea aukeragarri.
- Ganbara prezioaren barne.
- Bat-bateko ematea.

ETXE HAUEK EZAGUTU NAHI
BADITUZU, DEITU ZENBAKI
HONETARA

945 15 15 15



Jon Galdos > Golf jokalaria

"Oso zaila da golfetik bizi ahal izatea, baina nik ahalegindu egin gura dut"

Datorren urteari begira jarri da Jon Galdos; Mikel anaieren bidea jarraitu gura du. Horretarako

badaki golfa serioago hartu eta gogor entrenatzen hasi beharko duela. Aurten amaitu ditu

ikasketak, Bergaran. Gainera, pozik dago aurtengo denboraldian egin duen lanarekin: bi

txapelketa irabazi ditu, biak Larrabeako zelaian, eta beste baten txapeldunorde izan da.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABAleta
Udako oporrak hasi dira batzuentzat; beste batzuentzat, berriz, ikasketak bukatu bezain laster, gogor entrenatzeko garaia heltzen da. Jon Galdos aretxabaletarra, esaterako, egunero joaten da Larrabeako zelaira golfean egitera. Datorren urteari begira, golfean buru-bela-rrri ibili gura du; badaki, baina, zaila izango dela profesionaletara saltoa ematea.

Noiz hasi zinen lehenengoz golfean?

Bederatzi urterekin hasi nintzen. Hasiera baten, futbolean ibiltzen nintzen, baina behin golfa probatzen nuenean futbola utzi eta golfean hasi nintzen. Nire anaia Mikel ni baino lehenago hasi zen golfa praktikatzen. Gero hasi nintzen ni.

Hasierako ikastaroak Larrabeako golfean egin nituen; hasieran ez zitzaidan askorik gustatu, baina gero, gustua hartu nion eta serioago jokatzen hasi nintzen.

Erreferente izango duzu Mikel anaia. Haren bidea jarraitu gura duzu?

Bai, niretzako Mikel erreferentea da; haren bidea jarraitu gurako nuke. Profesionaletara iristea oso zaila da, baina ahalegindu egin gura dut. Egia esan, nahiko zaila ikusten dut.

Aurten oso denboraldi ona egin duzu. Hainbat garaipen lortu dituzu, gainera.


Bai, aurten oso pozik nago egindako lanarekin. Bi garaipen lortu ditut, biak Larrabeako zelaietan, eta beste baten txapeldunorde geratu nintzen.

Larrabeako baziak artean jokatzen diren txapelketak izan dira irabazi ditudanak: sozialak izaten dira. Euskadiko zelai guztietan jokatzen dut: Bilbao, Gasteiz eta Donostia inguruau ibiltzen naiz, baina gehienbat Larrabeen.

Eta datorren urteari begira, golfean zentratu gura duzu.

Bai, hala da. Nire asmoa hori da; aurten, Bergaran egiten ari naizen ikasketak bukatuko ditut eta datorren urteari begira, berriz, golfean serioago hasi gurako nuke.

Oso zaila da golfetik bizi ahal izatea, baina nik ahalegindu egin gura dut; epe bat hartuko dut, eta ondo doala ikusten badut, aurre-rajratuko dut. Gaztea naiz eta nire ikasketak baditut; hortaz, berriz, golfean serioago hasi gurako nuke.



MAIDER ARREGI

PERTSONALA

Herria: Aretxabaleta. **Adina:** 19 urte. **Ikasketak?** DBHko laugarren maila eta orain bukatu berri dudan administrazio modulu. **Zaletasunak?** Nire zaletasun nagusia golfa da, ez dut besterik. **Bizitzeko toki bat?** Gasteiz, oso gogoko dudan hiriburua da. **Zein**

dazurejakigustukoena? Makarroiak jaten ditut gusturen. **Egin duzun bidaia bat?** Egin ditudan guztietatik ez dakit zein aukeratu. **Musika talde bat?** Azkenaldian, El Arrebato entzuten dut. **Amets bat?** Profesionaletara iristea da nire ametsa.

Entrenamenduak aldatu egin beharko zenitezke. Gogorrago hasi beharko zenuke, agian.

Gogorrago entrenatu beharko dut. Gehiagotan etorri beharko dut Larrabea eta serioago entrenatu.

Zaila egin zaizu entrenamenduak eta ikasketak uztartzea?

Astelehenetik egubakoitzera entrenatzen naiz; gero, egubakoitzean, zapatauan eta domekan entrenatzen ibiltzen naiz. Egia esan, ez zait gogorra egiten; ondo antolatzea izaten da dena.

Ikasketak direla-eta gutxi entrenatu naiz, baina orain, uda partean egunero etortzen naiz entrenamenduak egitera. Zazpi orduan izaten naiz entrenatzen; asko da, bai, baina beharrezkoak dira. Beste lagun batzuekin batera aritzen naiz; gehienbat, jokatu egiten dugu. Beti golfeko makilekin entrenatzen gara; ez dugu beste kirol edo entrenamendu saiorik egiten.

Golfa kirol pijoia dela esaten da. Zer diozu?

Ez dut uste horrela denik. Gertatzen dena da kirol zaila dela; ezin da edozein lekutan jokatu. Zelaia behar da, eta baita pilotaria eta golf makila egokiak. Baina nik ez dut uste pijoia denik.

Beste kirolari batzuen moduan, elikadura asko zaindu behar izaten duzu?

Ez; aurten, gimnasioan emanago dut izena eta gogorrago entrenatzen hasiko naiz. Fisikoki indartsuago egoteko izango da; gainerakoan, ez dut elikadura bereziki zaintzen eta ezta ere entrenamendu berezirik egiten.

Ondo jokatzen ikasi arte, zentbatean egin zenuen huts? Pilotaria jotzea gura eta ezin jo?

Askotan. Hasieran zaila egiten da pilotaria jotzen asmatzea. Nik ez dut gogoratzan nolakoa izan zen lehenengo aldia; baina seguru nago huts asko egin nituela. Asko kostatzen da kirol honi eritmoa hartza.

Debagoienean golf zelaia egiteko asmotan dabilta. Beharrezkoak ikusten duzu?

Bai, beharbada bai. Oñatin zelaia egiteketan dira; nik, orain, Larrabeen entrenatzen naiz, eta, egia esan, etxetik 15 minutura geratzen zait zelaia. Hala ere, elurra egiten duenean eta Larrabea itxita egoten denean, Oñatioko Irelorera joaten naiz.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA URTE 10 zurekin, geroa lantzen

Home | **Ikasleak** | **Enpresak** | **Bisitariak** | **Ikasle berriak**

Gunearen Mapa | **Kontaktuak** | **bilatu**

English | **Español**

Ongi etorri

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko web orriaren diseinu berria

Mondragon.edu, unibertsitate webgune onenen artean, erabilgarritasunaren ikuspegitik

M. U.-k 10 urte bete ditu eta nabarmen sendotu da, ikasle-kopurua % 67

GOIENKARIA

HUHEZI

Enresa Zientziak

Goi Eskola Politeknikoa

Biblioteca Idazkaritza Birtuala

MONDRAGON UNIBERTSITATEA Muren webgunea www.mondragon.edu helbidean dago.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA Muren webgunea www.mondragon.edu helbidean dago.

teknologia berriak

> MARKO DIGITALA

Modularizazio osagarrriak erabilita wi-fi eta bluetootha, Pandigital etxearen marko digitalak

Pandigitalen bere produktu gama berria aurkeztu du.

Modularizazio aukera dute, hau da, marko digitalari aukera berriak gehi dakitzioke, hala nola wi-fi eta bluetooth moduluak eta kablerik gabe piztuta edukitzeko bateriak.

Gama berriak sei eta 15 hazbete bitartean dauden pantailak ditu eta guztiak modularizazio aukera dute.

Salneurria 88 eta 220 euro bitartean, modeloaren arabera, eta osagarrriak 30 eta 37 euro bitartean.



Modularizazio aukerak kablerik gabe piztua edukitzeko bateria moduluak.

> WEBCAMA

Eramangarrientzako fokatze automatikoa duten definizio handiko Logitech etxearen web kamerak

Logitech enpresak merkatu-segmentua irauliko duten bi webcam berri merkaturatu ditu hilabete honetan.

QuickCam 9000 eta QuickCam Pro ordenagailu eraman-garentzako. Biek ere, bi megapixeletako txipa dute, eta definizio handiko bideo euskalherria. Fokatze automatikoa duten Carl Zeiss lenteak erabiliz dituzte eta mikrofona barneratuta dute.

Biek 99,99 euroko salneurria dute.



Salneurri berean presta-kuntza ezberdinak ematen dituzten webcamak.

> DISKO GOGOR ERAMANGARRIAK

Karkasa barruan USB 2.0 kablea barneratuta dauka Fujitsu etxearen disco gogor eramangarriak

Fujitsu etxeak bere azken disco gogor eramangarria aurkeztu du. USB 2.0 kablea karkasa barruan barneratuta dauka, eta korronte elektrikoa konexio kablearen bitartez ordenagailutik hartzen du.

Kolpeen aurkako sentsorea du, eta segurtasun kopiak eta datu-enkriptatzea egiteko softwarea.

Bi edukiera ezberdin izango ditu: 300 gigako bertsioak 168 euroko balioa izango du eta 120 gigakoak 95 euro. Aurtengo udazkenean jarriko dituzte bi modeloak salgai.



Kolpeen aurkako sentsorea, segurtasun kopiak eta datu-enkriptatzea egiteko softwarea du.

INTERNET > UNIBERTSITATEEN WEBGUNEAK

Estatuko unibertsitateen artean, MUk webgune onenetarikoa dauka

Mondragon Unibertsitateak bere arloko webgune onenetariko bat dauka, erabilgarritasunean espezializatutako webgune baten arabera

tu, honako helbidean ikus daitezke ikerketaren emaitzak eta xehe-tasunak: usalos.es/206/ranking-de-universidades.

Mondragon Unibertsitatearekin batera, beste hiru unibertsitate hauek ere aipatzen ditu azterketak, webgune onenen jabe moduan: Universidad de Córdoba, Universidad de Santiago eta Universidad Francisco de Vitoria.

WEBGUNE ONENAK

Azterketa 2006ko irailean egin zuen *Usalo* webguneak, jakiteko Espainiako unibertsitateen webguneak zenbateraino diseinatu diren erabiltailea gogoan hartuta. Horretarako, 26 adierazle erabili dituzte, lau taldean banatuta: unibertsitatearen irizpide politikoak, irakurte-rraztasuna, diseinua eta informazioa lortzeko ematen dituen erraztasunak.

Horren arabera, MUk eta lehenengo postuan sailkatutako beste unibertsitateek bost akats inguru bakarrik egiten dituzte.

AKATS SARRIENAK

Baina hori salbuespina da; izan ere, oraindik, unibertsitateek akats asko egiten dituztela aurkitu dute. Sarrien agertzen diren akats batzuk hauek dira: RSSrik ez ipintzea; loturen koloreak gaizki erabiltzea; dokumentuak deskargatzeko denbora larregi erabiltzea; webgunea zatituta egotea -hainbat unitate hainbat web-ekin-; bilatzaile galduak edo dagoneko existitzen ez direnak erabiltzea; hizkera administratiboa larregi erabiltzea; eta informazioa bakarrik irudi bidez ematea.

Ikertutako webguneen artean, egindako batez besteko akats kopurua *Usalo*-k markatu dituen akatsetatik %39 da.

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA
Usalo izeneko webguneak dio Mondragon Unibertsitatearen webgunea Espainiako lau onenen artean dagoela, erabilgarritasunaren ikuspegitik. Ondorio horretara iristeko 73 unibertsitateren webguneak aztertu ditu, 26 adierazle aintzat hartuta, denak ere webguneen erabilgarritasunarekin lotuak. Hain jus-

¡¡Azkar ibili, ihes egiten dute eta!!



100etik gora ibilgailu

erdiberri

edo **OKM**-koak aukeran

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Feel the difference



berriak

> GOITB
Sanjuanetako bertso jaialdia GOITBn eguztenean

San Juan jaien bezperan Arrasaten egin zuten bertso jaialdia eskainiko dute Goiena Telebistan eguztenean. Monterron parkean egiteko zen jaialdia Amaia antzokian egin zuten, eguraldiagatik. Bertan aritu ziren Nerea Elustondo, Xabier Silveira, Anjel Mari Peñagarikano, Amets Arzallus eta Jokin Labaien bertsolariak, nor baino nor gehiago. Gai jartzale lanetan Enaitz Alustiza ibili zen.

> PROGRAMAZIOA
Goierrri Telebistak ekoiztutako Segurako dantza txapelketa

Segurako dantza txapelketak utzi dituenak ikusteko aukera izango duzue Domekan 20:30ean. Segurako Baratz pilotalekuak jokatutako Euskadiko dantza solteko txapelketaren 31. edizioan, Jon Ander eta Edurne Azpitarte anai-arreba azkoitiarrak ateira dira garaile. Bikote parte-hartzaleek fandangoa eta arin-arina dantzat behar izan zituzten. Domeka iluntzean duzue hitzordua.

> ARRASATE IRRATIA
Alvaro Arrizabalaga, besteak beste, asteburuan

Asteon hasi dituzte Lezetxiki kobako aurtengo industreta lanak. Alvaro Arrizabalagak, Aranzadi elkarteko kide eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea denak eman-dako azalpenak Asteko Gainbegiratua-n berreskuratuko ditugu.

Horrez gain, Oskar Arana itzultzalearekin izandako elkarritzeta ere entzungai izango duzue, beste batzuen artean, zapatua eta domekan.

> ARRASATE IRRATIA
Liburu gomendioak Elkar Megadendaren esku

Datorren astean hasita, *Uda giroan* saioan, astero egingo dugu bisita Arrasateko Elkar Megadendaren. Udako oporretarako liburu gomendioak egitea dugu helburu. Apal guztietan kuxkuxean ibiliko gara irakurle bakoitzarentzako liburu aproposa aurkitzea asmotan.

Datorren asteko saioan, bada, bidaiatzeko gidat har-tuko ditugu eskutan. Dauden aukerak aztertuko ditugu, eta proposamen zabalak egin.


'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA 22:15

Oskar Arana itzultzzailea 'Ilunpean' saioan

Oskar Arana itzultzzaile aramaioarra elkarrizketatuko du Oihana Elortzak 'Ilunpean' saioan

GOIENKARIA > ARRASATE

Aramaion jaio zen eta itzultzzailea da. Orain dela gutxi, George Orwellen 1984 liburu ezaguena itzuli du. XX. mendeko liburu esanguratsuenetarikoa, Txalaparta argitaletxearen eskuutik itzuli du Oskar Aranak. Amesgaizto batetik abiatuta, gizateria oso baten iragarpena egiten du Orwell idazle ezagunak 1984 liburuan. Hala, gizartea nondik jo behar ez duen azaltzen du liburuak. Aranaren iritziz, koherentzia terminologikoa zaintza izan da zailena. Gai horiek eta beste batzuk, gaur, *Ilunpean* saioan.



OSKAR ARANA 1984 eleberria euskaratu berri du aramaioarrak. GOIENKARIA

GOITB > 'DEBAGOIENEAN KANTARI'

162 taldek eta 572 ume eta gaztetzok eman dute izena karaoke ikuskizunean

GOIENKARIA > ARRASATE

Sekulako harrera izan du *Debagoienean Kantari* karaoke ikuskizunak. Hala, 162 taldek hartuko dute parte Debagoienean estreinakoz egingo den ikuskizun horretan. Hasiera baten, izen ematen zuten taldeean artean

zozketa egiteko asmoa zegoen, baina azkenean, izena eman duten talde guztiee esku hartzea aukera ekaintza erabaki dute.

Amaia Txintxurretan aurkeztuko duen saioko ikuskizunak ibarreko lau herritan eginago dituzte: Oñatin, Bergaran,

Arrasaten eta Eskoriatzan. Entseguak irailean eta urrian izango dira eta aurrez, kantarko CDak pasatuko dizkiete parte-hartzaleei, bakoitzari egokitutu zaion abestia entseautzen joateko. Talde bakoitzari zein kanta egokitutu zaion hilabete honetan jakingo dugu eta grabazioak eta ikuskizuna urrian eta azaroan zehar egingo dituzte. Goiena Telebistatik laster ipiniko dira harremanetan parte-hartzaleekin, kantuak banatzeko. Ikuskizunak Debagoieneko aretoetan egingo dituzte eta horiek guztiak GOITBk emango ditu.

telebegi

Edu Mendibil > www.goiena.net/blogak/edu

Gertuko familia bat

Tarteka ikusi arren, Simpsondarren gorabeheren berri izaten dut lagun ba(r)ti esker: bizitzako edozein gertakariren aurrean, haien pasadizoren bat ekartzen du gogora, barre artean. Zenbait kapitulu horrenbeste aldziz errepikatu ostean, elkarritzak buruz dakizki honezkero. Garai bateko filosofoen lekua hartzute Homerrek-eta lagunarengan. Ez da lezio txarra.

Marrazki bizidunetan aro berri bat inauguratu zuen telesailak 18. denboraldia bete du dagoeneko. Marrazki zoragarriak, gidoi garratza, errealityeari eta fikzioari erreferentzia etengabeak, pertsonaia gogoangarriak edo hainbat taburen (familiaarena tartean) errebisio maltzurra dira telesailaren markak. Gaur, benetan famatua izatera iristeko Paris Hiltonenkin ez, Simpsondarren kapituluren baten irten beharra dago. Euskaldunik aterako da inoiz? Nor izango da lehen? Moeren tabernan apustuak egin daitezke.

Bien bitartean, gorriz markatuta daukat uztailaren 27a, egun horretan estreinatzen delako *Los Simpsons: la pelicula...* eta oporrik hartzen ditugulako baita.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.
Lezetxikiko indusketa lanengainean, Alvaro Arrizabalagarekin; Yemen herrialdean zehar bidaia; Oskar Arana itzultzalearen liburu gomendioak;...

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarritzak
Agenda
Bainutokiaren konexioak: Garaioko urtegia, Musakolako igerilekuak, Donostiako Aquarium
Liburu gomendioak
Zozketak
Zorion agurak
Efemericak
12:05 Izarran ordua: abesti ezagunak
14:00 Uda Giroan (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albiste laburra.
17:15 Zorion agurren tarte (errep.).

GOITBko programazioa

Egubakoitzza, 6

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musikantoi. 14:45 Albistea aurrerapena. 15:15 Ius-ten. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Albistea. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Jaia 07. 18:45 Albistea. 19:15 Erre-portaje. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Hitz bitan. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 7

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Boboboak, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Iusmira. 11:30 X5. 12:00 Astekoak. 12:15 Eltze beroa. 12:45 Eltze beroa 13:30 Ur eta Iur. 14:00 Berbaire. 15:00 Jaia 07. 16:00 Segurako dantza txapelketa. 16:30 Erreportaje. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Klip@. 20:00 Hitz bitan. 20:30 Erreportaje. 21:00 Iusmira. 21:30+5. 22:00 Astekoak. 22:15 Klip@. 22:30 Ilunpean. 23:00 Didjeridu. 23:30 Musikantoi. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 8

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Boboboak eta Trikitraka trikitron. 11:00 Hitz bitan. 11:30 Musikantoi. 12:00 Ur eta Iur. 12:30 Klip@. 13:00 X5. 13:30 Erreportajea. 14:00 Didjeridu. 14:30 Ilunpean. 15:00 Iusmira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Ur eta Iur. 18:30 Iuskusten. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Iusmira. 20:30 Segurako dantza txapelketa. 21:00 Jaia 07. 22:00 Didjeridu. 22:30 Iuskusten. 23:00 Erreportaje. 23:30 Ilunpean. 00:00 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehenetik, 9

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Teknopolis. 14:15 Hitz bitan. 14:45 Albistea aurrerapena. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Biziategia. 16:15 Erreportaje. 16:45 Albistea. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ur eta Iur. 18:45 Albistea. 19:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Gaurkoak. 20:47 X5. 21:15 Harmailatik. 21:45 Berriak. 22:15 Iusmira. 22:45 Berriak. 23:15 Didjeridu. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Hasiberriak. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 10

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Boboboak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmaillatik. 14:15 X5. 14:45 Albistea aurrerapena. 15:15 Eltze beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Telesaia. 16:15 Iusmira. 16:45 Albistea. 17:15 Boboboak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Iusmira. 18:15 Biziategia. 18:45 Albistek. 19:15 Harmaillatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Boboboak. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Erreportaje. 21:15 Berbaire. 21:45 Berriak. 22:15 Harmaillatik. 22:45 Berriak. 23:15 Hitz bitan. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 11

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Erreportaje. 14:45 Albistea aurrerapena. 15:15 Ur eta Iur. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Albistea. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Harmaillatik. 18:15 Biziategia. 18:45 Albistek. 19:15 Harmaillatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Berto saioa. 21:45 Berriak. 22:15 Berbaire. 22:45 Berriak. 23:15 Hitz bitan. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 12

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Boboboak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berto saioa. 14:45 Albistea aurrerapena. 15:15 Eltze beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Telesaia. 16:15 Iusmira. 16:45 Albistek. 17:15 Boboboak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Eltze beroa. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albistek. 19:15 Biziategia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Boboboak. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Berto saioa. 21:45 Berriak. 22:15 Berbaire. 22:45 Berriak. 23:15 Ur eta Iur. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Hasiberriak. 00:15 Emisio amaiera.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.

Etxetresnetan sekulako eskaintzak!

Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



BERMEO
2
URTE

1.850
X
598
X
600 mm

A Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA COMBI 6 FAC-495
420 € 70.140 pta



BERMEO
2
URTE

1.700
X
600
X
600 mm

A Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA 4FE-01E41
320 € 53.440 pta



BERMEO
2
URTE

A Sailkapen energetikoa
ONTZI-GARBIGAILUA LJA-0250
KARGA ERDIA
305 € 50.935 pta



BERMEO
2
URTE

1.000 b/min
5 kgr.

A Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA LA-110
305 € 50.935 pta



BERMEO
2
URTE

LABEA
BITROZERAMIKA
STA1410

**LABEA eta BITROZERAMIKA
INSTALATUTA**
335 € 55.945 pta



BERMEO
2
URTE

AIRE EGOKITU PORTATILA
FAP-2 CR HOTZA
2000 KCL/orduko
325 € 54.275 pta



BERMEO
2
URTE

AIRE EGOKITU PORTATILA
ADR 66 HOTZA
2000 KCL/orduko
290 € 48.430 pta



"EVA" MAHAI
110x70 zm

365 € 60.731 pta



BEROTU SUKALDEA C-85 NC **1925 €** 321.475 pta

Sukalde itxia, berotzen ez duena, igeltserotza lanik barik. Kutxa eta gaineko sukalde bikoitzarekin.

Altuera: 85 zm.
Luzera: 85 zm.
Sakonera: 60 zm.

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batzak besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A+ 70%
A 45%
B 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperativistendako prezo bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

Aurtengoan ere, Tourreko tropela Mediterraneora!

Abian da tropela.net:
tourra, sarean, euskaraz,
eta sariekin...

Izen ematea dohainik.

Izena emateko epea: larunbata, uztailak 7, 15:00tan


Sari nagusiak: Mediterraneoan zehar itsas bidaia bat Eroski Bidaiak eskeinita,
Orbea mendi bizikleta bat, astebukaera bat Atxaspi Hotelean edo Asturiases,
Astore arropa sorta bat, Ipintza sagardotegian afariak,... eta nola ez, euskal txirrindulariek
sinatutako maillotak!

tropela.net

Uztailak 6-13

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguzteneko egurdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Fax: 943 25 05 13

Dantza



ELORRIO

> Edu Muruamendiaraz bergararraren Aukera dantza taldea Musikairen

Bergarako dantzari eta koreografoaren dantza konpainiak *Bideak* ikuskizuna egingo du Elorrioko Musikaire egitarauaren barruan. Astelehenean, hilak 9, izango da emanaldia, 22:30ean, parkingean.

Musika



BERGARA

> Pablo Akarosek disco berria aurkeztuko du Ziripot tabernan

Cuentos y fabulas azkeneko lana aurkeztuko du Ziripot tabernan egingo duten jaian. Bihar, zapatua, izango da hori, 23:00etan. Harekin batera, DJ Alkatek (Klorofila Grow) bergararrak jardungo du.

Erakusketa



ESKORIATZA

> Espainiako gerraren gainean liburuetan ageri ez dena, erakusketa baten

Irakatsi gabeko irakasgaia. Espainiako Gerra Zibila eskolako liburuetan du izena erakusketak. Helburua da Espainiako gerra orain arte nola ikasi den eta gaur egun nola ikasten den erakustea. Ibarraundin, irailaren 16ra arte.

Musika

BERGARA

> Jazz emanaldia Los Inquilinos Quintet taldearekin

Udako egubakoitzako jazz emanaldie hasiera emango die Los Inquilinos Quintet boskotaren kontzertuak.

Gaur, egubakoitzta, 22:30ean, Espoloian.

OÑATI

> Lau talderen kontzertua

Gazteleku

Obligaciones, MC6, Sarri's Trio Rock'n'Roll eta Highscholl Gunners taldeak arituko dira. Gaur, egubakoitzta, 22:30ean.

ARRASATE

> Punk-rock kontzertua hiru talderekin

Golpe de Estado, 5 Twisters eta The Clashen bertsioak egingo dituen herriko talde bat egingo dute emanaldia.

Bihar, zapatua, 22:00etan, gaztetxeen.

BERGARA

> Steve Vai gitarra jotzailearen kontzertua

New Yorkeko gitarra jotzaile ezaguna munduko onenetarikoa da.

Hilaren 8an, domeka, 20:00etan, Jam aretoan.

IRUÑEA

> Malenkonia taldearen emanaldia Sanferminetan

Onatiarrek Kerobiarekin batera egingo dute emanaldia.

Hilaren 11n, eguztenea, 00:00etan, Medialunan.

BERGARA

> Organo emanaldia San Pedro parrokan

Esteban Landart organo jotzaileak egingo du emanaldi hori.

Hilaren 12an, eguna, 09:30ean, San Pedro parrokan.

Antzerkia

ELORRIO

> Yllanak eta Ara Malikianek 'Paganini' antzeztuko dute

Yllana konpainiak eta Ara Malikian musikariak sortutako lana da. Musika klasikoa oinarri hartuta, *Paganini* umorezko obra osatu dute antzerki taldeak eta musikariak.

Bihar, zapatua, 22:30ean, parkingean.

Dantza

ELORRIO

> Carmen Roche balletak 'Cenicienta' emanaldia egingo du

Kataluniako ballet neoklasikoak Musikaire egitarauaren barruan egingo du emanaldia.

Gaur, egubakoitzta, 22:30ean, parkiñean.

Hitzaldiak

OÑATI

> Ezker Abertzaleak hitzaldia antolatu du

Konponbidea gure esku. Lau herrialdeetako autonomia. Erabakitzte eskubidea hitzaldia antolatu du. Mahai Nazionaleko kide batek egingo du.

Hilaren 10ean, 19:00etan, kultura etxeen.

Lehiaketak

ESKORIATZA

> Leintz Ibarraundi Fundazioako logotipo lehiaketa deitu dute

Diseinu grafikoan diharduten espezialista eta profesionales zuzenduta dago. 2.000 euroko sari bakarra egingo da. Proposamenak jasoko dira hilaren 18ra arte, Ibarraundi museoan.

Informazio gehiago: 943 71 54 53.

Erakusketa

OÑATI

> Australiako komunitate aborigen margo erakusketa

Warlukurlangu Artista Aborigen Elkartearen lanak dira. Elkartearen daude 600 lagunetik gora eta Yuebdumun dago, Alice Springsetik 300 kilometrora, Australia iparraldeko erdialdean. Bestalde, elkarre horretako kideen lanak ezagunak dira kolore biziko margo akrilikoengatik eta serigrafiengatik.

Uztailaren 18an, 19an eta 20an, 11:00-13:30 eta 16:30-19:00, Sancti Spiritus unibertsitatearen klaustroan.

ANTZUOLA

> Jaietako euskal ezkontzako arreoa ikusgai

Lehengo ezkontza antzeztuko dute jaietan. Hala, ezkon-

PROPOSAMENA



gaien arreoa ikusgai egongo da aste bukaeran, Olaran etxean.

12:00-14:00 eta 18:30-20:30.

Ospakizunak

BERGARA

> San Kristobalen auzoko jaiak ospatuko dituzte

Gaur, egubakoitzta, pinua jasoko dute eta auzokoendako saiheski jana eta musika egongo dira. Bihar, zapatua, dantzaldia egongo da Orotz taldearekin, 23:00etan. Domenekan, ohiko autoen bedeinkatza egingo dute. 12:00etako mezaren ondoren izango da hori. Gero, Moisez Azpiazu dantz taldeko emanaldia egingo dute eta haurrendako jokoak egongo dira. Martitzean, San Kristobal eguna, 12:00etan meza izango da eta gero, autoak bedeinkatuko dituzte.

Domekan eta martitzenean autoak bedeinkatuko dituzte 12:00etako mezaren ondoren.

ARRASATE

> Hainbat ekintza Arrasateko Pobrezia Zero antolatuta

Munduko gobernu eta estatuburu guztiak Milurteko Garapen Helburuak betetzeko ezarritako epea Ekuadorrera iritsiko da bihar, zapatua. Diote orain arteko erritmora jarraituz gero, helburuen %50 baino ez direla beteko. Hori horrela, pobreziaren kontrako elkarreparatzetze ludikoa egingo dute: 18:00etan, Donostiako La Tribu Batukada taldeak kalejira egingo du; 19:00etan, Kiki, Koko eta Moko pailazoaren emanaldia izango da; 18:00etan, Sancti Spiritus unibertsitatearen klaustroan.

ANTZUOLA

> Jaietako euskal ezkontzako arreoa ikusgai

Lehengo ezkontza antzeztuko dute jaietan. Hala, ezkon-

Bihar, zapatua, Herriko Plazan.

ANTZUOLA

> Erretiratuen bazkaria herriko jaien atarian

Eguenean hasiko dira herriko jaiak. Hori horrela, eta urteroko ohiturari jarraituz, erretiratuen bazkaria egingo dute. 11:30ean, meza izango da eta bazkaria, berriz, 14:30ean hasiko da, Herri Ikastetxeen. Gero, dantzaldia izango dute.

Etzi, domeka.

Bestelakoak

OÑATI

> Natura ibilbide gidatuk Natura Eskolako kideekin

Aste bukaera honetan hasiko dira ibilbideak. Lehenengo proposamena da: *Orkatzategiko hegazti kolonia*. Teleskopioz lagunduta, saiak,

belatzak... ezagutu ahalko dira. Lau orduko ibilbidea da, erraza, eta prezioa 5 euro da pertsonako. Hasiera puntu da Arrikrutz Kobaren parkinga.

Hilaren 7an, zapatua, 09:00etan.

DEBAGOIENA

> 'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpaina luzatu egin dute

Elgeta eta Bergarako euskara elkarteeek herriko liburutegiekin eta Elkar megadendarekin batera egindako kanpaina da. Euskarazko irakurketa bultzatzea du helburu. Kanpainan parte hartzeo egin behar da: liburutegira joan, aparteko apal batean dauden 100 liburueta bat maileguan hartu eta irakurri eta gero, lau galdera orokor dituen fitxa bete. Hala, deskontu txartela jasoko du erabiltzaileak eta Elkarren liburu hori erosteko orduan %25eko deskontua izango du. Elgetako Goibeko eta Bergarako Jardun elkarteko kide izanez gero, beste %25eko deskontua egindo diote. Uztailaren 21era arte.

DEBAGOIENA

> 'Biblioporrak' gidaliburua kalean dago

Uda sasoian gaudela eta, Debagoieneko udal liburutegiek hainbat liburu eta ikusentzenezko jasotzen dituen *Biblioporrak* gida kaleratu dute. Adin tarte guztidako proposamenak jasotzen ditu.

Liburutegietan daude eskuragai.

Ikastaroak

DEBAGOIENA

> Oihulari Klown taldeak hainbat ikastaro emango ditu

Klown jardueraren gaineko hastapen eta sakontze ikastaroak emango dituzte. Hainbat izango dira uztailean hasi eta urrira arte. Uztailaren 17an hasiko dira. Virginia Imazek eta Jose Carmelo Muñozek –taldearen sortzaileak– emango dituzte eskolak.

Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu 607 20 45 03 zenbakira.

BERGARA

> Argazkilaritza ikastaroa Photoshop bitarte

Hastapen eta sakontze mailak emango dituzte. Hasta pen maila urriaren letek 11ra bitartean izango da (16 ordu), astelehenetik egunera, 18:30-20:30 ordutegian, Miguel Altuna institutuan. Izenematea 40 euro dira, 30 euro ikasle, erretiratua eta langabetuendako. Sakontze maila, berriz, urriaren 15etik 31ra izango da (22 ordu), hastapen mailaren ordutegi eta leku berean. Prezioa ere bera da. Bietan izena emanez gero, 60 euro dira, 50 euro, ikasle, erretiratua eta langabetuendako. Parte hartzeko diru sarrera egin behar da Kutzako zenbaki honetan: 2101 0070 84 0010740827. Gero, kultura etxera eraman beharko da ordainagiria.

Plaza mugatuak daude (24 lagunendako) eta bergararrek lehentasuna dute.



Los climas ***

Zuzendaria: Nurri Bilge Ceylan.

Aktoreak: Ebru Ceylan, Nurri Bilge Ceylan. Turkiako 2006. 101 min..

Gaurko proposamena, *Los climas*, Turkiatik datorkigu eta jatorrizko hizkuntzan azpitituluekin da. Datu horiekin askok eskuak burura eramango dituzte, baina zinema gustuko duenak eta zinema egiteko beste erritmo eta moduak ikusteko jakinmina duenak ondo egingo du zinemara hurbiltzen.

Halako filmak dastatzeko txip aldaketa bat egin behar dugu, telebistak eskaintzen dituen ekoizpenen osagaiak: pertsonaia askoren partehartzea, oso iraupen gutxiko eszenak, egoera batetik bestera saltoka ibiltzea..., ahaztea komenigarria da. Kuriositate eta pazientzia pixka bat behar da istorio honen sekretuetan sartzeko. Pertsonaiak berba gehiegi egiten ez badute ere, soinuek garrantzia dute; eszenak luzeak dira; klima (eguzkia eta beroa, elurra eta hotza), paisaiak, detaile txikiak eta, batez ere, pertsonaien aurpegiak, film honen osagai nagusiak bihurtzen dira. Horren adibide izan daiteke nola zuzendariak mantentzen duen denbora dezente emakume protagonistaren aurpegiaren lehen planoan (bi aldiri filmean) malakoak agertu arte, emakumeak sentitzen duen samindura eta bakardadea adierazteko.

Los climas bikote baten harremanen deskribapen barnekoia da. Bikoteak jasaten duen krisialdia, banantza eta berri izango duten topaketa ikusiko ditugu. Pertsonaien bakartze emozionala ezagutuko dugu eta batez ere, gizonari dagokionez, haren jokaera berekoia (ez du bakarrik bizi nahi, baina ez du bere emoziozko loturrik nahi). Zuzendariak filmaren barneko erritmoa doitasunez ezartzen du eta ikusleari pertsonaien sentimenduak heltzea lortzen du horrela.

Antonio Zabala

Zinema

ARETXABAleta
HERRIKO PLAZA

Nomadak TX

Egubakoitzoa: 22:30.

ARRASATE
MONTERRON

Spiderman 3

Egubakoitzoa: 22:30.

EIBAR
UNZAGA

Zodiac

Egubakoitzoa: 19:00, 22:15.

Zapata eta domeka:

19:00, 22:15.

Astelehena, martxena

eta eguztina: 19:00,

22:15.

Betizu

Zapata: 17:00.

Domeka: 17:00.

GASTEIZ
GURIDI

Transformers

17:00, 19:45, 22:30.

Porque se frotan las

patatas

17:00, 20:50, 22:45.

Flyboys, heroes del

aire

16:30.

Chuecatown

17:30, 20:00, 22:30.

Yo

16:30, 20:30, 22:30.

Ladrones

16:30.

Shrek Tercero

16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Piratas del Caribe en

el fin del mundo

16:30

Ocean's 13

20:00, 22:30.

28 semanas despues

17:30, 20:00, 22:30.

28 semanas despues

Valentinoren jarraitzaileak

VALENTINO TALDIE Arrasateko bost lagun Assengo zirkuituan izan dira asteburuan, 'Il dotore' animatzen

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Valentino Rossi pilotu italiaarrak jarraitzaile zintzoak ditu Arrasaten. Joan den aste bukaneran Holandaraino joan ziren Arrasateko bost lagun *'Il dotore'* animatzen: Iban Garai *Musi*, Gregorio Gallego *Lobo*, Nestor Barrenetxea *Titor*, Markel Elortza *Kubano* eta Koldo Ginart *Koldux* Assengo zirkuitutik etorri berriak dira. Eguznetik domekara bitartean egon ziren Holandan, hango motor sari nagusia ikusten.

Amsterdameria hegazkinez iritsi ondoren, hiru orduko bidaia izan zuten trenez Assengo zirkuituraino. Iban Garairen hitzetan, "katedrala esaten diote hango zirkuituari. Zaharra da zirkuitua eta xarma berezia dauka. Dena dela, giro aldetik, gehiago gozatu genuen iaz, Montmelo. Orduan 130.000 lagun inguru elkartu ginen. Assenek, aldiiz, 65.000 lagunendako lekua dauka. Motorzale beterano ugari zegoen zapatauan. Igartzen da modu berezian bizi dituztela motor lasterketak".

Arrasateko Valentino Taldiek pankarta erraldoia erakutsi zuen Assenen. Hori kolorekooa, pankartak 5x5 metroko neurria dauka eta Euskal Herriko maparen gainean Rossiren 46. zenbakia irakur daiteke. Rossik ez zien hutsik egin zapatuko karreran. Nahiz eta 11. postutik atera, garaipena erdietsi zuen italiarrak, Casey Stoner mundialeko liderra eta Nicky Hayden atzean utzita. "Sekulako era-kustaldia egin zuen lasterketa osoan. Hiru itzuliren faltan Stoner aurreratu ondoren, eutsi egin zion abantailari. Eta gu pozik...", diosku *Musi*-k.

VALENTZIA ETA MUGELLO

Valentinoren jarraitzaileak primeran ibili dira Holandan. Aza-roan txapelketako azken lasterketa ikustera joateko asmoa dauka, Valentziara. "Lagun bat daukagu han eta ez da aitzakia txarra hara joateko... Etaurrengo urtean Italiara, Mugelloko zirkuitura joan nahi genuke". Etxean jokatuko du orduan Rossik.

GARAIPENA Rossik ez zien hutsik egin; izan ere, nahiz eta 11. postutik atera, garaipena erdietsi zuen italiarrak

KATEDRALA "Katedrala esaten diote Assengo zirkuituari. Zaharra da, baina xarma berezia dauka", dio Iban Garaik



HOLANDA Arrasateko Valentino Taldieko partaideak Holandako Assengo zirkuituan, zapatauan.

MUSI

ahobero

"EAJk eta EAk barikura arte [gaur] ez dezatela lasai lo egin; gainera, Kutxan itxoingo diet"

Miguel Buen > PSE-EEko hautagaia Gipuzkoako Batzar Nagusietarako

Jesus, motel! Al Caponek ere ez luke hobeto egingo. Egia esan, Markel Olano eta bere diputatu kontseiluari ez zaie erraz gertatuko agintaldia. Eginahalak egin beharko dituzte egonkortasuna lortzeko.

iturri onetik

Espainiako parke teknologikoen elkarrearen biltzarra urrian, Arrasaten

Garaia Berrikuntza Guneak antolatuta, APTE elkartearren nazioarteko konferentzia egingo da Arrasaten urriaren 17an eta 18an. Besteak beste, enpresa, parke teknologikoak, unibertsitate edo berrikuntza alorrean lanean ari dira ordezkarriak elkartuko dira Arrasaten. Hain zuzen, Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren artean zubi lana egitea da kongresuaren helburu nagusietako bat.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goina.net/blogak/piperraутса

Gipuzkoa maite

Hau idazterakoan ez da oraindik Diputatu Nagusia hautatu. Aukera gehien Markel Olanok du, nahiz ezin den erabat baztertu ustekabea. Gipuzkoako emaitzak oso irekiak izan ohi dira, eta oraingoan areago izango ziren ANV legez kanporatu ez balute.

Emaitzak horiek, politika fina eskatzen du Gipuzkoak, jarrera irekiak, lankidetzarako gaitasuna. Eta ez azken urte bete honetako anabasa: Txabarri indarrez kendu, Jauregi erre, Ogasuna alderdikeriaz erabil, Romero arrasatearra Batzar Nagusien buru jokaldi celebre batzen ondorioz, Galdos oñatiarra martzurkerian...

Ardatz tradizionalak -EAJ/EAk- gero eta zailago du aginteari eustea. Eta alternatibari, edozein dela ere, irekin bat falta zaio. Egoera zailean ekiten dio Gipuzkoak legealdiari.

ai, eñe!



Intxaur-oskolak mahaian ez sakabanatzeko...

Intxaurrek apurtzerakoan oskolek mahai gainean... edo lurrean amaitzen dute askotan. Horra hori saihesteko gailu berria.

<http://tinyurl.com/2jtl2y>



Bisita ezazu Gipuzkoako sukaldetako armairu eta bainugelan erakusketa handiena

Armeko
Sukalde Integrala

31 sukalde baino gehiago ikusgai
600 m² baino gehiagoko erakusketa
Europako lehen markak

Merkatuko prezio hoberenak



Ordutegia: 10 - 13 eta 16 - 19:30 . Larunbata: 10 - 13

Kataide Poligonoa 4 - ARRASATE - 943 770157



Fabrikazio eta muntaia profesionala
Aurrekontuak eta aholkularitza konpromisorik gabe

YOSU THERMIK
LEIHO ISOLATZAILEAK

Kalitate-prezio erlazio paregabea

25 urte
ZUREKIN